

Jean Martin Hiribarrenen omenezko Jardunaldia

Azkaine, 2010-IX-17

J. M. Hiribarren bere mendean

HARITSCHELHAR DUHALDE, Jean

Euskaltzain emeritua eta

Literatura Ikerketa batzordekidea

Sarrera data: 2011-II-11

Onartze data: 2011-VII-11

1810 eta 1815-en artean sortu da Iparraldean belaunaldi berri bat, haren artean dagoela Juan Martin Hiribarren. Erromantizismo garaian historiak, bereziki Erdi Aroak, hartzen du ordu arte ez zuen balioa. Hiribarrenen obraren parte on bat Euskal Herriaren historiak arduratzen da, daukan ondareaz ere (kantu, atsotitz, hiztegi). Haren obrak merezi luke azterketa sakon bat.

Hitz gakoak: belaunaldi, erromantizismo, historia, ondarea.

Entre 1810 y 1815 nace una nueva generación en Iparralde, a la cual pertenece Juan Martin Hiribarren. El romanticismo pone de relieve la historia, dentro de ella la Edad Media, y el ideal de Hiribarren consiste en proponer a los vascos la historia de su tierra sin olvidar su patrimonio (cantos, proverbios, diccionario). Su obra merecería estudios más profundos.

Palabras clave: belaunaldi, erromantizismo, historia, ondarea.

Une nouvelle génération naît entre 1810 et 1815 à laquelle appartient Juan Martin Hiribarren. La période romantique met en valeur l'histoire, particulièrement celle du Moyen Âge et l'idéal d'Hiribarren est de proposer aux basques l'histoire de leur pays, en n'oubliant pas le patrimoine (chants, proverbes, dictionnaire). Son oeuvre mériterait des recherches approfondies.

Mots clés: belaunaldi, erromantizismo, historia, ondarea.

A new generation emerged in the Continental or Northern Basque Country [administered by France] between 1810 and 1815, and Martin Hiribarren was a member of it. During the Romantic Period, history attached great value to the Middle Ages in particular, and this was something which the period had not enjoyed hitherto. A considerable part of Hiribarren's work deals with the history of the Basque Country, in particular with its heritage (songs, proverbs, lexis). His work deserves to be analysed in detail.


Key Words: Generation, Romantic period, history, heritage.

Duela berrehun urte 1810eko maiatzaren 8an, goizeko hiru orenetan sortu zen Azkaingo Etxeberria etxean haurtxo bat eta agiriak salatzen duen bezala «*Dominicé Hiribarren* aitak emanik bi izen “*Juan-Martin*”», bi izenek bat egiten dutela marratxoari esker. Azpimarratzekoa da Azkaingo Herriko etxean onartzen zituztela holako izenak. Bat, aitarena, euskalduna «*Dominicé*» eta semearena, Espainian ezagutua dena baita ere Euskal Herrian «*Juan*» bere ahoskera bereziarekin: «*Kuan*». Frantses legearen kontra doa Herriko etxea, frantses garbian behar baitira agiriak idatzi Villers-Cotterêts-eko agintzaren ondotik (1539). Ama deitzen da Dominique Saint Martin eta, beraz, haurrari emaiten balin bazikio bi deiturak Hiribarren-Saint Martin izanen dira eta ez Hiribarren-Dutari, Dutari zelakotz amatxiren deitura.

Egia da atxikimendua bazuela amatxiren leinuarentzat, Nafarroako familia handi bat zelakotz oso ezagutua, haren baitan izan baitzen Hirigoyen-Dutari, Iruñeako apezpiku bat. Dutaritarrek bazuten jendakian bertze Nafarroako familia famatu bat bi apaiz ospetsu izan zituela XVI. mendean: lehena Juan Azpilkueta, jesuita, Brasilen egona, hango hizkuntza bat jakinik agertu zituela teologiako eta moraleko liburu batzu, 1575ean zendua; bigarrena ospe handiko apaiza, Martin Azpilkueta, ezagutua XVI. mendean bere izengoitiarekin «*Doctor Navarro*» (1492-1586) legelaria, erakasle Cahors, Okzitaniako Tolosa, Salamanca eta Coimbreko unibertsitateetan, zendua 94 urte zituela. Familia berekoa zen ere Maria, San Frantses Xabierekoaren ama.

XVI. mendeko bi apaizak Juan eta Martin, biak nafarrak, berrikitan sortua den haurra bezala. Asma daiteke bazirela Hiribarren familian Juan eta Martin deitzen zirenak bainan interesgarria da bi izenak bilduak direla marratxoaren bitartez, izen bakar bat eginez Juan-Martin.

Apaiz izaiteko egin zituen estudioak Baionan San Leon ikastetxean eta gero seminario handian. Apeztu zen 1833an, izendatu zuten bikario Urruñan erretoa zuela Leon Goyetche La Fontaine-n alegia batzuen itzultzailea. Urte baten buruko izendatu zuten Bardozen bikario 1839 arte eta geroztik erretoa. Bardozen egon zen 1865 arte ohorezko kalonje titulua lorturik, Baionako presondegiko erremusinari izendaturik. Ez zen luzaz egon, zauri baten ondotik tetanosa lotu baitzizaion eta zendu zen 1866eko azaroaren 26an, 56 urte zituela.



Lein mil huit cent dix, le huit de mois de may
 de onze heures de matin, par devant nous Pierre Chailley
 maire, officier de l'état civil de la commune d'Arrens
 canton de Jean de Sola, département de la Haute
 Gironne, est comparu Dominique Sabarrou, âgé de
 trente ans, Labourier domicilié en la maison
 de Jean-martin d'Estevaux de cette commune; lequel nous a
 déclaré avoir prêté un enfant de sexe masculin, né au sein de
 son ventre, le six de ce mois, à la déclaration de de
 Dominique Amalric son épouse, et auquel il a
 déclaré donner le nom de Jean-martin
 de Sola Sabarrou. Le présent acte de naissance
 a été fait en présence de Jean Jauriquiberry, âgé de vingt quatre
 ans, acte public, domicilié en la maison de Jean-
 polavore, et de Martin de Sola Sabarrou, âgé de trente six
 ans, épouse, domiciliés avec en l'église. Maison de
 Jean-martin d'Estevaux de cette commune; lequel
 nous a déclaré avoir prêté un enfant de sexe masculin, né le
 six de ce mois, à la déclaration de de Dominique
 Amalric son épouse, et auquel il a déclaré donner
 le nom de Jean-martin de Sola Sabarrou. Le présent
 acte de naissance a été fait en présence de Jean-
 polavore, et de Martin de Sola Sabarrou, âgés de
 trente six ans, épouse, domiciliés avec en l'église.

Jauriquiberry
 Notaire

Lein mil huit cent dix, le vingt quatre de mois
 de may, à six heures de soir, par devant nous Pierre
 Chailley maire, officier de l'état civil de la commune
 d'Arrens, canton de Jean de Sola, département de
 Haute Gironne, est comparu Dominique Sabarrou, âgé de
 trente ans, Labourier, domicilié en la maison de
 Jean-martin d'Estevaux de cette commune; lequel nous a
 déclaré avoir prêté un enfant de sexe masculin, né au sein de
 son ventre, le six de ce mois, à la déclaration de de
 Dominique Amalric son épouse, et auquel il a déclaré
 donner le nom de Jean-martin de Sola Sabarrou. Le
 présent acte de naissance a été fait en présence de Jean-
 polavore, et de Martin de Sola Sabarrou, âgés de
 trente six ans, épouse, domiciliés avec en l'église.

on la maison de Jean-martin d'Estevaux de cette commune; lequel
 nous a déclaré avoir prêté un enfant de sexe masculin, né le
 six de ce mois, à la déclaration de de Dominique
 Amalric son épouse, et auquel il a déclaré donner
 le nom de Jean-martin de Sola Sabarrou. Le présent
 acte de naissance a été fait en présence de Jean-
 polavore, et de Martin de Sola Sabarrou, âgés de
 trente six ans, épouse, domiciliés avec en l'église.

Jauriquiberry
 Notaire

Lein mil huit cent dix, le huit de mois de may,
 à quatre heures de matin, par devant nous Pierre
 Chailley maire, officier de l'état civil de la commune
 d'Arrens, canton de Jean de Sola, département de
 Haute Gironne, est comparu Dominique Sabarrou, âgé
 de trente quatre ans, Labourier, domicilié en
 la maison de Jean-martin d'Estevaux de cette commune; lequel
 nous a déclaré avoir prêté un enfant de sexe masculin, né le
 six de ce mois, à la déclaration de de Dominique
 Amalric son épouse, et auquel il a déclaré donner
 le nom de Jean-martin de Sola Sabarrou. Le présent
 acte de naissance a été fait en présence de Jean-
 polavore, et de Martin de Sola Sabarrou, âgés de
 trente six ans, épouse, domiciliés avec en l'église.

Jauriquiberry
 Notaire

Lein mil huit cent dix, le vingt quatre de mois
 de may, à six heures de soir, par devant nous Pierre
 Chailley maire, officier de l'état civil de la commune
 d'Arrens, canton de Jean de Sola, département de
 Haute Gironne, est comparu Dominique Sabarrou, âgé de
 trente ans, Labourier, domicilié en la maison de
 Jean-martin d'Estevaux de cette commune; lequel nous a
 déclaré avoir prêté un enfant de sexe masculin, né au sein de
 son ventre, le six de ce mois, à la déclaration de de
 Dominique Amalric son épouse, et auquel il a déclaré
 donner le nom de Jean-martin de Sola Sabarrou. Le
 présent acte de naissance a été fait en présence de Jean-
 polavore, et de Martin de Sola Sabarrou, âgés de
 trente six ans, épouse, domiciliés avec en l'église.



Ezagutu du, beraz 1810etik 1866 arte Frantzian iragan diren kargu al-daketak: I. Inperioa, Luis XVIII. eta Xarles X. erreinuak, 1830eko iraultza, Luis-Filipe-ren erreinua bukatzen dela II. Errepublikarekin eta azkenik II. Inperioa Napoleon III.a.

Euskal kultura kontutan hartuz, ohar gaitezke 1810etik eta 1815 arte sortzen dela Iparraldean belaunaldi berri bat: Hiribarren bera Azkainen, Jean-Pierre Duvoisin kapitaina, Bonaparte printzearen lekuko eta laguntzailea, Agosti Chaho zuberotar idazle eta kasetaria, Hiribarren-en adiskidea, Anton Abbadia gramatika baten idazlea Chaho-rekin (1836) bainan bereziki Lore Jokoen sortzailea, euskal letretako «mezenas» handia.

Bertzalde aipatzekoak dira Archu zuberotarra Francisque-Michel-en laguntzailea, Bonaparte printzea bera euskal dialektologiaren sortzailea, Joanes Oxalde bidarraitar bertsolari famatua Iparraldean, Jean-Baptiste Camoussarry, Ziburun sortua 1815ean, egiazko erromantiko olerkaria, gazterik zendua 1842an, 27 urte bakarrik zituela, Manuel Inchauspe zuberotarra, Duvoisin bezala Bonaparte printzearen lankidea, luzaz Baionako apezpikua-ren bikario nagusi egonen dena.

Nehork ez dezake uka belaunaldi horren garrantzia, bederatzi gizon horien emaitza euskal letren eta kulturaren alde, batetik idazle gisa Hiribarren eta Camoussarry bereziki, hizkuntzalari gisa bertzetik Bonaparte printzea bere lankideekin Duvoisin eta Inchauspe, Anton Abbadiaren uzta nasaia Lore Jokoak sortuz. Zinez, belaunaldi horren emaitza paregabekoa da euskal literatura eta ikerkuntzaren bultzatzaile gisa. Bihurgune batean gaude berpizte baten aitzinean XIX. mendeak erakusten baitu bertze itxura bat, bereziki elgarretaratz bertsolariak eta kantu egileak lekuko dugula Jan Battit Otxalde bertsolaritzaren zerbitzari ohoratua Iparraldean eta kantu egilea ere Lore Jokoetako makila eta urrezko ontza lorturik.

Bederatzi gizon, haien artean hiru apaiz eta sei laiko, horrek adierazten duela, nahiz apaizek segitzen duten euskal letretan, gero eta laiko gehiagok parte hartzen dutela aldaketa horretan, bere segida ukanez XX. eta XXI. mendeetan.

Erromantizismoaren haizeak jotzen du XIX. mendeko lehen partea Frantzian. Aurre erromantizismoa hasi zen jadanik XVIII. mendean, bereziki

Jean-Jacques Rousseau idazlearekin eta XIX. mendearen hasieran Chateaubriand-ek bere eleberrieri esker idekitzen du ildoak. Hasiz 1820an, belaunaldi distirant batek eskaintzen ditu sortzen dituen obra ederrak. Lamartine lehenik, Hugo, Vigny, Musset dira Frantziar erromantizismoaren argiak.

XVIII. mendearen ondotik, argien mendearen ondotik, XIX.ak abantaila ematen dio sendimenduari, hain luzaz errege izana den arrazoinaren kontra. Olerkariak amodioaren gora beherak goraiatzeko dituzte, baita ere irudimena, ametsa, bertze mundu batean bizi balire bezala. Egiazko iraultza da, hasia Ingalaterran eta Alemanian, bere eragina hedatuko duelarik Frantziar eta geroxago Italian eta Espainian.

Haize berri horrek jotzen du ere Iparraldea, hain zuzen Jean-Baptiste Camoussarry olerkaria gazterik hilen dena 27 urtetan (1815-1842). Erran dezakegu Camoussarry-ren olerkietan nagusitzen dela «erromantizismo beltza», eritasuna eta heriotza direlarik gai aipatuena. Bertze erromantiko batek kantatuko ditu bihotz minak eta herrak, bakartasuna ere «*orox arnegatürik nahi nüxü partitü*», idazten duelarik eta ere bere amaren kontra:

«amak idor bihotza bai eta titia»

lekuko direla lau kantu ezagutuak «Mündian malerüsik» (1827), «Bi berret dolorusik» (1831), «Bizitziaren khantoria» (1834) eta «Ahaide delezius huntan» (1849). Etxahun-Barkoxe (1786-1862) zuberotarrak ez zakien zer zen erromantizismoa, bainan «huntü» ditu bere kantuak, frantses erromantiko olerkariaren garai berean XIX. mendearen lehen hamarkadetan.

Erromantizismoak bere ingurumena badauka, gehienetan olerkariak hautatzen dutela beren sendimenduekin adosten dituzten bazterrak. Maite dituzte mendi eta oihanak, bainan ere heriotza aipatzerakoan etxe edo palazio edo gaztelu suntsituak. Iraganari buruz gidatzen gaitu olerkariak jakinki garai hartan goraiatzeko dela Erdi Aroa eta bereziki arte gotikoa, adibidez *Notre Dame de Paris* Victor Hugo-ren eleberririk historikoa.

Egia erran, historia izanen da gai berria XIX. mendean, beti garai berean beren lanak agertuko baitituzte Guizot, Quinet eta Michelet historiagileek. Literaturaren aldetik Oxford-eko unibertsitatean agertzen da 1832an «La Chanson de Roland» eskuizkribu famatua, Erdi Aroko kantu epikoa.

Historiak duen arrakastaz ohartuko zen Juan-Martin Hiribarren, ez baita dudarik duen jakituriarekin eta Augustin Chaho Parisen bizi izan den zuberotar idazlearen adiskidetasunari esker segitzen zituela orduko ideien aldakuntzak. Orduan, ikusirik historiaren hutsa Euskal Herrian, deliberatu zuen beharrezkoa zela Euskal Herriaren historia idaztea eta Euskaldunak gogoan hartzekotan, kantuen bitartez behar zuela idatzi. *Eskaldunac* deitzen da 1853ko abenduan agertu zuen obra, Baionako Foré et Lasserre moldiztegiaren. Azpi tituluak dio: «*Iberia, Cantabria, Eskal-Herriac, Eskal Herri bakhotchacha eta hari darraicona*». Hauxe dio Mitxelena-k obra horretaz: «*El poema «Eskaldunac» (1853) de unos 5000 versos en honor de los vascos y de su país, pero sobre todo de la región natal del autor el Labort. No es una pieza épica, y mucho menos una epopeya, sino una relación amena y familiar de cosas y personas, llena de detalles y de datos interesantes.*» (*Historia de la literatura vasca*, 130. or.). Mitxelena-ren iritzi zorrotzak erakusten du zer diren olerkiaren mugak. Ez da olerki epikoa, are gutiago epopeia. «*La Chanson de Roland*» edo «*El Cantar del mío Cid*» idurikoa. Halere obra interesgarria da azaltzen baitu zer diren eta nola bizi diren Lapurdiko herriak bereziki. Argiki erakusten du Hiribarren-ek nola ikusten zuen bere eginbidea lehenbiziko orrialdean idazten duelarik: «*Adhoereat lingua mihia fancibus meis, si non meminero tui!*

*Ahantztean herria
Ihar bekit mihia»*

Halaber, olerkiaren hasieran «*Eskaldunei bi hitz hastean*» argitzen du zer den helburua:

*«Eskaldun gucia da egun gonbidatzen
Has dadin izpirituz cerbeiten moldatzen,
Yakin dezaten arren gure ondoceoc
Nolaco gaiac zuzten hekin arbasoec.»*

bukatzen duelarik azken bi neurtitzekin:

*«Dugun canta herria, lana, berthutea;
Goratic nic eguinen egundic hastea.»*


Erran dezaket bide urratzaile izana dela J.M. Hiribarren, zeren mende bat geroago holako olerki zabal bat publikatu zuen Orixe-k titulu berarekin *Euskaldunak* (1950).

Alabainan, bada Orixe-ren gogoan Hiribarren-ek zaukana, atzoko Euskal Herriaren aipatzea edo, hobeki erran, goraiatzea. Orixe, aldiz, bertze zerbaiten bila doa. Aitzol-ek asmatzen zuen bezala, beharrezko zirudien «saga» handi baten sortzea, euskal «saga», olerki luze baten bitartez (baserritar epopeia deitzen du Orpustan-ek) zer zen eta zer den Euskal Herria erakutsiz, hain zuzen abertzaletasunaren sustatzeko idatzia, 15 urtez publikatu gabe egona gerlaren gatik, bukatua baitzen jadanik 1935ean. Bi garai, bainan gisa batez helburu bera.

Orokorki jokatu da Hiribarren *Eskaldunak* deritzan olerkiarekin. Utzi du publikatu gabe antzerki iduriko obra bat Baionako Euskal Erakustokian dagoena eta Xipri Arbelbide-k agertarazi duena duela 20 bat urte, 1991ean hain zuzen. Antzerki berezi hori deitzen da *891ean eskaldunen gerla*. Erdi Aroko lehen garaia aipatzen du Hiribarren-ek, bainan holako nahas-mahas bat egiten du ipuinetik hurbilago dena historia baino. Mauruen eta giristinoen arteko gerla, Nafarroako erresumaren erregeak sartuz gudukan hala nola Santxo Abarka, baita ere zaldun gerlari ezagutuak Euskal Herrian: Etxauz, Sala, Beltzuntze, Urtubia gerlariak, Albret eta Ori gortesanoak. Zer ziren gerlari eta gortesano horiek IX. mendean? Noiz sortu zen haien leinua? Bertzalde, dakigularik Santxo Abarka Nafarroako errege izana dela 970 eta 994. artean argi dago egiazko historiatik urrun gaudela. Erdi Aroan gazteluz gaztelu zabiltzan «troubadours» delakoak bezala historioak kondatuz edo kantatuz, holako zerbait nahi du egin Hiribarren-ek, antzerkiaren hastapean diolarik:

«Bildu zarete hunat Eskaldun maiteac,
Utziz zenbeit egunen lan eta trasteac,
Aitzeco arbasoen zenbeit balentria,
Ohoratzen dutenac handizki herria.»

Historiari dagokionez, historia hurbilak ere badu balioa eta ez da baztertzekoa, bereziki XIX. mendeak bere begien aitzinean daukalarik Napoleon I.-ren itxura. Egia erran, Napoleon-en oroitzapena bizi da Frantzia guzian, Iparraldean ere. Sartzen da pastoraletako gaietan jakinik Biarnon hiru pastoral emanak izan direla, 1840an *Bonaparte I^{ère} campagne d'Italie*, 1857an *Bonaparte II^{ème} campagne d'Italie* eta 1866an *Les trois empereurs: campagne d'Austerlitz*. Zuberotarrek ere badute berea *Napoléon empereur* edo eskuizkri-



bu batek dion bezala *La tragédie de Napoléon*. Georges Hérelle, pastoral historiagileari esker badakigu emana izana zela lehen aldikotz 1849an Donapaleun, hain zuzen Napoleon-en iloba Frantses Errepublikako presidente zelarik, nahiz 1836an Jean-Pierre Saffores pastoral errejentak idatzia zuen.

Hiribarren-ek, sortua lehen inperio garaian eta bizi Napoleon III. enperadore zelarik Frantziar, nahi ukan du aztertu historia hurbil hori utziz publikatu ez dituen obretan I. inperioaren historia bat eta «Napoleon lehena» deitzen den olerkia, Bonaparte printzearen paperetan dagoena Bizkaiko diputazioaren liburutegian.

Historia hurbilean sartzen da ere mugaz harandian, Azkaindik ez hain urrun, lehen karlistada (1833-1839). Ez dezagun ahanztz urte berean apeztu dela eta Urruñan dela bikario, mugaz ez hain urrun han ere. Ez da dudarik Iparraldea zain dagoela segituz gerla zibilaren gora beherak, erakutsiz denbora berean don Carlos-en alde dela. Adibidez, 1836an Hiribarren-en adiskide den Chaho-k agertzen duela *Paris en Navarre pendant*

l'insurrection des Basques (1830-1835) erakusten duela zein miresten duen Zumalakarregi jenerala, honen argazki bat agertuz liburuan.

Zumalakarregi-ren heriotzeak 1935ean emendatzen du jadanik zuen fama Hiribarren-ek hedatuko duena idazten duen olerkian. Geroxago Larresoroko seminarioan dauden bi gazte Jean-Baptiste Elissamburu eta Gratien Adema elgarretaratuko dira Zumalakarregi-ri eskaintzeko idatzi duten olerkia. Jean-Baptiste Camoussary-ren olerkietan badago bat, hau ere Zumalakarregi-ren balentriak kondatzen eta goraki laudatzen dituenak. Argi dago lehen karlistadak ukan duela oihartzuna Iparraldean.

Ez du bakarrik lehengo historia eta historia hurbila maitatzen Hiribarren-ek, oraingotasunaz ere kezkatzen da, kezagarria delakotz Iparraldeko jendeentzat. Alabainan, 30eko hamarkadan hasirik Iparraldeak bizi du, ordu arte ezagutu ez zuena: Hego Ameriketara eta bereziki Uruguaira joaiten diren mutiko gazteak. Egia da jendez emendatu dela XVIII. mendean, haur batek, gizon ala emazte, haur zaharrena gehienetan, hartzen duela etxaldearen segida. Bertze haurrak egoiten dira etxaldean laguntzaile gisa edo ezkontzen dira bertze etxalde batetara. Beraz 30eko hamarkadan erantzuten diote Hego Ameriketarik jinekako galdeari. Hanitzentzat Iparraldea husten ari da. Horretaz kezkatua da ere kontseilu orokorra eta aldi bat baino gehiagotan galdegiten dio frantses gobernuari zerbait egin dezan emigrazioaren baratzeko. *Le Messager de Bayonne* kasetan, 1853ko maiatzean Hiribarren apezak publikatzen ditu bertsu nasaiak bilduko dituelarik gero 43 orrialdetako liburuxka batean: titulua *Montebideoco berriac*.

Hain zuzen urte berean, Antoine d'Abbadie-k sortzen dituelarik «Lore jokoak», epai mahaikoek deliberatzen dute gaia izanen dela, hala agertzen baita orduko kasetetan: «Les regrets d'un Basque en partance pour Montevideo». Zer gertatuko da holako Lore jokoetan jakinik agertuak direla Hiribarren-en bertsoak? Harriet, seminario haundiko erakaslea gaiaren ez aldatzekotan dago, galdegina baitzaie 50 neurtitzeko kantu bat, jendeek gogoan atxikitzekoa izanen dena. Hala erabakitzen da eta 37 kantu beharko direlarik aztertu banatzen dira epai mahaikideen artean, horiek direla Ducos, Leremboure, Larralde, Lissardy, Dassance, Goyetche et hain zuzen Hi-

ribarren, dudarik gabe Bardozeko erretora eta pentsa daiteke *Montebideoko berriak* publikatu duelakotz ahortzi gabe Harriet bera.

Jakinak dira orduko eztabaidak Celhabe Bardoztarra hautatu zutelakotz, mihi gaixtoek erraiten zutela, aurkeztu zuen kantua ez zuela berak idatzia, Hiribarren-ena zela ordea. Hasiz 1855ean, Lore jokoetan parte hartzen du Hiribarren-ek baliatuz izengoitiak, hala nola Laurent Daguerre, Léon Dajas, Gaztainalde, Heuty, Lapheire, Menditarrak, Salataria, nahiz igortzen dituen kantuak bere izen deiturekin ere.

Ondarea da ere XIX. mendeko kezka. Alabainan, badu zer ikusirik erromantizismoarekin, bereziki historiarekin eta, nahiz hitza ez den oraindik erabilia: etnografia. Historia kontutan hartuz, lehengo bizitzeko manerez arduratzen dira, bai ikerleak, baita ere elaberri idazleak. Frantsesez deitzen den «roman de mœurs», gaztelaniaz deitzen den «costumbrismo» salatzen dute orduko kezka elaberri historikoaren sahetsean. Ez da holakorik gertatzen Euskal Herrian elaberria ez baita sortua oraindik, baina badakite ahozko literatura, erran zaharrak, atsotitzak sartzen direla euskal ondarean. Kantu zaharren biltzea izanen da XIX. mendeko lana. Oroit gaiten halere hasia zela XVIII. mendearen azken urteetan, 1798an hain zuzen Baionako euskal erakustokian zagoen eskuizkribu batekin, berrikitan Patri Urkizu-k publikatu duena: *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma* (1798) tituluarekin. Chaho da XIX. mendeko lehen kantu biltzalea, bilduma luzaz argitaratu gabe egona salbu bospasei kantu, *Ariel* sortu zuen aldizkarian agertuak. Pentsa daiteke Chaho-ren adiskidea zen Hiribarren apezak eskaini zizkiola zenbait kantu. Denbora berean Duvoisin kapitainak biltzen zituen kantuak. Hamar bat kahier gordeak daude Baionako euskal erakustokiko bibliotekan bainan publikatu gabeak dira.

1857an Francisque-Michel Bordeleko Unibertsitateko katedradunak kaleratzen du Euskal Herriari buruz eginiko liburua: *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses mœurs, sa littérature et sa musique*. Liburu horretan XI. kapituluak eskaintzen ditu euskal kantuak (Poésie populaire des Basques) sailkatuak, orotara 225 orrialdetako estudioa, lehen aldikotz, dakidanez publikatua dela kantu bilduma. Horiek dira Iparraldean egin den bilketaren uzta Hiribarren bizi zeno. Ez ditu ezagutu geroxago agertu direnak, de la Villehélio anderearena eta J.D.J. Sallaberry-rena.

Bertze bilketa bat ere egin da XIX. mendearen lehen partean: atsotitzena, atsotitzak sartzen direlakotz edozein kulturaren ondarean. Aspaldian hasia zen atsotitzen bilketa Euskal Herrian, XVI. mendekoak direlarik lehenak, Garibay-enak eta *Refranes y sentencias comunes en Bascuence declaradas en Romance* bildumarekin. Segitzen da XVII. mendean, bereziki Iparraldean, Zalgize, Voltoire, Bela eta Oihenart-ekin. XVIII. mendekoak dira Larramendi-k argitaratuak eta Jusef Egiategi-k bilduak bainan sekulan agertu ez direnak. Biltzaile zerrenda horretan sartu behar da Hiribarren, nahiz bildu dituen atsotitzak ez direlarik publikatuak izan.

Ondarean sartzen da ere, dudarik gabe, hizkuntza, euskara euskaldunen-tzat. Horretaz ohartuak dira euskaldunak, hiztegiak eta gramatikak landuz. Larramendi agertzen da XVIII. mendean lankide porrokatua, espainiar intelektual batzuekin dituen eztabaida famatuekin eta euskararen alde kale-ratu dituen liburuekin nahiz gazteleraz idatzi dituen. Haien artean *El imposible vencido. Arte de la Lengua Bascongada*, Salamankan publikatua 1729an, lehen gramatika argitaratua eta, *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence, Latin*, bi liburukitan agertua Donostian, 1745ean. Bi obra horiekin erran dezakegu euskara jalgitzen dela mundura.

Hain zuzen, Humbolt-en Euskal Herriko egonaldiekin, bultzatuak izanen dira hizkuntzari buruzko ikerketak. Iparraldean, XIX. mendearen hastape-nean aipatzekoak dira Lécluse *Dissertation sur la langue basque*, Toulouse, 1826 eta urte berekoa *Grammaire basque* argitaratu Okzitaniako Tolosan eta Baionan, Darrigol, Baionako apezgaietxeko nagusia 1827an argitaratzen duelarik *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque*, Chaho eta d'Abbadie beren *Etudes grammaticales sur la langue euskarienne*, Paris, 1836an, Hiriart, maître de pension à Ustaritz *Introduction à la langue française et à la langue basque*, Baionan 1840an eta Archu eskolen inspetura *Uskara eta Franzex Gramatika uskalherrietaco haurrentzat eguina*, Baionan 1852an, bi azken horiek, erakasle gisa agertzen dituztela eskolan balia zitezkeen li-buruak. Hiribarren-ek eskaintzen du berea Hiztegi bat eginez, bai eta Gra-matika bat, biak argitaratu gabeak.

Azkenik, apaiza izanez, publikatu du *Escarax eguia...* Baionan, 1858an. Lafitte-k preziatzen zuen obra hori ikusten zuelakotz bazela erlisioneen his-

toria bat aipatzen zituela Hiribarren-ek Brahma, Vichnu, Budda, Confucius eta bertze... Sendi daiteke Hiribarren-en idekidura, hala nola Chaho-reki-lako adiskidetasuna ez baita usu holako ibilkerarik XIX. mendeko apaizetan. Badakigu ere, Dasconaguerre-k erranik eta Aita Lhande-k egiaztaturik, bazituela idatziak Ama Birjinaren bizia eta Bardozen eman zituen predikuak, betetzen zuela osoki apaiz baten eginbideak.

Berrogeita hamasei urte zituen Juan Martin Hiribarren apaizak zendu zelarik. Bizi labur honetan ez da alferrik egon. Orokorki hartuz, idatzi lehenik eta argitaratu dituen obrak gero, idazle nasaia izana da, zinez bere mendekoa.

Erromantizismotik hartu du historiaren zaletasuna, erakutsiz zein atxikia zitzaion Euskal Herriari, nahiz denbora berean euskaldun haurrek jakin zezaten zer izan zen Euskal Herriaren historia eskolak ez baitzioten holakorik erakasten. Bere mendeko historia ez du batere baztertu, eta gehiago dena Lore jokoetan parte hartuz euskal literaturaren garapena zerbitzatu du.

Euskal ondarearen kezka zaukan gogoan orduko bertze ikerle batzuk bezala eta euskal kulturak hartu duen bultzada XIX. mendeko lankideen artean bere toki berezia badaukala nehork ez dezake uka. Agian, egun batez, tesi batek erakutsiko du zer eragin ukan duen euskal literatura eta kulturaren garapenean.

Bibliografia

ARBELBIDE, X., «Drame, 891an euskaldun gerla», *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1991, 485-505.

HARITSCHELHAR, J., *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etxahun*, Euskaltzaindia, Bilbao, 1970.

HÉRELLE, G., *Le répertoire du théâtre tragique, Catalogue analytique*, Le Courier, Bayonne, 1928.

LHANDE, P., «L'abbé Martin Hiribarren et son dictionnaire basque», *Gure Herria* 9, 1925, 489-503.

———, «Introduction», *Dictionnaire basque-français*, Beauchesne, Paris, 1926, IX-XXVII.

MICHELENA, L., *Historia de la literatura vasca*, Minotauro, Madrid, 1960.

ORPUSTAN, J. B., *Précis d'histoire littéraire basque*, Izpegi, Baigorri, 1996.

URKIZU, P., *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma*, Durangoko udala, 1987.

———, *Historia de la literatura vasca*, UNED, Madrid, 2000.

VILLASANTE, L., *Historia de la literatura vasca*, Sendo, Bilbao, 1961.

ZALBIDE, M., «Iparraldeko euskalgintza XIX. mendearen bigarren erdian: Zaldubi eta bere garaia», *Euskera* 3, 2007, 877-1008.

Xuriak eta gorriak. Azkainen eta Bardozen

ARBELBIDE MENDIBURU, Xipri
Euskaltzain urgazlea eta apaiza

Sarrera data: 2011-II-11

Onartze data: 2011-VII-11

Martin Hiribarrenek Bardozen pasatu du bere biziaren parterik handiena. Herri horretan ongi ikusi da mende batez zer izan diren Eliza eta herriaren arteko gorabeherak Errepublikari doakionaz. Hiribarren Azkaindarra izanez, hango berri ere badugu, Azkainen eta Bardozen egon den Salvat Monho apez bertsolariari esker.

Iraultza garaian apezak alde agertu baziren lehen batean, Frantziatik kanpo botaiak izan ziren. 2º errepublikarekin apez eta estadok bat egin zuten errepublikaren alde, hasieran berderen. 3º errepublikarekin dira bat bestearen kontra emanen. Bat ala bestea fondamentalistak izan direlaketz

Hitz gakoak: Salvat Monho, Martin Hiribarren, Xaho, Errepublika, Eliza.

Martin Hiribarren pasó en Bardoze la mayor parte de su vida. En este pueblo se pudieron observar, claramente, las disputas entre el pueblo y la Iglesia en torno a la República durante todo un siglo. Siendo Hiribarren de Azkaine, también tenemos noticia de lo que ocurrió en aquella localidad a través del cura y bersolari Salvat Monho.

A pesar de que los curas se posicionaron a favor de la revolución, fueron expulsados de Francia. Con la Segunda República los curas y los estados se posicionaron, en un principio, a favor de ella. Con la Tercera República empiezan las divergencias entre ellos, debido a que los dos derivan hacia el fundamentalismo.

Palabras clave: Salvat Monho, Martin Hiribarren, Xaho, República, Iglesia.

Martin Hiribarren passa la majeure partie de sa vie à Bardos. Dans ce village on put clairement observer pendant tout un siècle les querelles entre le peuple et l'Eglise à propos de la République. Hiribarren étant d'Ascain, nous savons aussi ce qui se passa dans ce village grâce au curé et bertsolari Salvat Monho.

Bien que les curés se soient montrés favorables à la Révolution ils furent expulsés de France. Avec la Seconde République les curés et les états se déclarèrent d'abord favorables à la République. C'est au moment de la Troisième République que commencèrent les divergences lorsqu'ils s'orientèrent chacun de leur côté vers le fondamentalisme.

Mots-clés: Salvat Monho, Martin Hiribarren, Xaho, République, Eglise.

Martin Hiribarren spent most of his life in Bardoze. The century-long ups and downs between the Church and the people with respect to the French Republic clearly emerged in that village. As Hiribarren hailed from Azkain, we also have news from that quarter, thanks to the priest and extempore Basque verse maker Salvat Monho who was in Azkain and Bardoze.

At the time of the Revolution even though the priests were initially in favour, they were thrown out of France. When the Second French Republic arrived, the priests and the State supported the Republic, initially at least. With the Third Republic they were to fight against each other. The fact was they were both fundamentalists.

Key Words: Salvat Monho, Martin Hiribarren, Xaho, the Republic, the Church.

Aurten ohoratzen dugu bere biziaren erdia Bardozen erreter egon den Martin Hiribarren Azkaindarra. Izan da beste loturarik ere Azkain eta Bardozen artean: gehienek ezagutzen duzuen Salvat Monho bikario egon da bi herrietan eta bien berri utzi dauku bertsutan. Bardoz aipatuko dugu 18. mende ondarretik, 20. mende hastapenerat, apez eta auzapezek izan dituzten gorabeheren karietera, xuri eta gorrien arteko kataskak estakuru.

Salvat Monho

Salvat Monhoren bertsuak publikatuak ditu Pierre Lafittek eta zenbait komentatuak JB Orpustanek¹. Izturitzen sortua 1749an, 1774an apeztua, Azkainerat izendatu zuten bikario, gero Uztaritzerat kargu berarekin, 1778tik 1780rat, Azkainen dagoela berriz 1786an. Bardozen da Iraultza has-tapenean.

Bertsuak idatzi dizkie Azkaingo menetei Iraultzako lehen hilabeteetan, hain segur norbaitek apezzen kontra idatzi beste zenbaiti errepostuz:

*Hiru gizon sakratu
Ahal tuzte koplatu
Zenbait meneta² ausartek
Edo debot hipokritek³*

Azkainen baziren Iraultzako mundu berria batere onartzen ez zutenak, bereziki herriko arduradunetan. Monhok lege hoiei umilki obeditzea gomendatzen zuen. Hona jadanik xuri eta gorriak, bainan apezak gorrietan.

*Orai lege berriak
egin dire guziak
Hek ongi istudiatuz
Hei umilki obedituz*

¹ «Un poète basque au temps de la Révolution: Salvat Monho (1749-1821)», In 1789 et les Basques, Presses Universitaires de Bordeaux 1991, 239-255. or.

² Meneta = Bigotte, chinche.

³ Pierre Lafitte, Poèmes basques de Salvat Monho, Bayonne, Ikas 1972, 52. or.

*Bat bederak behardu
Bere ona bilatu.*⁴

Lege berriak esplikatatu nahi izan zituen Monhok:

*Azkain nahiz argitu
Monho zaiio mintzatu*⁵

Azkaingo arduradunak ez ziren beraz ideia horietakoak:

*Zorigaitz herri huni
Zeren aintzin gidari
Itsu gidari, itsuak
Izan diren hautatuak*

Nahiz ez ziren denak kontrakoak ere:

*Gizon zuhurrak ere
Herri huntan badire
Batzuen tontokeriaz
Eta bertzen ausartziaz
Arras ahalkatuak
Eta estonatuak.*⁶

Azkaindik Urruña ere ezagutu zuen, bai eta Martin Teillary⁷ apeza, Urtubiako jaunak hango erretor izendatua, erretoren izendatzea ez baitzen beti apezpikuaren esku. Batere ez zuen bere ardiekin bat egiten delako artzainak. Sobera bortitza zen. Eta kontseilua ematen dio Monhok:

*...Bai uliak ez tirat
Lasterrago biltzen dire ezenez minagrerat.*⁸

⁴ Pierre Lafitte, 52. or.

⁵ Pierre Lafitte, 54. or.

⁶ Pierre Lafitte, 54. or.

⁷ Martin Teillary, Donibane Lohizunen sortua 1743an, Arbonan hila 1812an. Akizen apeztua 1770an, Urruñaiko erretor 1786an. Ez zuen Konstituzioari zin egin 1792an. Gordeka egin zuen apez lana, salatua izan zen, preso emana, baina ihes egin zuen Irunerat. (Haristoy, *Les paroisses du Pays Basque* II tomoa, Vignancour, Pau, 1899. 22-23. or.).

⁸ Pierre Lafitte, 48. or.

Monho Iraultzaren aldekoa zela erran dugu. Hori hobeki agertzen da *Garat gaztenaren eta Iturbiderentzat*, bai eta *Ihardestea* bertsuetan. Lehenak hauteskunde kanpañaren karietara idatzi zituen, Lapurdiko Biltzarkideak gomitatuz Garat eta Iturbideren alde bozkatzerat, deputatu bezala. Ez zen gehiago Uztaritzen baina hango berri bazekien han egona zenaz geroz bikario.

*Garat eta Ithurbide parti bitez gorterat
Eskualdun guzien partez Luisi erraiterat
Gure nahiaren pare balitz gure ahala
Laster bere deskantsuaz goza litekeiela.*⁹

1789an, apirileko 19 eta 24 artean izan ziren bozkak. Iturbide ez zen pasatu. Ondorioz Monhok idatzi zituen *Ihardestea* deitu bertsuak *mea culpa* eginez.

*Koplari aprendiz batek gogoan pasatu badu
Bertsu hotz batzuen bidez Lapurdi gobernatu
Sinets beza frogaturik, enganioan zela.*¹⁰

Bardozen

Bardozen dugu Monho gutienez 1790ko buruilean, bataio bat egin baitu hilabete horretan. Martin Delizalde¹¹ Uztariztarra du erretor eta Mentaberri bikario lagun. Delizalde horrek zuen idatzi, beste hiru apezekin, apezpikuak eskaturik, Lapurdiko apezan arrangura kaierra (cahier de doléances). Akizek, Estado Jeneraletara igorri zuen diputatu.

Arte horretan gauzak aldatu ziren Parisen. Azkainen Iraultzaren kontrakoak baldin bazituen partida Monhok, Bardozen, aldekoekin zen makur-

⁹ Pierre Lafitte, 56. or.

¹⁰ Pierre Lafitte, 58. or.

¹¹ Martin Delizalde, Uztaritzen sortua, teologan dotore eta apez Tolosan, Bardozen 1771an. Pre-so emana izan dondoan libratu zuten eta Oiharatzunera joan zen eta han hiletzeko P. Lafitte, 11-12. or. Eta Haristoy, I t. 204-205. or.

tuko. Parisek Konzituzioari zin egitea eskatu zien apezzei. 1791ko otsailean zin egiteko deitu zituztelarik hiru apezak herriko etxerat, Delizalde eta Monhok ez zuten egin, Mentaberrik aldiz bai. Bordaletik etorri «Tiso» izen goitia zeukan, Jean Etxezahar Bardoztar fraide ohi batek ere (chartreux ordenakoa iduriz) zin egina zuen Bordalen hain segur. Iraultzaleen kluba sortu zuten Bardozen, 2 apez hauek buru. Hona *Bardozen glub* egiten duten 9 bertsoetarik bat:

*Herri huntan
Balinbada gizon galantik
Herri huntan
Ez ahal dire glub hortan!
Hor sartu direnek segurik
Ez dute halako famarik
Herri huntan¹²*

Lau apezak herri berean bizi izan ziren zerbait gisetarat, Sanadon, iraultzaleek izendatu apezpikuak, Mentaberri erretor eman arte 1791ko hazaroan. Monhok lekuak hustu behar izan zituen azkenean Delizaldekin, hegoalderat ihesi beste ainitz bezala.

Egun gogorak bizi izan zituzten Bardozen zenbait hilabetez zin egile eta zingabeek. Iraultzale izatetik Iraultzaren kontrako bilakatu zen Monho. Mentaberri erretor ofizialak elizatik bota zituen zin egin ez zuten biak. Herri gizonak, Gabriel Detxart auzapeza buru, ez zuten onartu erretor berria. Azkenean armadaren laguntzarekin sartu zen bere kargutan Mentaberri. Eliza ondoko Sala jauregian ematen zuten meza beste biek, Herri gizonak erabakirik «libertatearen izenean» bakotxa nahi zuenera joan zitekeela. Jau-regiak zuen arrakastarik handiena. Mentaberrik ere bazuen bere artaldeñoa, andere serora barne.

*Graziote, oi Graziote
Bardoško andere serora
Errotu zarela diote
Alde bateko aldera.*

¹² Pierre Lafitte, 30. or.

*Eskandala izigarria
Saindutzat du Mentaberri
Enganatu nahiz herria
Andere serorak ezarri¹³*

Mentaberryk plenta edo kerella bat pausatu zuen. Uztaritzeko nagusiek beren kargutik kendu zituzten Bardozenko apez zingabeak eta meza debekatu jauregian. *Mentaberriren posesionetan sartzearen okasionean* bertsuak idatzi zituen orduan Munhok.

*Gure eliza hartu
eta handik kasatu
Gaitu Mentaberririk
Etsaiek zitadela¹⁴
Hartzen duten bezala
Tropak ezarririk
Alde orotarik*

*Otoitzeko etxea
Ohoinen geriza
Orai da bilatu
Pontifo legezkoak
Artzain egiazkoak
Dituzte etxatu
Ardiak hastandu.¹⁵*

Gertakariak orokorki aipatzen dituzten bi bertsu andana baditugu. Erromako burulehenak zinegitea debekatu zuelarik, ttantto onak eskutan, idatzi zituen 14 bertsu: *Erromako Gortetik*.

*Jaun horren arabera
Aita Saindua bera
Bere kadiratik
Mintzo denean ere
Ezin sinets daiteke*

¹³ Pierre Lafitte, 36. or.

¹⁴ Pierre Lafitte, 30. or.

¹⁵ Pierre Lafitte 30. or. – Hastandu = urrundu.

*Ez badu manurik
Erregeren ganik*¹⁶

Gertakari guzietaz egin gogoetak daizkigu ematen *Eskandala izigarria* hain segur berantago idatzi azken kantuan. Hau da gogorrena eta luzeena (33 bertsu). Hona bi koplak:

*Ministro zaharren doktrinaz
Ez baitziren hauk gustatzen
Mentaberriren katiximaz
Dire gozoki bazkatzen
Eskandala izigarria
Katixima ahantzirik
Glubeko doktrina berria
Ikasi du Mentaberrik*¹⁷

*(...) Eskandala izigarria
Tiso dute predikari
Bardozeke Luther berria
Eta ez aditu nahi.*¹⁸

Terrorearekin, elizak hetsi zituzten eta apez zin egileek ere ez zuten toki-rik izan gehiago. Mentaberrik apezgoa utzi zuen 1794an. Euskal Herrian, erlisione berriko, «Arrazoinaren tenplo» bilakatu zen bakarretarik izan zen Bardozeke eliza. Temple de la Raison. Mentaberri, herriko greffier izendatu zuten 500 liberako soldatarekin, 2000 zituelarik erretor zelarik. 180 apezetarik 26ek zuten zin egin Baionako diosesan. Frantzian %51bat batek.¹⁹

Bainan hona non zenbait hilabeteren buruan, Robespierre hil eta, gure apez ondoak bere burua aurkesten duen herrikoetxean... erretor izateko. Bi aldiz eza eman zioten. Bardoztarren petizio baten ondorioz onartu zuten azkenean. Iduriz kargutan egon zen, Loison apezpiku berriak 1802an, Martin Duhart Beskoiztarra izendatu arte. Gero ez dugu apezaren berririk.

¹⁶ Pierre Lafitte, 26-28. or.

¹⁷ Pierre Lafitte, 40. or.

¹⁸ Pierre Lafitte 38. or.


¹⁹ P. Haristoy, *Les paroisses du Pays Basque*, 1. tomoa, 1895, Vignancourt, Pau, 193. or.

Bi hitz apezpiku honetaz. Apez zin egilea zen eta lasai egona bere herrian, Verdun aldean, egunik gogorrenetan ere. Oseba jeneral izateari zor omen dio bere apezpiku kargua. Saurine, Baionako apezpiku zinegilea, Estrasburgoko artxapezkutegira izendatua izan zen. Marka guziak hautsi zituen Fech batek. Apezgoa utzia zuelarik, Lyongo artxapezpiku eta Frantziako «primat» izenda arazi zuen Napoleon bere ilobak. Zin egitea onartua ez zuten beste apezpiku batzu baztertuak izan ziren. Apezek zin egitea ezin ontesia zenbait hilabete lehenago, bainan bai geroago Napoleon aita saildu izatea!

Artean, Hegoaldetik sarturik, Ainhoa eta gero Irisarriko erretor izan zen Monho. Herri hau armada espainolak xehatetik beiratu zuen 1813an, Mina jenerala belauniko otoizturik. Bardozerat erretiratu zen 1819an, Karrikagaraian hiltzeko 71 urtetan, 1921an, ekaineko 4an.

Martin Hiribarren

18 urte berantago, 1839an etorri zen Bardozerat Martin Hiribarren Azkaindarra eta 1865 arte egon. 26 urtez, luze baita. Kaseta, irrati eta telebistarik ez zen garai haietan, Iraultzak eta hemen izan ziren bi gerlek, bazuketen oraino aipaldirik supaster xokoetan. Bizkitartean haizea itzulia zen eta 1848an bigarren errepublika sortu zelarik, jaun erretorak zuen egunari zoakion mintzaldia egin Bardozeke elizan bandera errepublikarra benedikatzean, gero, kanpoan, libertutearen zuhaitza egin aintxin. Menturaz bandera gainean emanik. Askotan erretorak zuen mintzaldia egin hala nola Donapaleu, Arberatz eta Domintxinen. Bainan ez Landi-



barren: egun horretan apezak lekuak hustu zituen. Aratsean etxera bildu zelarik, atean jo zuten gazteek, bainan erretorak leihotik ihes egin!

1852an Napoleon III. boterean zelarik irakaskuntzatik bota baitzuten Larraburu Heletako errientea, Xaho, Renaud eta Dendabururen aldekoa zelakotz, honen kanporatzea eskatzen duen gutunean, inspektoreak idazten zuen: *Il trouve un point d'appuis (...) même dans le curé, fort douteux en politique*²⁰. Larralde apezera ere gorria zen beraz.²¹

Hona Hiribarrenen mintzaldiko bi pasarte:

Je suis heureux d'avoir béni votre drapeau. Si une carrière différente ne m'imposait d'autres devoirs, j'irais au besoin avec vous soutenir et augmenter la gloire immortelle de ces trois couleurs. Ce n'est pas invoquer la guerre, la France ne la provoque point mais si on la lui déclare, aucun de ses enfants ne doit la craindre. (...) ²²

1810an sortua eta bazekien armada frantsesak zer egina zuen Azkainen eta Iparraldeko jendeak hain ongi tratatuak zituela non Lhuillier jeneralak afitxa hau hedatu batzuen:

*Les militaires pillent, volent leur linge et leurs effets. Ils les vexent et les maltraitent de toute manière. Les chefs sont souvent témoins de ces excès et ne les répriment pas. Cette conduite qui ne pourrait être tolérée même en pays ennemi, est bien plus répréhensible chez nos compatriotes.*²³

Bera ere ihesi ibilia zen 3 urte zituelarik:

*A trois ans je fuyais vers l'aride Gascogne
Laisant à l'Espagnol la vengeance en besogne*²⁴

²⁰ Prokuradoreak Hezkuntza minitroari igorri gutuna, ADPA 1852.06.28.

²¹ Jean Larralde, Asmen sortua 1802an, apezte eta Donapaleun bikario 1831an. Erretor Aruen 1833an, Domintxinen 1839an, Heletan 1845an, 1863an zendua.

²² *Le Journal du Peuple*, 1848.4.10.

²³ ADPA 1813.

²⁴ LAF 302/025, 12. or.

Bainan segi dezagun Hiribarrenen mintzaldiarekin

Pour les lions de la vieille Cantabre, la liberté, c'était la lyre qui faisait bondir vos pères, la trompette qui, au moindre danger, les faisait courir aux armes. Pendant 40 siècles, du haut des Pyrénées ils bravèrent le victorieux Romain, le sanguinaire Vandale et l'indestructible Arabe. (...) Libertatea zein eder den!»

(...) Qu'il n'y ait plus que des républicains... Que ce mot n'effarouche point vos oreilles: il ne doit plus rappeler les noïades, la guillotine et l'anarchie. Les républicains ce sont les amis du travail, de l'ordre public, de l'équité, de la sobriété, et enfin de la dignité de l'homme.²⁵

Iraultza garaian ez bezala, herrikoetxeak eta apezetxeak, bat egiten zuten beraz bigarren errepublika egunetan. Ohar halere Hiribarren errepublikarra, Napoleontzalea zela ere, «Napoleon lehena» olerkia lekuko. Zeruko xedearen betetzera agertua zen Napoleon.

*Gutitan halakoak dire agerturen
Bethetzera gaitzaten Zeruko xederen.²⁶*

Ondoko bertsoak erakusten dute zergatik zuen horrelako atxikimendua inperadorearentzat.

*Elizari ziotzan xukatu nigarrak,
Idekiz haren athe hetsi ez beharrak
Konstituantaz geroz, bilhuria sailduak,
Nihongo lege tzarrez bethi trabatuak,
Etziren gehiago baizik ametsetan;
Sinhesteak hil hurren hainitz bihotzetan.
Besta lohiak ziren bakharrak egiten;
Arima onek besta, nigarrak zituzten.
Hamar urthe bazuen holako ariak,
Ez dire ahantziren orduko zauriak;
Etzen behar aldare, ez eta apezetik,
Etziren mentan uzten tzarkeriak bezik.²⁷*

²⁵ *Le Journal du Peuple*, 1848.4.10.

²⁶ Klasikoen gordailua, Napoleon lehena.

²⁷ Klasikoen gordailua. Jean Martin Hiribarren, Napoleon, 33. or.

Erraten duen bezala «ez dire ahanzten orduko zauriak» ez eta Napoleoni zor ziotela zauri horien desagertzea. Robespierren ondotik, azkatzale bezala agertu zen Napoleon. Napoleon lehenagoko xuriaren alde beraz Hiribarren eta denbora berean, 2. Errepublikako gorrien alde.

Duvoisin

Duvoisin Bardozen egona da bibliaren itzultzeko, (1859-1864), Hiribarrenen urteetan. Bonaparte printzeak zion dirua ematen eta beraz bonapartista zen. Auzapeza Prefetak izendatua eta bonapartista baizik ez zitekeen izan. Hiribarren berdin! Bere sendimenduak agertzen ditu ondoko bertuetan:

Dugun kanta batean
Biba inperadorea!
Gure begiratzalea!
Biba gure Andrea!
Biba gure printzea!
Biba Frantzia!
*Biba Eskal Herria!*²⁸

Estadoa eta Elizaren arteko harreman onen lekuko: apezetxe berria erai-ki zioten Bardozen Hiribarreni. Eliza berria estrenatu zuten, hura hil ondo, 1870an. Diru publikoarekin eraikitzen ziren elizak, Napoleon-en konkordatua martxan baitzen.

Imitorioak

Napoleon lehenetik, hirugarrena arte, bigarren errepublika barne, eliza eta herriko etxe ongi akomeatu baziren, gauzak aldatuko dira egundainokotan hirugarren errepublikarekin, ez dakigu zer gatik. Pierre Damestoy izanen da auzapez 1881tik 1919 arte. *Negociant* ekarria da herriko paperretan.

²⁸ P. Urkizu, 394. or.

Gorria zen bainan ez ditake erran herriko gehiengoak ez zuela harekin bat egiten 38 urtez egon denaz gain kargu horretan! 1905an kantonadako bozketan, hautagai gorriak izan zuen gehiengoa.

Herria bi parte egin zen berriz ere: gorriak eta xuriak, imitorioetan ikusiko den bezala.

Hastetik agertu zena gorri Damestoy? Xantre izana zen, beherago ikusiko duzuen bezala. Ezkila berria egin zutelarik honen izena grabatu zuten gainean. Menturaz automatikoki egiten zen auzapezarena.

Uztaritzeko serorek 1854an sortu herriko eskola (3 klasekin: 2 euskaraz, eta bat frantsesez) 1884an utzi zuten. Seroren eskuetarik laikoenetara pasatuko den lehenetarik. Seroren erabakiz ala auzapezaren erabakiz? Kontseiluko biltzar batetan errana da, serorek ziotela gutun bat igorri johan zirela jakin arazteko. Gutun hori ez da hor.

Geroago ote zuen agertu bere kolorea? Hauteskundeetan zerbaite egiteko nahikeriarekin? Gorriek haizea alde zuten eta Agarramonteko jaunaren kontra aurkestu zen Bidaxuneko kantonadan. Bainan galdu.

Gorri gorrietarik zelako froga, errientak haurra izan zuelarik, bazkaria egin zuten herriko exean bizpahiru kontseilarirekin, *bataio bazkariaren eskernioa* Bardozeke berriketarik dioenaz.²⁹

1906an Imitorioak izanen direlarik, aktiboki parte hartu zuen, jandarma eta gobernuko ordezkariaren erdian, batere ez zelarik bortxatua parte hartzerat. Santsinena³⁰ erretoraren azken asteetan gertatu ziren Imitorioak. Hona nola kondatzen dituen *Eskualdun Onak*.

Joan den astelehenean Bardozele elizaren imitorioa egin behar zuen Bidaxuneko kontrolurak. Eguerditik oren bata irian jin beharra zen jaun hori, bere lanaren egitera. Oren bata gabe, hiru ehun bat Bardoxtar, gizon eta emazte, eliza aintzinean bildurik zauden, herriko elizaz jabetzera jin behar zelakoaren zain.

²⁹ Eskualdun Ona, Baroze, 1902.02.06, 1. or.

³⁰ François Sancinena 1855-1913, Kanbon sortua, 1880an apeztua, Larresoron irakasle 1878an, bikario katedralean 1884an, Erretor Bardozen 1893an, Erretor Senperen 1906n.

Erran tenoreko han zen kontrolura, lau jandarmekin, harmak eskuan; eta heien erdian, herriko jendearen izitzerat heldu balitz bezala... jaun mera. Zertako zen han? Zer xedez eta zer zuzenez? Bardozeke jaun mera? Zer? Giristino herri batetako buruzagia lan horri buruz agertzeko, ez ahalge? Zer estakuru eman dezake? Bortxatua zela? Ez, jaun mera, ez. Ez zinen bortxatua. Jandarme gaiztoek erran dezakete hori. Zuk, ez.

Orok badakite, legearen arabera, merak gomituak izan ditazkela, «invités», lan tzar huni esku emaiterat. Bortxatuak, ez, den gutienik ere. Legea zonbat ere baita bertzenaz makurra, ez da heltzen hortaraino. Zu, ba; zu, legea baino ere gorriago bete.

Beneditanoen eiheraz³¹ jabetu zirenean, han zinen, oro baino aintzinago, Prefetaren begietan zure burua eder egiteko. Ez bortxaz orduan ere, bainan zure nahiz.

Eta orai, herriko elizaz jabetu nahi direnen laguntzaile, zu, jaun mera? Ca c'est trop fort. Soberak sobera dire.

Sobera zela hori kausitu dute Bardoztarrek berek. Eta hurbiltzen ikusi duteneko, denak oihuz hasi dira: kuku Judas! A bas le sectaire! A bas le mouchard!

Jendea ixilduxe denean, kontrolurak jaun erretorari erran dio zer lan egiterat igortzen duten. Erretorak errepostu: ez duela onesten lan hori. Gero berehala, fabrikako presidentak irakurtu du, gora eta azkarki, hitz garbi, sarkorrez, protestazione bat.

Orduan sartu nahi izan dire elizan. Bainan barnean ziren jendeek borta guziak oro hetsiak zituzten. Eta barnetik oihuz hasi dire: «A nous l'Eglise! Vive la liberté! A bas les francs maçons!»

Jaun mera bere lagunekin joan behar izan da jin bidez, deus egin gabe. (...) (Jende) heien oihuak gero, eta eskarnioak jaun merari!... «Hu, hu, hu! A bas le rénégat, A bas le mouchard.» Ihes egin behar ukan du ostatu batetarat. Halere nolazpeit erakutsi nahiz zoin den gizona, gizon ohoratua eta kuraiatsua, itzal-tzearekin gibelaldea erakusten zuen, eskuz joz, haur tzar batzuk bezala... ope. Zer auzapezaren jabe diren Bardozen! Heientzat!³²

³¹ Belokeko fraidetxea, Bardozeke mugan da.

³² Eskualdun Ona, 1906.2.9.

Auzia

Beraz Baionako Prokuradoreari parte eman dio eliza aintzinean jendek oihu egin zutela: «A bas les voleurs, à bas les assassins.» Eta zer da gero, hala balitz ere? Jandarmek ibili dire lau gizonen eta bi neskato gazteren ondotik eta galdatu diote hea egin zituztenetz oihu ikaragarri hek. Orok ihardetsi bide dute, egia den bezala, ez dutela gogoan izan ere holakorik aipatzea. (...)

Daukate hanitzek hobeki eginen zuela jaun merak ixil ixil egoitea. Deus izan balitz holakorik, jandarmak han ziren enzuteko. Nork zuen jaun merak baino hobeki merezi berbala izaitea? Haizu ote da, jaun mera izana gatik, hainbertze jenderen aintzinean gibel alde erakustea? Phu zikin!

Bere buruaren xuritzeko erran omen du jauntto horrek bortxatua zela han izaiterat?. (...) Bardoztarrek jakina dute ez direla agertu ez Bidaxuneko Jaun Mera ez eta ere Bastidakoa. (...) Bainan plazer baitzuen Bardozekeo Dameztoik lan hortan parte hartzea. Gogotik zohan segurki; eliza idekia izan balitz, kontrolraren ondotik, dudarik gabe, xantre ohi bezela, elizan sar zitekeen salatzerat, eta gero gaitzitua jauna entzutiaz:»A bas les mouchards». Norbeitek erran ere badu: debrien figura, igandetan mezan ez ibiltzen eta baia lan horren egiteko elizan sartzen? Hu, hu, Kahut!³³

(...) Imitoria egiteko denbora guzian, Jaun mera egon behar izan da, mutiko ttipi bat bezala, elizatik kanpo, ez ahal baitzitzaion eder. (...) A Damestoi, Dameztoi! Aspaldian berantetsia ahal zira noiz izanen diren eliza guziak hezsiak eta apezzeria guzia «toute cette prêtraille», erraiten duzun bezala, alde bat kasatua.³⁴

Ikusten duzue mende batez errotak itzulia egin duela. Iraultza garaietan apezzen alde ziren Badoztarrak, Napoleon lehenaren garaietan enperadorearen alde, gero bigarren errepublikaren alde, ondotik Napoleon IIIren alde eta mende ondarrean Bardez itzuli da Munhoren garaietarat, auzapeza zutela partida aldi honetan eta ez apez iraultzale bat.

³³ Kahut hitzak kaskoinez erran nahi dezake: etxezoko, hilkutxa.

³⁴ Eskualdun ona (1906.02.16).

Bestalde historio honek erakusten du apezak izan direla iraultzalen alde, kontra izan aintzin, bigarren errepublikaren alde gero, 3.ren kontra izanen diren bezala. Parisko Karmetan ezpata ukaldika erail zuten Frantses d'Ardan Isturiztarra ere Iraulzaren aldekoa zen hasieran, bere apezgaiekin.

Bardozeke beste izen zenbait

Literatura

Literatura hunkitzen duten beste izenik ikusi dugu Bardozen, hiruak elizako edo elizatik hurbilekoak. B. *Zelhabek* lehen saria izan zuen Urruñako lore jokoetan 1855an *Entzunik espantutan Indien berriak*,³⁵ Ameriketara zoa-tzinentaz idatzi bertsuentzat, Etxahun Barkotxe hasarre gorrian sartzen zela, apezgai izana eta apezzen kastakoa zelakotz emana baitzioten saria Xiberotarraren ustez. *Bi bertset horiez* kantua egin zion irabazleari.

Leon Dajas, apez Bardoztarraren bertsu zenbait ere badugu. *Herriko bestak*, *Emazte edaleak*.³⁶

J.B. *Gorostartzu*, (1829-1868) 1794an gillotinatua izan zen Ezpeletako jujearen semea, bi urtez Bardozen bikario egon da. 2. saria izan zuen 1854an, geroztik famatua gelditu den *Orhiko xoria* kantuaentzat. *Haroztegi* izenpe-tzen du amonaren etxeko izenetik. Jakinez nola hil zitzaion aitona harri nindezke gorria izan balitz.³⁷

Ez ahantz ere Bardozen zuela egin Bibliaren itzulpena Duvoisin kapitai-nak, Hiribarren zelarik erretor.

«Bardozeke eskola» erran behar ote genuke?

Horra Bardozek zer eman dion Euskal literaturari eta literatura horrek zer ikasten digun xuri eta gorriek herri horretan izan zituzten gora berehe-

³⁵ Patri Urkizu, *Bertso eta Kantak II*, Etor, 1991, 355. or.

³⁶ P. Urkizu, 364-367.

³⁷ Dassance, *Orhiko xoria*, *Gure Herria*, 1970, 321-332. or.

retaz, Monho eta Hiribarrenen garaietan eta geroago. Elizan izan dira xuri eta gorriak, inperio edo errepublikaren aldekoak eta kontrakoak, bestetan bezala. Eliza eta herriko etxe borrokan ari izan dira batzutan, eskus esku beste batzutan.

Bibliografia

ASKOREN ARTEAN, *Bardos*, Ekaina, 1992

ALBIZU, Danielle, «Bardozekeo Euskal Idazleak», in *Bardos*, Ekaina, 1992, 325-340. or.

DASSANCE, *Gure Herria* 1970

LAFITTE, Piarres, *Poèmes basques de Salvat Monho*, Ikas, 1972

LAMANT DUHART, *Bardos*, Ekaina, 1992, 187-204

ORPUSTAN, Jean Baptiste, *Un poète Basque au temps de la Révolution*, in «1789 et les Basques», PUF Bordeaux, 1991 239-255 or.

URKIZU, Patri, «Bertso eta kantak», Etor, 1991.

Eskualdun Ona Astekaria

HERRIKO ETXEKO DOKUMENTUAK

Arbasoak Hiribarrenen *Eskaldunak* idazlanean

TOLEDO LEZETA, Ana M.

Euskaltzain osoa eta literatura ikerketa batzordekidea.

Deustuko Unibertsitateko irakaslea

Sarrera data: 2011-II-11

Onartze data: 2011-VII-11

Eskaldunak (1853) idazlaneko lehen 1.480 bertso-lerroak aztertzen dira: euskaldunei zuzendutako hitzaurrearekin eta arbasoei buruzko berriekin Hiribarrenek osatu zituenak, hain juxtu. Orain aldi iluna gainditu eta Argien Mendea abian jartzea du xede Hiribarrenek. Horretarako, jakintza historikora eta filologikora joaz, euskaldunen arbasoen ibilbidea konstatu zuen, hauen identitatea eraikitzeke moduan. *Eskaldunak* idazlanaren idazketaren orainaldian euskaldunak ez du jasotzen bere identitatearen mailan legokeen trataera. Salaketa egin eta egoerari aurre egiten hasteko mamitzen du liburua.

Hitz gakoak: Argien Mendea, zientzia, identitatea, aurkakotasuna, bidegabekeria, salaketa.

Se analizan los primeros 1.480 versos de la obra *Eskaldunak* de Hiribarren, concretamente, los que compuso a modo de prólogo e historia de los antepasados del vasco. El objetivo que pretende alcanzar la obra es desterrar las tinieblas que caracterizan al presente y dar paso al Siglo de las Luces. Con este fin, apoyándose en la historia y la filología, relata la historia de los antepasados y construye su identidad. Estima que el tratamiento que recibe el vasco no está en consonancia con lo que sus rasgos de identidad demandan. Lo denuncia y presenta *Eskaldunak* como su aportación para superar las condiciones que observa en el presente.

Palabras clave: Siglo de las Luces, ciencia, identidad, oposición, injusticia, denuncia.

Les 1.480 premiers vers de l'oeuvre d'Hiribarren intitulée *Eskaldunak* sont étudiés ici et plus précisément ceux qu'il composa pour la préface et l'histoire des ancêtres du basque. Cet ouvrage a pour objectif d'éclairer les ténèbres de l'époque pour s'ouvrir au siècle des Lumières. S'appuyant sur l'histoire et sur la philologie, il relate l'histoire de nos ancêtres tout en construisant leur identité. Il estime que le traitement que reçoit le basque n'est pas en adéquation avec ce que requiert son identité. Il dénonce cet état de fait et présente *Eskaldunak* comme son apport pour le surmonter.

Mots-clés : Siècle des Lumières, science, identité, opposition, injustice, dénonciation.

The first 1,480 lines of verse in the book *Eskaldunak* (1853) are analysed: they were in fact the ones compiled by Hiribarren with a foreword addressing Basque speakers and providing pieces of information about their ancestors. Hiribarren's aim was to overcome the dark period and usher in the Age of Enlightenment. For this purpose he resorted to historical and philological knowledge to describe the development of the Basque people's ancestors in order to build their identity. At the time when the work *Eskaldunak* was written, the Basque people were not receiving the treatment that would correspond to the level of their identity. The book deals mostly with this denunciation and how this situation should start to be addressed.

Key Words: The Age of Enlightenment, science, identity, opposition, injustice, denunciation.

Jean Martin Hiribarrenek (1810-1866) 1853an eman zuen argitara 5428 bertso-lerroz osatutako *Euskaldunak. Iberia, Kantabria, Eskal Herriak, Eskal Herri bakhotxa eta hari darraikona*.

Izenburuan iragartzen duen bezala, giza talde jakinari buruz jardungo du: euskaldunei buruz. Azpтитuluan modu xeheagoan adieraziko du zein atal nagusiz baliatuz jorratuko duen gaia: Iberiak, Kantabriak, Euskal Herriek, Euskal Herri bakoitzak eta honi «darraikona»k osatuko dute idazlana.

Euskalduna du kantagai. Lehenik, historiara jo eta, arbasoen gorabeherak jasoko ditu. Arbasorik zaharrenengandik hasi, –Iberia–, eta hauen hurrengo direnekin jarraitu ostean, –Kantabria–, Euskal Herrietara iritsiko da. Azkenik, Euskal Herri bakoitzaz eta honi «darraikonaz» jardungo du, euskal lurralde bakoitzari eskainitako bertso-lerroen ondoren, hainbat ibai, herri, pertsona, profesio eta abarren berri emanaz.

Idazlan osoa gabe, zati bat hartuko da aztergai: 5428 bertso-lerro horietako lehen 1480 bertso-lerroen gain eraikiko da gaurko jarduna; izan ere, hitzaurreak, «Euskaldunei bi hitz hastean», eta hurrengo hiru atalek –Iberia, Kantabria, Euskal Herriak– eratuko dute azter eremua. Azter eremu horretan Hiribarrenek euskaldunen arbasoek eman zuen irudia atzemango da, euskaldunei zuzendu zien hitzaurrean egiten duen planteamenduarekin harremanetan jarri.

Hitz erditxo bat aukeraren oinarriak azaltzeko. Osotasun baten parte bat baino ez da aztertuko. Haatik, osotasun baten parte izanda ere, parteak badu autonomiarik euskaldunengana arreta biltzen duen 5428 bertso-lerrotako idazlan horretan: batetik, euskaldunen lehen aldia aztertzen duen parte da; bestetik, parte historikoa da, eta, azkenik, euskal herri guztiak batera behatzen ditu. Lehen aldian zehar egindako bidaian, gizakiaren sorrera abiapuntu hartu eta, euskaldunen jatorria Iberian jarri ostean, Kantabrietatik igaro eta, Euskal Herrietara helduko da.

Egileak berak ere eman zion autonomiarik. Parte honen azken hiru aha-paldiak eginkizun zehatzera bideratu zituen: ordu arteko jarduna itxi eta hurrengo irekitzeko. Urratsez urrats egiten du iraganbidea:

Kantu hauk eman ditut, ibiliz larriki,
Hainitz zen unhaturen, egonez xeheki;

Jainkoak nahi badaut bizia luzatu,
Oraiko eskaldunez nahi dut mintzatu¹. (1469-1472)

Ordu arteko jarduna itxi –iraganari zegokiona– eta datorrena iragarri ostean, –orain aldiari kokatuko dena–, hurrengo bi ahapaldietan autu berria aurkeztuko du.

Laburbilduz, lehen parte legez izendatu denak, euskaldunen lehen aldiari eskainitako 1480 bertso-lerro ditu²; gainerako 3948 bertso-lerroak orain aldiari kokatzen dira. Ikuspegi diakroniko batetik, lehen aldiari begiratzen duenean, euskaldunek egindako ibilbidearen berri ematen du, euskal herritako euskaldun guztiak izanaz ardatz. Aldiz, orain aldiari begiratzen duenean, ikuspegia sinkronikoa da, baita bereziagoa ere: euskal herriren bat, ibairen bat, profesioaren bat... du neurtitzak ontzeko gai.

Beraz, aztergai izango diren bertso-lerroek hiru zutabe nagusi dituzte euskari: iragana, historia, euskalduna. Hortik aurrerakoek, berriz, oraina erretratatzeko bilatzen dute. Oraina erretratatzeko, Hiribarrenek jada ez dituzte fokatuko euskal herri eta euskaldun guztiak batera, baizik eta multzoka edo banaka.

Honela bada, idazlanaren izenburuaren azpiztituluak aurreratutako ataletatik –*Iberia, Kantabria, Eskal Herriak, Eskal Herri bakhotxa eta hari darraikona*–, *Iberia, Kantabria, Eskal Herriak* legez aurkezten dituen atalek osatuko dute aztergaia: *Eskaldunak* idazlanaren lehen hiru atalek, hain zuzen ere. Hala eskatzen zuen gaurko jardunari jarritako izenburuak: arbasoak. Jadanik esanenez, euskaldunen arbasoak nola atzeman zituen Hiribarrenek azaltzea du xede hitzaldi honek eta, ondorioz, arbasoak diharduten bertso-lerroetara biltzen du arreta.

Arbasoak paratu zituen hitzaurrearen ondotik datozen 1408 bertso-lerroak. Bazuen motiborik lehen aldirako bidaia antolatzeko: idazlanaren

¹ Aipamen guztiak honako edizio honetatik egingo dira: HIRIBARREN, Jean Martin (1994): *Eskaldunak. Iberia, Kantabria, Eskal Herriak, Eskal Herri Bakhotxa eta hari darraikona*, (1. zatia), Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo. Patxi Altunak, Gurutze Aldabaldetrekuk eta Amaia Bonetak prestatutako edizioa da.

² Berez, 1480 bertso-lerro gabe, 1408 dira lehen aldiko gorabeherez ari direnak; izan ere, hasierako 72 bertso-lerroak idazlana aurkezteko erabiltzen ditu.

idazketaren orain aldiari atera dion erretratuak bultzatu du joandako denborak aztertzerara. Bere orain aldiaz egiten duen ebaluazioa eta garaikide dituen euskaldunak ditu gogoan Hiribarrenek lehen aldian murgiltzerakoan.

Hitzaurre modura moldatzen dituen hasierako 72 bertso-lerroetan, –«Euskaldunei bi hitz hastean»–, azalduko ditu idazlana mamitzeko izan dituen arrazoiak. Muin-muinean euskaldunek orain aldian bizi duten egoeraren aurrean dei bat zabaldu eta dei horri erantzuteko bitarteko du *Euskaldunak*. Orain aldiko ilunpeak astindu eta Argien Mendea abian jartzera deitzen du. Deia egitearekin batera lantegiari helduko dio: Hiribarrenek bere jakintza historikoa eta filologikoa isuriko ditu *Euskaldunak* liburuan Argien Mendea abian jartzeko. Jakintza historikoan eta filologikoan oinarrituz, arbasoak aurkezten dizkio euskaldun garaikideari. Historia eta filologia jakintza-alorrek bidelagun hartuta, lehen aldian zehar egindako ibilaldiak identitate jakina eratu eta berari tinko eutsi dion giza taldea erakutsi dio. Asmazioaren fruitu gabe, jakintzaren bidetik ikasitakoa da adierazten duena. Ikasi duenaren berri ematea du jomuga Hiribarrenek orain aldia itxuraldatzen hasteko.

«Euskaldunei bi hitz hastean» hitzaurre modura ondu, bertan xedea ezarri, eta xedeari erantzutera dator idazlana: lehen 72 bertso-lerro horietan orain aldiari argazkia egin, argazkiak erakutsi diona desegokitzat jo eta, ikusitako errealitatea aldatu beharra aldarrikatu ostean, gainerako 5356 bertso-lerroak aldaketa gauzatzen lagun dezaten idazten ditu. Horregatik, hitzaurre-testu harremana behatzea gomendagarria izan daitekeela uste izanaz, arbasoei eskainitako bertso-lerroak hitzaurre honen argitan aztertuko dira.

Gauzak honela, aurrenik, hitzaurrea zuzenduko da begirada, orain aldia nola dakusan atzemateko eta somatu dituen hutsuneak gainditzeko egiten duen proposamena ezagutzeko. Jarraian, arbasoek diharduten ataletara igaro eta, arbasoek eraikitako irudiaren berri emango da, hitzaurrean aitortutakoarekin duen harremana agerian jarritz.

1. Helburua: argien mendea abian jarri

Idazlanaren idazketaren orain aldian euskaldunak bizi duen egoera tamalgarriak egoera salatzea eta gainditzen joatea eskatzen dio Hiribarreni.

Zein dira, ordea, orain aldian atzematen dituen bidegabekeriak? Bat haur euskaldunak eskolan euskaraz ez ikastea da:

Haur osteak ikusi, buraso gastutan,
Urthe multzu egoten eskola handitan;
Mihi arrotz zenbeitez ikhasi mintzatzan,
Eskaraz jakin gabe kasik irakurtzen. (9-12)

Eskolan ez dute euskaraz irakurtzen ikasten: hizkuntza arrotz batek ordezkutzen du euskara. Haur euskaldunak hizkuntza arrotz batez jabe daitezen gurasoek dirua xahutu beharra deitoratzen du Hiribarrenek.

Bada beste bidegabekeriarik ere, hala nola euskaraz jakiteak ezertarako balio ez izatea:

Zenbatak jakitea eskara herriko
Ez baitute kondatzen bi arditendako! (17-18)

Jokabide bidegabeen zerrenda luzatuz doa Hiribarren. Hala, besteen balentriak noranahi zabaltzen diren bitartean, euskaldunenak ezezagunak izatea salatzen du:

Balentria bertzenak urrun hedatuak;
Eskaldun berthuteak nihon aiphatuak. (41-42)

Haurrek,

Izan direla franses errege handiak
Badakike kondatzen hekien mihiak. (13-14)

Frantses erregeak ezagunak dituzten haur euskaldunek Euskal Herriko erregeen aditzerarik ere ez dute. Gertaera agerian jarri ostean, merezi dion balorazioa erantsiko du: haur euskaldunek frantses erregeei buruzko berriak ikastea baino hobe da betiko etxeak erretzea Hiribarrenentzat.

Atzematen ari dena bidezkoa gabe bidegabekeria dela argitzeko ahalegina ere egingo du. Beste giza talde batzuetara jo, hauek nola jokatzan duten azaldu eta, jarraibide legez aurkezten ditu:

Españolek español nahi dute jakin,
Frantsesek ere franses bere arantzekin;
Zertako Eskaldunak utziren eskara,
Bilhatzeko non gasta bertzetan denbora? (21-24)

Idazlana idazten duen egunetan euskarak eta euskaldunak pairatzen duten bazterketaren kauez ere arduratzen da: ospea galdu izanean dago gakoa. Badu erantzulerik ospea galtze horrek. Erantzulea ez dago euskaldunen artean, hauei kendu egin baitiete ospea. Galeraren jasale dira euskaldunak, galeraren eragileak, berriz:

Latin, español, edo franses jeloskorrak
Goibeldu, ahal guziz, eskaldun zaharrak;
Berak ez mintzazean, aise zen belztea. (29-31)

Orain aldiaren erradiografiak erakutsitako gabeziak gaintzeko giltza jakintza igortzeko egitekoa duen eskolan dago. Eskolak, baditu bere eskakizunak: liburua eta dirua galdegiten ditu. Liburua eta dirua jakintza eskuratzeko bitarteko ezinbestekoak dira:

Dirurik ez duenak ezin ikhas deusik,
Sosa gabe ez baita eskola fransesik;
Liburu on guzia fransesez egina;
Soseko liburu bat gabe Euskalduna! (33-36)

Jakintza eskuratzeko derrigorrezkoa den liburua baliabidean urri dabil euskalduna, sosik balio duen libururik ez daukalako. Badira euskaraz eliz liburu onak, ez ordea, kanporako egindako libururik.

Haur euskaldunak eskolan euskaraz ez ikastea, euskarari baliorik ez ematea, euskara ospea galduta egotea, euskaldunek egindako ekarriak ezezagunak izatea, eliz liburuez kanpo ganorazko libururik euskaraz ez edukitzea... erakusten dio Hiribarreni bizi duen orain aldiak.

Hitzaurrean orain aldia erretratatu ez ezik, epaitu ere egiten du: bidegabekeria hutsa da gertatzen ari dena. Baditu arrazoiak gisa horretan epaitzeko. Oinarri-oinarrian daukan arrazoa bertso-lerro bakar batera ekartzen du:

Populu guzietan lurreko lehena. (49)

Oinarri honen gain eraikiko du bere argumentazioa. Euskalduna izanik lurreko giza talderik zaharrena, ezin onar daiteke ezjakinena izatea. Herririk zaharrenari beste maila bat dagokio jakintzaren barrutian:

Ezin jasan diteke gutien jakina. (50)

Euskalduna «populu guzietan lurreko lehena» da; euskara lurrean parerik gabekoa:

O mihi ederrena, hasterik gabea,
Nork erran ez duiala lurrean pare! (19-20)

Antzinatasunean dago gakoa: horra hor euskalduna eta euskara munduan legokiekeen lekuan ez daudela salatzeako funtsezko arrazoia.

Idazlanaren idazketaren garaiko egoera erretratatu, epaitu eta, salatu ostean, irtenbideari irekitzen dio tartea. Euskaldunak deituz, irtenbidearen berri ematen die:

Iharrus, Eskaldunak, zuen ilhunbeak
Abia ordu luke argien mendeak (51-52).

Ilunpeak astindu eta Argien Mendera abiatzeko ordua da: euskaldunei zabaldutako mezuak aldi berean Hiribarrenen idazlanaren xedea jasotzen du. Desiratutako eraldaketa mamitzen laguntzea bilatzen du, bere ekarria egitea xedearen lorpenerako. Euskaldun guztiei gonbita luzatu ondoren, Hiribarren bera hasiko da ilunpetik Argien Menderako jauzia egiten. Geroko gerorako utzi gabe, deia zabaltzearekin batera berak ekiten dio lantegiari. Argien Mendea abian jartzeko, «herria, lana, berthutea» kantatzea hautatu eta osagai horiekin moldatutako liburua euskaldunen esku jarriko du.

Haur euskaldunek frantses errege handien berri badutela esana du hitzaurrean, orain, bere idazlanak Euskal Herriko erregeak ezagutzeko parada eskainiko du. Halaber, esana du, eliz liburuetatik kanpo euskaldunak ez daukala sosik balio duen libururik, orain, Hiribarreni esker, izango du. Era berean, esana du, besteen balentriak zabaldu direla eta ez horrela euskaldunaren bertuteak. Orain, *Eskaldunak* idazlanak emango du euskaldunen balentria, lan eta bertuteen berri. Euskaldunei buruzko jakintza-liburua osatu du. Guztia, noski, euskaraz.

Honenbestez, ezin jasan daiteke euskalduna ezjakinena izatea baieztatu duen bera dator orain aldiak aurkezten dion egoera gainditzera, Argien Mendea abian jartzera.

Idazlea euskalduna eta jakintsua da, orain aldiak euskalduna ezjakintasunean kokatzen duenean. Hitzaurrean barrena, zein barrutitan somatzen

ditu gabeziak Hiribarrenek? Euskarazko liburuetan, euskaraz bideratutako jakintzan, Euskal Herriari buruzko jakintzan. Juxtu liburu bat egitera doa, euskaraz jakintza igortzera doan liburua eta Euskal Herriaz diharduena.

Idazlea jakintsua da. Bere idazlana burutzeko hainbat iturri idatzitara jo du: Humboldt, Ampero, Diodoro, Silio, Moret, Estrabon, Liburu Sainduak... Beraz, iturri horiek ezagutzen ditu: ikasia da eta frantsesez gabe, euskaraz mintzo da. Honela, gainditu egiten du salatutako ekuazioa: euskalduna: ezjakina; frantsesa: jakintsua. Indarrean zegoen berdintasuna, euskalduna = ezjakina, euskaraz irakurtzen ez dakiena, zioena baliogabetzen hasten da. Hiribarren euskalduna da eta euskaraz igortzen du jakintza.

Hizkuntzalariak, historialariak, poetak... sortutako jakintza bereganatua du. Garai oso desberdinetako jakintsuek utzitako ondarearen berri du, bai oso antzinakoek egindako ekarriena, bai garaikide edo ia garaikide dituenena ere. Bere erudizioaren iturria ez dago bakarrik aspaldiko jakintsuengan; hori baino «eguneratuagoak» ditu ezaguerak. Bere egunetakoak edo ia bere egunetakoak diren Wilhelm von Humboldten (1767-1835) edo Jean Jacques Amperoren (1800-1864) lanak ere ezagutzen ditu: jakintza- mailan eguneratuta bizi da.

Hona aipatzen dituen iturri batzuk helarazi dioten irakaspenen bat.

Liburu Sainduetan ikasi du, adibidez, Babelgo dorrea eraikitzen ari zirela etorri zela hizkuntza-nahasketa eta ordu arte hizkuntza berbera hitz egiten zutela gizaki guztiek.

Diodoro Siculo historialari grekoak erakutsi dio zelden Iberiarako etorrera. Silio Italiko poeta epikoarengandik, *Punica* poema epikoaren egilearengandik, gerra punikoen gaineko berriak ez ezik, euskaldunei buruzkoren bat ere jaso du:

Siliok erakusten gizon Eskalduna,
Lehoinezko harmaden buruan emana. (529-530)

Estrabon geografo eta historialari grekoak euskaldunen arbasoei buruz esandakoak ere badakizki. Estrabonek geografiari eskainitako 17 liburukietako hirugarrena, Iberiaz diharduena, behintzat ezagutzen du.

Seneka ere ez zaio arrotza. Aitaren heriotza zela eta, Korsikako desterrutik Senekak gutun bat idatzi zion ama zuen Helviari, honen pena arintzeko asmoz. Argitara emateko prestatutako saiakera ez izan arren, argia ikusi zuen. Senekaren gutun hau Hiribarrenek bereganatu duen kultur ondarearen osagai da:

Desterrutik Senekok erraten amari
Korsek Iberiarra zutela iduri. (169-170)

Moretengandik ikasi ditu Nafarroako erregeen gorabeherak:

Moreto mintzatu da Eskaldun erregez. (1369)

Ez da harrigarria Nafarroako erresumaren kronista izan zen XVII. mendeko historialari jesuitarengana jo izana Hiribarrenek, Moretek, nola *Investigaciones históricas de las antigüedades del reino de Navarra* (1665), hala euskal populuaren hasieratik 1349 urte arteko ibilbideaz diharduen *Anales del reino de Navarra* (1684-1704) idatzita zeuzkanean.

Garaikideak dituenen artean aurkezpenik behar ez duten jakintsuak ditu bidelagun: Humboldt eta Ampero. Humboldt-ek adierazia zuen euskara zela Europako hizkuntzarik zaharrena, euskalduna zela Iberia prezeltikoko biztanleria primitiboen ordezkari linguistiko zaharrena. Beraz, Hiribarrenek, Humboldt-en teoriatan oin hartuz, esan dezake:

Balin bada oraino sinhets ez dukenik
Eskaldunen sortzea European lehenik. (189-190)

Idazlea zientziaren barrutian kokatzen da. Euskaldunei buruzko jakintza zabaltzera doa. Hitzaurrean azaltzen duen asmoak zientziaren barrutira bultzatzen du: Argien Mendea abian jartzeko ordua baldin bada, zientziak eta zientziaren erabileran zorrotzasunak izango dute zeresanik.

Izenburuan iragarri bezala, euskaldunak ditu gai. Giza talde honi buruzko zenbait baiezen eginak dituzenez hitzaurrean, baiezen horien euskarriak agerian jarri beharrean da: frogak, argumentuak eta abar eman beharrean da. Hala, «populu guzietan lurreko lehena» dela baiezteko izan badu hitzaurrea, baiezena frogatzeko leku du testua. Nahitaezkoa du baiezenaren nondik-norakoa argitzea, orain aldiko egoera salatzeke oinarri bezala hartu

duenean: populu zaharrena izateagatik irabazita lukeen mailari legokiokeen tratua ukatzen zaiola adierazia du idazlanaren abiapuntuan bertan. Horrenbestez, erakutsi egin beharko du euskalduna dela «populu guzietan lur-reko lehena», orain aldiko egoera salatzeke daukan motibo nagusia baita. Hitz batez, ilunpeak astindu eta Argien Mendea abian jartzea helburu izateak, hautatu duen gaira zientziatik hurbiltzea eskatzen dio.

Oinarri dituen zientziak historia eta filologia dira.

Hiribarrenek *Eskaldunak* idazlanaren lehen hiru ataletan, arbasoei buruz dihardutenetan, historia egin zuen eta, asmoz behintzat, historia hori modu zientifikoan egitea bilatu zuen. Zientzilariaren jarrera hartzen du gaira hurbiltzerakoan; besterik da, oso besterik izan ere, horretarako erabili zituen iturriei egun egotziko litzaiekeen «fidagarritasun-maila». Ez dago, ezta ere, alde batera uzterik, metodoen zorrotasun-mailan historiako ikaskuntzek XIX. eta XXI. mendeen artean irabazi dutena: jakin badakigu, Hiribarrenek erabilitako iturrien datuak iragazi oso estutik iragaziko lituzkeela XXI. mendeko historiak.

Zientzilari batek bezala, iturriak aipatzen ditu. Gehienetan iturriaren erreferentzia jakintsuaren izena ematera mugatzen badu ere, aipatutako jakintsua hain ezaguna ez denean, edo uste duenean hartzailereantzat hain ezaguna ez dela izango, argitasunen bat gaineratzen du oin-oharrean. Argitasuna, beti, denboraren ardatzean kokatzeko da. Esaterako, Diodororen-gana jotzen duenean testuan, oin-oharrean eransten du «Diodoro bizi zen ehun urthe Jesusez lehen» (16. or.). Berdin jokutzen du Siliorekin, Estrabonekin edo Senekorekin³.

Garaikideek edo hurbilekoek, dirudienez, ez dute datatu beharrik. Hala, Jose de Moret XVII. mendeko historialari nafarra edo Humboldt edo Ampere noizkoak diren zehaztu beharrik ez du somatu.

Dena den, behin edo behin, iturri duen jakintsuaren izena aipatzeaz gain, euskarri duen dokumentua transkriba dezake. Behin behintzat, bere baiez-

³ «Silio bizi zen hiru hogoita sei urthe Jesus baino lehen» (34. or.) dio egilearen oin-oharrak. Formula berbera darabil gainontzekoetan: «Estrabon bizi zen hogoita bortz urthe Jesu-Kristo gerroz» (15. or.); «Seneko bizi zen hiru urthe Jesu-Kristo baino lehen» (13. or.).

penerako erabilitako dokumentua hitzez hitz jasotzen du oin-oharreen: Garzis euskaldunen errege Burundan izendatu zutela dioen Gregorio Aita Sainduaren bulda, jatorrizko hizkuntzan, latinez, testuraten du (63-65. orr.).

Esan bezala, arbasoei eskainitako ataletan historia da oinarri duen zientzia nagusia. Historialari batek bezala gertaeren kronologia egiten du. Kronologia hori hasten da gizakiaren sorrerarekin eta Nafarroako Erregeen berri emanaz amaitzen. Hurrenkera kronologikoa gordeaz, gizakiaren sorrera abiapuntu hartu eta, Iberiaren eraketaz jardutera igarotzen da. Iberiatik Kantabriarako jauzia egin eta, azkenik, Euskal Herrian kokatzen da.

Azaldutako gertaerak denboraren ardatzean lekutzen ditu. Gizakiaren sorrerari 6000 urteko antzinatasuna egosten dio; Jesukristo baino 2000 urte lehenago eraturakoa da Iberia; 3300 urte dira iberiarrak bitan banatu zirela; berrogei mende, berriz, euskalduna Pirinioetan dela⁴.

Beste hainbat gertaera ere kokatzen ditu denboraren ardatzean: 406an hedatu ziren barbaroak, VIII. mendea hastear etorri ziren afrikanok Espainiara; 616. urtean izendatu zuten Garzis⁵ errege eta abar.

Dirudienez, zehazteko premia dauka. Iturriak, gertaeren noizkotasuna... mugatzen ditu. Zehazteko premia ez datorkio «testu literarioa» egin nahi izanetik, baizik eta «testu zientifikoa» egin nahi izanetik. Literaturaren erresuma bizileku eraiki nahi izan balu zehazgabetasunari atxiki zekiokkeen; izan ere, gardentasunetik eta zehaztasunetik urrutiraturaz, iluntasunean eta anbigutasunean murgiltzeko aukera ematen zion testu poetikoa mamitzeak. Haatik, Hiribarrenen asmoa ez da testu poetikoa ontzea, testu zientifikoa baino: poesiaren kategorian gabe, zientziaren kategorian murgiltzea hautatu du hitzaurrean azaldutako xedeari erantzunaz. Ezkututzen ez duen jarrera da.

Filologiara ere jo zuen argibide bila: filologo batek bezala hitzen etimoak emango ditu. Filologia, batik bat, historia egiteko laguntzaile du. Bere inte-

⁴ Hurrenez hurren, 81-82 bertso-lerroak, 285-286 bertso-lerroak, 165-166 bertso-lerroak, 797-798 bertso-lerroak.

⁵ Hurrenez hurren, 1001-1002 bertso-lerroak, 1017-1019 bertso-lerroak, 1065-1066 bertso-lerroak.

resa ez dago ikasketa filologikoetan, baizik eta hitzei egotzitako etimologiek historia argitzeko egindako ekarrian. «Iberia», «Kantabria» eta «euskalduna» hitzen etimoak jasotzen ditu, baina etimoak zuzentzat hartzera gonbidatu gabe. Hala, Kantabriaren etimoa «Kanta Iberia»n jarri ostean, honela dio:

Kantabria ex dela kanta Iberia
 Zenbeitek errateko naski gutizia
 Ez dut nahi bortxatu nihor sinhesterat;
 Itxurak nau ekharri horren erraterat. (265-268)

Euskalduna hitzaren etimo moduan bat baino gehiago eskaintzen ditu: *esku lan dumatik* etor zitekeela adierazi izanagatik, *esku alde duena* behar bada askoren gogoko izango dela eranstean du, eta *eskuda alde duma* ere aipatzera iristen da (50. or.).

Etimoen aurkezpenean erakusten duen jarrerak zientzilari legez jokatu nahi duela salatzen du; izan ere, zientzilari moduan, zorrotasun mailaren baten jabe dela adierazten duen arrastoa uzten du. Bere ezaguerak iragazi egiten ditu, batzuk ziurtzat aurkeztuz eta beste batzuk ez horrenbeste. Alderdi honetatik kritikoa da: guztiari ez dio ematen fidagarritasun-maila berbera.

Erabilitako iturriak aipatzeaz gain, iturriekin zorrotz jokatzeari eskatzen zaio zientzilariari. Eskakizun honi erantzunaz, darabiltzan iturriak ebaluatu egiten ditu Hiribarrenek zorrotasun-mailaren baten jabe dela erakutsiz: ez du ziurtzat jotzen iturrietatik jaso duen guztia. Etimoez eginiko ebaluazioa lekuko.

Etimoen berri ematean gehiago egiten du ezagutzen dituela aditzera emateko, beraiek oinarri bezala hartzeko baino: ez dute fidagarritasunik. Oso bestela aurkezten du Liburu Sainduen fidagarritasuna, iturri ziurtzat baitaizka.

Baliatutako iturrietan fidagarritasunik handiena Liburu Sainduei aitortzen die. Babelgo dorrearen eraikuntzaz diharduela, dioenez:

Han arte mintzo bera guziek segitu;
 Egia horrek froga segurenak ditu:
 Nor nahik ikuskidin liburu saindutan,
 Ithurri garbienak mende guzietan. (89-92)

Oso besterik da, jakina, XXI. mendeko historialariak Liburu Sainduei egotziko liokeen fidagarritasuna, baina, hemen, Hiribarrenek erakusten duen jarrera da aztergai, ez berak mamitutako dokumentuaren zientifikotasuna.

Jarrera zientifikoari eutsiz, ziurrak diren ezaguerak soilik testuratzen dituela adierazten du:

Ez da hemen erraten deus segur ez denik. (133-136)

Ezaguerok mailakatu ere egiten ditu fidagarritasunaren ikuspuntutik. Iberiako erregeez diharduela, adibidez, honela dio:

Zaharren eran oro sinhesten badire,
Iberian errege asko izan dire.
Berosen arabera, huna pulikisko:
Ibero, Tubal, Brigo, Jubal, Horma, Beko. (273-276)

Gerio, Hispal, Hispañ, Hespero, Atala,
Sikano, Sicel, Luso, Herkul, Romo, Tesla,
Palatu, Eritreo, Habido, Gargari:
Iberiar zirela ez sopra ageri. (277-280)

Altabizkarreko guduan hil ziren gerrarien ehorz-lekuaz esandakoaz ere ez du ziurtasun handiegirik:

Han dute gero erran ehortzi zirela
Atzeman gerlariak, husturik odola
Hala bada edo ez, segur da egia
Han etzela jostatu franses gazteria. (1241-1244)

Zientziaren kategorian kokatzen dela nabarmentzeko adierazlerik ez da falta: kontatutako gertaerak denboraren ardatzean zehazten ditu, erabilitako iturriak aipatzen ditu, iturri desberdinetatik jasotakoaren fidagarritasuna epaitzen du... Liburu Sainduak iturri ziurtzat jotzen dituen Hiribarrenek, edo Humboldt eta Ampero jakintsuen esanak zimendurik hoberenak dituztela baieztan duen Hiribarrenek, ez ditu kategoria horretan kokatzen azaldu dituen etimoak edo Iberiako erregeez eman duen zerrenda, edo Altabizkarren bizitza galdu zuten gerrarien ehorz-lekuaren kokapena.

Ziurra ez den gauzarik ez duela esaten aitortzen badu eta fidagarritasunaren ikuspuntutik helarazten dituen ezagueren ebaluazioa egiten badu, asmatutako fikzioen igorle gabe, gertaera zientifikoek berri emaitzat dauka bere burua. Sendoa edo ez hain sendoa, euskarriren bat izan badu bere berbaldiak. Zerbait baztertzen badu asmaziotik edan izana da.

Jakintsuen esana oinarri hartu duenez, Hiribarren bitartekari legez aurkezten da. Besteen ahotsetik, jakintsuen ahotsetik, jasotakoa bere hitzez ematen duena da. Ahots batzuk «auctoritas» gisa dauzka. Hala gertatzen da Liburu Sainduekin ez ezik, baita Humboldt eta Anperorekin ere:

Hunbolt eta Anpero dire jakinetan;
 Sinheste har diteke hekin erranetan;
 Hainitz dute ikusi, hainitz irakurtu
 Hekin hitzak zimendu hoberenak. (141-144)

Beraz, Hiribarrenen baiezenak ez dira maitasun gartsuak edo euskaldunen autoestimua igo nahiak eragindakoa, baizik eta adituen esanetatik ikasitakoak. Haiek esandakoen berri emaile da, baina, haiek ez bezala, euskaraz adierazten ditu erdaldu jakintsuok euskaldunei eta euskarari buruz idatzitakoak.

Azken batez, besteek esandakoen igorle moduan aurkezten du bere burua: jakintsuek esandakoaren transmititzaile da. Iturriak zehazten dituen bakoitzean baiezenaren erantzukizuna nori egotzi behar zaion seinalatzen du. Aurrera baino lehen, ordea, argi dezagun Hiribarrenek ere bereganatzen duela eginkizunik: bera da iturriak hautatu dituen, bera da iturri horiek diotena iragazi duena... Bera da idazlana egituratu duena.

Euskaldunak gaitzat harturik liburu bat osatu zuen Hiribarrenek. Liburua da jakintza biltzen duen euskarria. Liburua da hitzaurrean gehien errepikatzen duen hitza: hamazortzi ahapalditatik bost ahapalditan, hirurogei eta hamabi bertso-lerroetatik zazpitan.

Liburu onak eta txarrak daude. Gogor arbuiatzen ditu liburu txarrak:

Egin dire liburu nihon den tzarrenak
 Probetxos erretzea hetan gehienak
 Suge bezala dire bizi arrosetan,
 Asiki hedatzeko gordez arimetan. (65-68)

Liburu txarren irakurleak ere gaitzesten ditu:

Arthik ordu liteke basa bisaiarat
Lehia duenari liburu tzarrerat (69-70).

Ikus daitekeenez, berebiziko errespetua dio liburuari: badaki eragiteko ahalmen ikaragarria duela. Izan ere, libururaten dena transmititzeko asmoarekin libururaten da: zabaltzeko eta bizi-iraupena emateko. Euskarriak iraupena ematen die bertaratutako edukiei iraungitze-datarik jarri gabe eta, ondorioz, oso bizitza luzea eskura dezake.

Hiribarren liburuaren indarrak jabetua dago: arma boteretsua da. Liburuetan jasotako edukietatik, onura nahiz kalte handiak etor daitezke. Hiribarrenek ez dakusa liburua eduki batzuen gordailu legez, baizik eta bertaratutako edukien transmititzaile legez. Horregatik, urritzat jo duen euskal liburugintzara liburu bat dakar, euskaldunei buruz ikasi duena hurrengo belaunaldien ezagueran jartzeko.

Zalantzarik gabe, liburu txarrak «suge bezala» ikusten baditu, liburuak eragin handia lor dezaketen edukiak transmititzeko daukan ahalmenarengatik da. Idazlanean zehar aipamen zehatzik ere egiten dio transmisioari. Euskaldunen lehen aldiaren berri ematetik orain aldira igaro ostean, «Eskal Herri bakhotxa eta hari darraikona»ri eskainitako ataletan, bada «Azkaine»z diharduen bertso-lerrorik. Bertso-lerro horiek, besteak beste, egile bezala bere burua aurkezteko eta paratu duen dokumentuak «geroan» izan dezakeen eginkizunari erreferentzia egiteko erabiltzen ditu:

Hirugarren apeza bizi da Bardoitzen,
Piko hauk dituela nolazpeit moldatzen,
Ustez xede onetan, nahiz herriari
Geroan kausirazi orai zer den berri. (2203-2206)

Honela bada, ilunpeak astindu eta Argien Mendea abian jartzea honako egitekoan ardatzen da: ezaguerak euskaraz transmitituko dituzten liburu onak mamitzean. Hiribarrenek berak egin zuen bezala, *Euskaldunak* idazlanaren bidez. Argien Mendera jauzia nork bere harri-koskorra ekarriaz egingo dela uste duelako edo, bere idazlaneko bertso-lerro batzuk aprobeixatuko ditu euskaldun oro «zerbait moldatzera» gonbidatzeko:

Eskaldun guzia da egun gonbidatzen
 Has dadin izpirituz zerbeiten moldatzen,
 Jakin dezaten arren gure ondokoek
 Nolako gaiak zuzten hekin arbasoek. (57-60)

Liburu bakarra ez da aski: liburuak, liburutegia osatzea eskatzen du Argien Mendeak. Horra, luzatutako gonbitak ezkuta dezakeen motiboa.

2. Arbasoak

Esan bezala, orain aldia ilunpetik ateratzea du asmo *Eskaldunak* idazlanak. Horretarako, lehenik, arbasoak aurkeztu zizkion bere garaiko eta etorkizuneko euskaldunari. Arbasoen berri emateko, jakintsuak bidelagun hartu eta, hauen esanen igorle bihurtzen da. Baina, besterengandik jasotako esanen igorle den aldetik erantzukizunez desjabetzen den Hiribarrenek, bereganatzen du beste erantzukizunik: berea da langaien aukeraketa eta langaion egituraketa. Iturriak, iturri horietatik hartuko duena... aukeratu du. Berea da, halaber, aukeratutakoaren moldaketa. Egin duen hautu bat, esaterako, honakoa da: konparazioaren erabilerara jo. Hala, berbaldi osoa ez du harrapatzen euskaldunak: beste giza talde batzuei ere leku egiten die. Hiribarrenen erabakia izan da euskaldunak beste giza talde batzuekin harremanean aurkeztea. Maiz, oposizioaz baliatuz, beste populu batzuekin erkatzen du euskalduna.

Beste populu batzuk ez bezalako ezaugarriak ditu iraganeko populu euskaldunak: gisa honetan, arbasoen identitatea mugatzen du. Identitate baten jabe izateak eta, batik bat, identitate horren nolakotasunak bidegabe bihurtzen du identitate horren jabe direnei ematen zaien tratua idazlanaren idazketaren garaian. Identitatearen nolakotasuna da salaketa egiteko Hiribarrenek daukan argumentu nagusia.

Azken batez, arbasoek diharduten atalek argumentazioa eratzen dute. Irabazia duen mailari dagokion tratua ukatu egiten zaiola euskaldunari baieztatz hasten badu idazlana eta Argien Mendea abian jartzea baldin badu xede, ez du aski baiezpeneekin: azaldu beharra dauka zein den irabazia duen maila hori. Argien Mendea abian jartzeak badu eskakizunik: ahalik eta modurik zehatzenean, zientifikoenean, azaldu eta neurtu behar da eus-

kaldunak irabazia duen maila. Horregatik bilatu du testu zientifikoa moldatzea. Argumentatu egin behar zuen zergatik idazketaren orain aldian euskaldunak ez daukan munduan merezi duen lekua. Argumentatzeko, berriz, ahalik eta euskarririk sendoenetara jo behar zuen.

Euskaraz sosik balio duen libururik ez dagoela esana duenez hitzaurrean, nekez dokumenta zitekeen euskarazko iturrietan. Euskarri sendoak erdaraz aurkitu beharko ditu. Berez, horixe egin zuen: aipatzen dituen jakintsu guztiak erdaraz idatzi zuten. Erdaraz idatzi zutenak ez ezik, atzerritarak dira guztiak Moret historialari nafarra izan ezik. Honela bada, euskaldunen arbasoak ez ditu moldatzen euskaldunek eraikitako irudiaren arabera, baizik eta erdaldunek euskaldunetz eraikitakoaren arabera. Ez da giza talde baten «autoirudia», giza talde batek bere arbasoetz eratutako irudia, baizik eta besteek eratutakoa, beste giza talde batzuk euskaldunei egotzitakoa. Badu abantailarik autoirudia baztertzeak; izan ere, «kanpotarren» esanetan oinarritzen bada, euskaldunek «kanporantz» proiektatu zuten irudia jasotzen du.

Jakina, «kanpotarren» ahotsa euskaldun batek iragazten du: Hiribarrenek. «Kanpotarren» ahotsetik iragazitakoari bere ahots propioa gehitzen dio. Besteengandik ikasitakoa kontatzeaz gain, kontatutakoa egituratzen eta ebaluatzen du. Hiribarren da euskal komunitatearen identitatea beste komunitate batzuekin harremanean aurkeztea erabaki duena, historia kontatzeaz gain komentatzea erabaki duena... Kontatu ez ezik, ebaluatu egiten du kontatzen duena, argi eta garbi dauzkan ebaluazio-irizpideen arabera. Arbasoen dohainak azaltzeak ez du bere baitan izateko arazoia. Dohainen azalpena bitarteko da euskalduna munduan kokatzeko eta legokiokoen lekua ukatu egiten zaiola ondorioztatzeko. Ahalik eta didaktikoena izatea dagokio Hiribarreni, arbasoen dohainen azalpenetik atera behar diren ondorioak atera ditzan hartzaileak. Azken finean, euskaldunaren ospe-falta bidegabekeriartzat jo duenak, ospe-falta pairatzen duen orain aldiko euskaldunari, arbasoetz harro egon daitekeela erakutsi behar dio. Jakintsuengandik ikasi duena eginkizun hau betetzeko moduan moldatu behar du.

Jadanik esan den moduan, arbasoen identitatea agerian jartzeko, oposizioa du osagai egituratzaile funtsezko: beste giza talde batzuen ezaugarriei aurka jarritz nabarmentzen ditu euskaldunen berezitasunak.

Hona euskaldunen arbasoen identitatea mugatzeko Hiribarrenek baliatu zituen oposizioak:

a) **euskalduna zaharra / erdaldunak ez hain zaharrak**

Nihork ez du munduan Eskaldun adina. (73)

Euskalduna da munduan zaharrena. Erdaldunek, ez dute halako antzinatasunik:

Populu zaharrena, hari ohorea;
Ez da haren halturan nihongo jendea;
Nihoiz, nihoiz ez galdu aita Euskaldunak;
Ondoren ondo bethi utzi erdaldunak. (77-80)

Euskalduna «Ibero seme, Kantabre zaharra» (475) da. Euskaldunen jatorria Iberian dago. Iberia, berriz, uholde nagusitik kanpo gelditutako herria da:

Urrunago gan gabe, zer da Iberia
Uholdetik lekhora hautatu herria:
Herri edo tokia hola izendatu
Populuak *berritan* zuena hautatu. (97-100)

Gizakiaren antzinatasuna sei mila urtekoa da:

Sei mila urthe badu gizonen hasteak. (81)

Mundua hasi eta 1650 urtetara izan zen uholde nagusia⁶, uholde nagusitik 440 urtetara ekin zioten Babelgo dorrea eraikitzeari⁷.

Gertaeron kronologia adierazi den moduan ezarri eta gero, 4000 urtetako antzinatasuna egosten dio euskaldunari Pirinioetan:

Pirenen bi aldetan Eskalduna sorthu,
Berrogoi mende huntan handik ez higitu. (797-798)

⁶ «Hamasei mende eta bertze erditsuan / Urezko zigorrada hedatu munduan». (83-84)

⁷ «Handik lau ehun eta berrogoi urthetan, / Gizonak eman ziren lan sopra zorotan: / Dorre bat zuten hasi, harat ihesteko, / Uholde berri zenbeit zenean hasiko». (85-88)

Miarritzera bainuak hartzera datozenak Larrun ikusi gabe nola itzul daitezkeen Parisa edo Londresa ulertezintzat jo ondoren, honela jarraitzen du:

Lau mila urthetako populu berbera,
Uste dut den ikuspen prezatu beharra. (465-466)

Euskaldunek Pirinioetan daramaten denbora ez du adierazten beti horrelako zehaztasunarekin. Bada aipu zehazgabeagorik ere:

Iberiarrek badu Pirenetan dela,
Armeniako izen bera dakharkela,
Errexki hiru mila urthe iraganik. (133-135)

Noiz edo noiz oraindik mugagabeago utzi dezake:

Urtheak Pirenetan Iberia zela. (112)

Dena den, berrogei mendetako antzinatasuna nagusitzen da. Bidenabar esanda, Hiribarrenek *Euskaldunak* idazten duen garaian hedatu samarrrik egon daitezkeen antzinatasuna da. Jean Baptiste Daskonagerreren *Athekagaitzeko oihartzunak* (1870) eleberrian Hiribarrenek darabilen adierazpenaren antzekoa irakur daiteke. Larrunek «lau mila urthetako populu berbera» so egiteko aukera eskaintzen duela badio Hiribarrenek, baita *Athekagaitzeko oihartzunak* eleberriko pertsonaia nagusia den Ganix kontrabandista atxilotu nahian dabilen Burrumba kapitainak ere. Agintepean dituen soldaduak adoretzeko egiten duen mintzaldia, era honetan amaitzen du:

Soldats, vous ne faillirez pas à votre devoir; songez que du haut de ces Pyrénées quarante siècles vous contemplant⁸.

Berrogei mendez euskalduna Pirinioetan izatea «Lau mila urthetako populu berbera, / Uste dut den ikuspen prezatu beharra» esanaz baloratzen duen Hiribarrenengandik ez dabil urruti Daskonagerrek sortutako Burrumba pertsonaia. Bi idazle lapurtarengan, –batik bat Daskonagerreregan, noski– Napoleon Bonapartek Egipton Piramideetako Batailan erabilitako

⁸ Dasconaguerre, Jean Baptiste, 1990, *Athekagaitzeko oihartzunak*, Klasikoak Saila, Elkar, Donostia, 83. or. Ander Lakarrak prestatutako edizioa.

esaldi ospetsuaren oihartzuna atzematen da. Agintepean zituen soldaduak adoretzeko egin mintzaldia gisa honetan bukatu omen zuen Bonapartek:

Songez que du haut de ces monuments quarante siècles vous contemplent.

Digresioa itxi eta harira itzuliz: euskaldunaren berrogei mendetako antzinatasunetik urrun dira giza talderik gehienak. Babelgo dorrearen eraikuntzan sortutako hizkuntza-nahasketaz gero, mila herri suntsitu dira:

Banatu behar izan alde orotarat,
Suntsitu diren mila herri egiterat. (95-96)

Herri frantsesak 1500 urte ere ez ditu:

Hamabortz ehun urthe doiean duela,
Munduan nihork jakin Fransesik bazela. (125-126)

«Liburu on guzia fransesez egina» (35) dela edo haur euskaldunek badakitelatela «Izan direla franses errege handiak» (13) hitzaurrean esana du. Baita giza talde baten ospea honen antzinatasunari uztartua ere. Honenbestez, bidegabekeria agerikoa da: 4000 / 1500 urteen arteko kontrasteak salatzen du.

b) **Hizkuntza ahaiderik gabea / ahaideak dituzten hizkuntzak**

Gainerako hizkuntzei aurka jarritz, euskaldunen hizkuntzaren antzinatasuna eta berezitasuna azpimarratzen du:

Eskaldunen mintzoa, arras berezia,
Ez liteke zerutik atzo eroria;
Aldeko mihitarik batere iduri;
Zein zeinen ume diren hek orok ageri. (185-188)

c) **Aita duena / Aitarik gabekoa**

Herri zaharrek Aita bat izan dute gidari, ez horrela berriek. Hitzaurrean dioenez, herri orengan lotsa eragiten du jatorria ez ezagutzeak:

Populu guzientzat ahalke handia
Aitetan ez kaustea bere gidaria:
Atzo sorthu direnei hori da gerthatzen,
Nihork ez duelakotz ethorkiz argitzen. (45-48)

Euskaldunak, erdaldunak ez bezala, ez du inoiz Aita galdu:

Nihoiz, nihoiz ez galdu aita Eskaldunak
Ondoren ondo bethi utzi erdaldunak. (79-80)

Herri zaharrek Aita dute; berriek ez dute Aitarik ezagutzen. Euskalduna gainontzeko populuengandik bereizten duen ezaugarria da:

Pirenen inguruan eta non nahi den,
Populuek iduri atzoko haurriden;
Kokotsean bizarra doi-doia sorthua;
Bere aiten izena ez ezagutua. (121-124)

d) **Populu nahasi gabekoa / nahasitako populuak**

Euskalduna inoiz ez da nahasi:

Herriko hazitarik
Gorphutzak orraturik,
Eskaldun berritu,
Bethi bera gelditu,
Nihoiz ez nahastatu:
Garbi Euskalduna,
Munduko lehena! (385-391)

Ez da beste horrenbeste gertatu Europako populuekin:

Hainitz gerlek Europa, hiru mila urthez,
Gorritu izan dute odolezko gaiez.
Nork izenda populu han sarthu direnak,
Nahasdura itsusi iragan direnak? (413-416)

Populu zaharra, Aita duena, nahasi gabekoa eta, honenbestez, odol garbikoa da euskalduna. Aitzitik, berriak diren populuek, ez dute ezagutzen Aitaren izenik: nahasi egin direlako sasikumeak dirudite. Elkarri hertsiki loturik dagoen ezaugarri-multzo honek gainontzeko populuengandik bereizten du populu euskalduna:

Nihork ez du munduan Eskaldun adina;
Bakharra da mendetan bera egon dena;
Nahastean bertzeak bere pasaietan,
Odola hark du garbi beiratu zainetan. (73-76)

Zaharra, Aita duena, nahasi gabekoa, zaharraren zaharrez odol garbikoa den euskaldunaren aurrean, Europako jendea, sasikumeen antzera Aitarik aurkitu ez duena, berria, berriaren berriz odol garbia duena da:

Europako jendea betantsu agertu;
Bastarten iduriko, aitarik ez kaustu. (127-128)

Ez dire bathaiatu etxen izenekin;
Guziak sorthu dire larru berriekin:
Rusiano, Alaman, Franses, Españolak;
Nahi bezin garbiak dauzkaten odolak. (129-132)

Euskaldunen artean, berriz, ez dago sasikumerik:

Ez da oraino hil Eskaldun odola,
(...)
Oinen peko alkhia aitekin duela,
Haren haurren artean bastartik ez dela. (801-804)

Bere ahaleginari esker lortu du euskaldunak nahasketa saihestea:

Zeltek egin gerletan
Menderik gorenetan,
Ez nihoiz etsitu;
Sobra zenean hestu,
Menditarat ihestu:
Gal lezake asko,
Balitz nahastuko. (399-405)

Aurre egin die etorri zaizkion etsaiei:

Erromak, nausitzean, Kartago hondatu;
Eskalduna hargatik lehengo gelditu,
Nahiz bethi etsaia zitzaion ethorri
Haren odol goriaz iduri egarri. (557-560)

Ausarki defendatu ditu mugarriak eraso dutenean:

Lehoin errabiatu bi hoiien erdian,
Eskaldun aita bizi bere Kantabrian;
Hartu zituen harmak, bainan ez herritan;
Bere etxei zioten kontu mugarritan. (525-528)

Etsaiek beraiek behin baino gehiagotan aitortu diote euskaldunari uzta-
rriak arbuiatzeko erakutsi duen kemena:

Haren etsaiek dute ez behin aithortu,
Pare gabeko zela mendetan agertu;
Hura hekin begitan gerlari lehoina,
Nihoren uztarririk jasan etzuen. (677-680)

Ondorioz, burujabetasuna gorde du bere ibilbidean:

Franses eta Español dutela inguru
Euskaldunak jokatzen bethi bere buru. (453-454)

Beraz, euskaldunak nahasi gabekoa izatea ez dio zorteari zor, baizik eta
ahaleginari: menderatzera etorri zirenei ausarki aurre eginez irabazitako be-
rezitasuna du.

e) **Jainko bakar bat gurtu / idoloak gurtu**

Euskaldunak Jaungoikoa gurtu du beti:

Populu eskalduna, biziz berezia,
Gutirekin mintzoaz harturik aria,
Sinhets nezake aise ez dela itsutu,
Jaungoikoa duela bethi adoratu. (841-844)

Noizbait egingo zuen gaiztakeriaren bat, beti on ez baita egiten, baina
Jainko bakarrari zuzendu dizkio eskariak:

Gaizkia egin zuken, aise da sinhesten
Orai ere guti da bethi on egoten;
Bainan Jainko bat baizik hark ez ezagutu;
Bere beharrak hari mendetan galdetu. (869-872)

Beste populuetan, berriz, idoloak nagusitu dira:

Bertze populuetan nausitu idolak. (881)

Euskaldunak Jaungoikoa bakarrik gurtu badu, nahasi ez izanari esker da.
Burujaetasuna gorde izanari esker, hain zuzen ere:

Haren Jainko izena aski da lekhuko,
Ez duela bertzerik izan goragoko;

Hura zen patriarken jaon lazgarria,
Pirenen sinhestean nihoiz ez berria. (873-876)

Ondoren ondo haurrei irakutsi aitek;
Ezin ahantzarazi populu nahastek,
Ez denaz geroz nihor nausitu mendetan,
Hek tieso beiratu mendi, haranetan. (877-880)

Azken batez, euskal giza taldearen antzinatasunak eta burujabetasuna inoiz ez galdu izanak erabakitzen dituzte gainerako ezaugarriak: horregatik da Aita duena, nahasi gabea, zaharraren zaharrez odol garbikoa, Jainko bakar bat gurtu duena, ahaidetik gabeko hizkuntzaren jabea. Bereztasun-multzo honek zedarritzen du euskal giza taldea, ez baita munduan giza talderik bereztasun-multzo honen eramaile denik: giza talde ororengandik desberdintzen du. Beraz, euskal populuak badu beste populuak ez bezalako identitatea, bere berea duen identitatea.

Jakintsuen eskutik euskaldunen historiara egin duen bidaiak munduko giza talde guztiengandik bereizten den giza taldea aurkitzeko parada eman dio Hiribarreni. Bidaia horri forma ematerakoan, Hiribarrenek ez du etsiko euskalduna gainontzeko giza taldeekiko harremanean definitze soilean. Harreman horren berri emateko hautatu dituen item-ak ebaluatu giten ditu.

Hiribarrenek badu ebaluazio-irizpiderik. Erabili dituen item-en arabera, bereak eta bereak bakarrik diren ezaugarri-multzo batek karakterizatzen du euskalduna. Nola Hiribarrenek bereztasun-multzo horren jabe izateari ematen dion baliorik gorenena, gainontzeko giza taldeen balorazioa baliorik eskasenean gelditzen da. Ondorioz, euskal giza taldea da munduan merezi-mendurik handienak dituen.

Muin-muinean Hiribarrenen ebaluazio-irizpideetan aldaketarik ezari atxikitzen zaio baliorik gorenena. Euskalduna populurik zaharrena eta mendetako ibilbidean hastapenei eutsi diena da: hizkuntza eta sinesmen berbera gorde du. Aldaketarik eza hobesten duela oso agerikoa da: arbasoen azterketari eskainitako bertso-lerroetatik ateratzen den ondorioa da.

Beraz, aldaketarik eza / aldaketa ardatzera bildu duelarik giza talde baten ospea neurtzeko irizpidea, garbi dago zein giza taldek merezia duen mun-

duan osperik handiena. Osperik handiena merezi duen giza taldearekin bigabeki jokatzeko ari da *Eskaldunak* idazlanaren idazketaren orain aldia: nola liteke haur euskaldunek euskaraz irakurtzen ia jakin gabe mintzaira arrotzak ikasi beharra? Nola liteke haur euskaldunek frantses errege handien berri izatea frantsesek 1500 urteko antzinatasuna ere ez dutenean? Nola liteke liburu on guztia frantsesez egin egotea eta euskaraz sosik balio duen libururik ez egotea, frantsesa, beste hizkuntza baten ume baino ez denean?... Salaketaren oinarria bistakoa da.

Argien Mendea abian jartzeko jakintsuak iturri legez hartuz eta modu zientifikoan planteatuz *Eskaldunak* idazlaneko parte historikoa, ezaguera batzuk transmititzea bilatzen du. Lantegi horretan, kontatutakoa ebaluatzeko irizpideak ezartzeko eginkizuna bereganatuz, euskaldunak egoera bidegabea pairatzen duela jakinarazten du Hiribarrenek.

Juan Martin Hiribarrenen *Eskaraz eguia* (1858), erranak eta aforismoak

ALTZIBAR ARETXABALETA, Xabier

Euskaltzain urgazlea eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea

Sarrera data: 2011-II-11

Onartze data: 2011-VII-11

Lan honek J. M. Hiribarrenen (1810-1866) prosa eta esaerak aztertzen ditu, kritikariek gutxi sakonduak baitira. Erakusten du *Eskaraz eguiaren* (1858) xede apologetiko-didaktikoak XX. mende erditsuko laikotasun, antiklerikalismo eta ateismoaren indartzeari erantzun nahi diola, eta horrek esplikatzen duela eraso eta trufazko tonua, azalpen zorrotz-atsegingarria, euskara ulerterrazagoa (*Eskaldumac* poemakoa baino) eta estilo erreterikoa. Erran eta aforismoei dagokienez, zehazten du kopurua, motak eta gaiak. Eta adierazten kritikari eta atsotitz biltzaileak zorrotzegi jokatu direla Hiribarrenenak baztertu eta gutxiestean. Eranskinetan adibide ugari biltzen dira, esandakoaren erakusgarri.

Hitz gakoak: Euskal literatura, XIX. mendea, prosa, lapurtera, atsotitzak, aforismoak.

Este trabajo analiza la prosa y los refranes de J.M. Hiribarren (1810-1866), aspectos poco investigados por los críticos. Demuestra que el objetivo apologístico-didáctico de *Eskaraz egia* (1858) era responder al auge que el laicismo, del anticlericalismo y el ateísmo a mediados del siglo. Eso explica el tono burlesco y agresivo, la explicación de la doctrina de una manera severa pero también amena, un euskera más comprensible (en comparación con el poema *Eskaldumac*) y el estilo retórico. En cuanto a los dichos sentenciosos y a los aforismos, especifica cuántos son, de qué tipo y cuáles son los temas. En conclusión, el autor afirma que los críticos y los recopiladores de refranes han sido excesivamente severos al marginar y menospreciar a Hiribarren. En los anexos se muestran multitud de ejemplos de lo dicho.

Palabras clave: Literatura vasca, siglo XIX, prosa, labortano, refranes.

Cet ouvrage analyse la prose et les proverbes de J.M. Hiribarren (1810-1866) qui ont été très peu étudiés par les critiques. Il démontre que l'objectif apologétique-didactique d'*Eskaraz Egia* (1858) était de répondre à l'essor que connurent le laïcisme, l'anti-cléricalisme et l'athéisme au milieu du XIX^e siècle. Ceci explique le ton burlesque et agressif, l'explication de la doctrine d'une manière rigoureuse mais quand même agréable, un basque plus compréhensible (en comparaison avec le poème *Eskaldumac*) et le style rhétorique. En ce qui concerne les pensées et les aphorismes, il définit la quantité, le type et le thème. En conclusion l'auteur affirme que les critiques et les compilateurs de proverbes ont été excessivement sévères en écartant et sous-estiment Hiribarren. On en trouvera de nombreux exemples en annexe.

Mots-clés: Littérature basque, XIX^e siècle, prose, labourdin, proverbes.

This work examines the prose and sayings of J. M. Hiribarren (1810-1866), because little attention has been paid to them by the critics. It shows that the apologetic-didactic aim of *Eskaraz Egia* (1858) was to respond to the strengthening of middle 19th century laity, anti-clericalism and atheism, and this accounts for its aggressive, mocking tone, its rigorous and pleasant explanations, its more comprehensible Basque (more than that of the poems in *Eskaldumac*) and its rhetorical style. As regards the sayings and aphorisms, it specifies the number, type and subject matter. And it states that critics and compilers of proverbs have been too categorical when discounting and underestimating those of Hiribarren. Numerous examples are included in the appendices to support the assertions made.

Key Words: Basque literature, 19th century, prose, labourdin (Basque dialect), proverbs, aphorisms.

1. Sarrera

Juan Martin Hiribarren apaiz azkaindarra (1810-1866), XIX. mende erditsuko idazle oparo eta alderdi anitzekoa da: idazlea, hiztegiilea eta kantu-biltzailea. Hitz neurtuz *Eskaldunac* poema luzea argitaratu zuen (1853), bai eta *Montevideoco berriac*, Ameriketarako emigrazioaren kontra (1853); hitz lauz, erlijio liburu bat, *Eskaraz eguia* (1858). XX. mendeko azken hamarkadan argitaratu dira haren *Napoleon Lehena* poema historikoa (Pagola et al. 1994) eta *891an, eskaldunen gerla* drama (sasi)historikoa (Arbelbide 1991). Argitaragabe utzi zituen poema aski luzeak (*Laborariac* eta *Iruñeco Bestac.1845*, azken honen parte bat agertu zen Xahoren *Ariel* kazetan), hiztegia (Lhanderen hiztegiaren iturri aipatuetarik bat), eta erran zahar eta aforismoak. Hiribarrenek lapurteraz idatzi zuen, Xahoren adiskidea zen eta euskaldunen iraun beharraren kontzientzia zuen. Lhande, Lafitte, Altuna eta abarrek Hiribarrenen alderdi batzuk ikertu dituzte baina Hiribarrenen obra osoari buruzko ikuspegi orokorrik ez dugu oraindik. Mendeurren honek beste urrats bat egingo du egilea ezagutze bidean.

Artikulu honetan bi alderdi aztertuko ditugu, oso gutxi aipatuak. *Eskaraz eguia* (laburduraz EE) izeneko erlijio-liburu prosazkoaren (1858) xede, gai, eduki eta tonuaz gaingiroki jardun dute literatura kritikariek, halaber estiloaz. Esaerei dagokienez, Lhandek (1928, 1929) eta Lafittek (1979) Hiribarrenen kaierrei buruzko informazio laburra eman dute eta ezaugarri batzuk aipatu; Lhandek, 292 erran edo aforismo argitaratu ere bai. Guk alderdi hauek azalduko eta eztabaidatuko ditugu: *Eskaraz eguiak* literatura-kritikarien aldetik izandako harrera (2.1), zer liburu mota den edo zer xede duen, norentzako egina den eta zein tonutan (2.2.), egitura eta edukia (2.3.), testuinguru historikoa (2.4.), mintzaira eta estiloa (2.5.). Erran eta aforismoei dagokienez, zein kaier heldu zaizkigun eta zein ez (3.1); kaierren deskripzioa, erran edo aforismoen gaiak, motak eta berezitasunak atsotitz bildumekin konparatuz, bereziki Garaterenarekin (3.2.), eta azkenik, kritikariek eta atsotitz biltzaileek nola hartu dituzten eta ea benetakoa atsotitzat ote daitezkeen (3.3).

2. *Eskaraz eguia*

Kritikariek ez dute behar den zehaztasunez azaldu zer xedez egin zuen Hiribarrenen liburu hau. Gure ustez, egilearen helburutik abiatuta eta euskal irakurleagoa aintzat hartuta errazago uler daitezke mintzatzeko tonua, forma literarioak, egitura, edukia, testuinguru historikoan bete nahi zuen funtzioa, euskara moldea eta estiloa.

2.1. *Eskaraz eguia* Baionan argitaratu zen 1858an, apezpikutegiko inprimatzaile E. Lasserre baitan.¹ Ez du berriro argirik ikusi. Tamainuz, ez da luzea ez laburra, baina bien artekoa (153 or.). Hiru partetan zatitua da; guztira 53 kapitulu, bakoitza 2-3 orrialdekoak. Arretaz inprimatua da, huts gutxi baitu, dozena erdi bat.

Euskal literaturaren historialariek bakan aipatua da *Eskaraz Egia*; gehienek bizpahiru lerro baizik ez diote eskaini. Haboroxeak edukiaz zerbait esan dute. Esaterako, apologetika moduko lana dela iritzi zion Villasantek (1979, 2. ed.:166) eta hari jarraitu hainbatek (Sarasola:1970:113; Onaindia:1973:146; Mujika:1979:256); Lafittek ere apologia liburutzat hartuko zuen geroago, 1979ko artikuluan (185. or.). Beste batzuek erlijioaren historia dela iritzi diote (Lafitte 1941:51; Mitxelena 1988:131; Altuna *et al.* 1997:XII). Gure ustez, apologia da gehiago; apologia berezia, tonuagatik. Ordea, erlijioen historiatzat hartzea ez zaigu oso zuzena iruditzen. Erlijioen historiaz-eta ari den parte, liburuaren II. partearen erditsua baizik ez da; eta, gainera, ez da erlijioen historia, baizik Jainkotzat edo profetatzat hartuak direnen nolabaiteko istorioa, hau da, Jesusekin konparantza bat, bai eta haien jarraitzaileena kristauekin, baina trufazko eta mespretxuzko konparantza. Bestalde, euskal literaturaren historialariok ez dute azaldu zergatik eta zertako idatzi zuen liburu hau Hiribarrenen.

Hizkuntza moldeaz eta estiloaz ere gutxi idatzi dute. Lafittek dio neurritzez baino hobeki idazten duela hitz laxoz, eta ongi idazten duela. Urkizuk,

¹ Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan ale bat dago (Lacombe Biblioteka. Olaso Dorrea Sorrerakundea). Eskerrak bihurtu nahi dizkiet Josune Olabarrieta eta Nerea Altuna bibliotekariei, Hiribarrenen liburua eta eskuizkribu zenbaiten kopia digitala niri eskura jartzeagatik.

Eskaldunak (1853) baino arinagoa eta artifizialtasun gutxiagokoa dela *Eskaraz egia* (2000:340).

Eskaraz eguia transmisio urrikoa izan dela dirudi. Galdetzekoa da ea zenbateraino ezagutu duten literaturaren historialariek berek, hain lerro gutxi idazteko. Ez ote du horrenbeste merezi Hiribarrenek?

2.2. Badirudi bere oldez eta gostuz idatzi eta argitaratu zuela Hiribarrenek bere obra, ez inoren mandatuz; «Propriété de l'auteur, l'abbé J.M. Hiribarren» dio kanpoko azalean. Egileak beharrezkotzat jo zuen bere lana, gehituz «Ez duenak nahi ikusi gaizkia nausitzen, egin beza hobeki» (EE 155).

Liburuaren izenburuak apologia asmoa nahiko garbi adierazten du, are zehatzago sarreraren bukaerako pasarte honek (egilearen jatorrizko ortografian ezarriko ditugu artikuluko honetako testu guztiak):

«Gure herrietarat heldu da atze hainitz, eta heki darraikote asko haro gure artean nihoiz entzun etzirenac. Nahi nuke herritar bakhotchak yakitatez harmatu, hirriskua ethor orduco. Mintzaturen naiz eskaraz, erran nahi da garbiki, itzuliric gabe, nor nahi denec elenga nazaken bezala.» (EE XIII).

Artzainak bere artaldea zaindu nahi du kanpotik omen datorren arriskutik. Izatez, arriskua baino gehiago errealitatea zen; hots, jendea fede katolikoa galtzen ari zela, gazteria batez ere (EE 148). Hiribarrenek behin eta berriz seinalatzen ditu gaitzaren kutsatzaileak: «gure herritaco yakinec», «gure arteco yakin zenbaitec» (EE 58), hau da, jende ikasia. *Eskaldunac*en ere maiz dio badirela «guti batzuk», sinestegabeak edo behar ez bezalakoak (horietako bat Xaho, bere adiskidea). *Eskaraz eguiako* kapituluaren izenburuetara begiratu gero, ohargarri da 53 kapituluetatik 10etan *sinestegabe* hitza edo antzekoak ageri direla; bestalde, 8 kapitulu *gezurrezko* erlijioei buruzkoak dira.

Xedea nolako, tonua halako. Hedatzen ari zen gaitzaren sendabidea bortizki erasotzea zen, Hiribarrenen arabera:

«Garratza izanen zaiote hainitzi mintzaira hau, bainan ezagut dezatela chedeac. Hainitzen harmac ez dire trufa baizic egiaren contra. Casco arinek ez dute bertzeric elengatzen. Denbora galtzea liteke

heki, guizonei bezala, minzatzea. Beren harmekin izartu ditut, bazuetan hirriz eta bertzetan hitz gordinekin. Sistakoac mingarri atzeman detzakete; bainan yakin dezatela, onec mingarriago baizic ezdituztela atzematzen hekienak, hain errechki bici litezkelarik lazo, hertsiki eta beldurrez bici direnean. Aphez bezala gehiago yazarriren derautet: ezdakite zer den apheza! Oro yasan eta iretsi behar ditu, minic ez balitz bezala harentzat!» (EE 153).

Beraz sinestegabeei, Eliza katolikoaren dogmak eta apaizen nagusitasuna arriskuan jartzen ari zirenei edota erlijio guztiak onartzeko modukoak zirela ziotenei ihardesteko eta ihardokitzeko idatzi zuen Hiribarrenek *Eskaraz eguia*. Hori gauza berria zen; ildo horretatik etorriko ziren geroago Intxauspe eta M. Elizanbururen liburuak, *Eskualduna* kazeta, etab.

Euskaldun irakurleekin elkar aditzea bilatzen du Hiribarrenek, fedearen azalpenean labor eta zorrotz mintzatuz, etsaien kontra hizketa estiloa edo lagunarteko hitzak erabiliz, ironia, trufa eta sarkasmoaz baliatuz, farregarri utziz, are beztuz.

2.3. Esandako xede eta tonua egituran eta edukian azaltzen dira. Liburuak sarrera eta hiru parte ditu. Sarreran Hirutasun santuaren misterioa xehatzen du ondorengo hiru parteetan (Aitari, Semeari eta Espiritu Santuari edo Elizari buruzkoak). Orekatua da orrialde-banaketaz eta pasarte atsegingarriaz. Hiru parteen hasieretan lehen kapituluetan dotrinaren azalpena ematen du, prediku forman, baina alde idor hori irakurgai arin eta atsegingarriagoekin orekatzen daki egileak: I. partean istorioekin; II.ean, erlijioen hasleen egintzekin, III.ean sinestegabe eta besteri zuzendutako alegoria, trufa, solasturia bitxi eta mintzamolde harrigarriekin.

Edukien ardatza *on* eta *tzar*-en dikotomian datza, XIX. mendean euskal literaturan hain ohikoa baita. Esan gabe doa, *txarrak* dira Frantziako Iraultzaren aldekoak, juduak eta protestanteak. *Eskaldunaken* «nahastaileak», «gaixtagin sarea» etab. deitzen ditu (ik. P. Altuna *et al.* 67, 95).

I. partean fede katolikoaren oinarriak zein diren azaltzen du: «lekhuco aguintza guertatuac, miraculu agueriac, Christori agur eguin dion mundua, Elizaren iraupena hemezortzi ehun urthez» (EE VIII. I. Partea). Azalpenaren lagungarri, argumentazio funtzioko 27 istorio labor kontatzen ditu, ba-

tzuk serioak, beste batzuk irigarriak (liburuan orotara 36 istorio labur eta zenbait alegoria luze biltzen dira). Aipua ere franko dira, antzinako klasikoenak nahiz modernoagokoenak (Seneka, Zizeron, Epitekto, Galiani, Robespierre, Voltaire etab.).

II. partean Jesusen Jainkotasuna erakusteko, Jesus konparatzen du Buda, Mahoma, Lutero eta abarrekin; konparantza hau egitean, Hiribarrenen lumari maltzurkeria, trufa eta mespretxua dario (egun ez luke graziaz): Brahma, «zer puticoa» (EE 58); Buda «caprestu gabeco aberea» (EE 65); Konfuzio «chimino bat» (EE 69); Mahoma «ez Yainko ez profeta» (EE 78), Koran «buru eta buztan gabea» (EE 78), «ergelkeria dario» (EE 84-85). Ordea, «Bertzela kilikatzen dituzte bihotzac eta llulluratzten izpirituac Ciceron, Virgilio, Demosthenes, Bossuet eta Massillonec» (EE 84). Testuen artean, hunkigarria da Buddak nola tratatu dituen emakumeak erakusten duena (EE 64); deskripzio gogor baten ondoren dio:

«Buddac eman du emaztea neskatoac baino areago; Christok erakusten du handitasun bera dutela guizon eta emazteac, elkarren lagun direla. Buddaren emazteac tetele batzuec dire; Christorenac, etheco aingueruac. Buddaren hitz eta eguintzec erakusten dute hoberenerat ere guizon bat zela; Christorenc, Yainco zela.» (EE 66).

Egileak bere alde ekartzen ditu Origenes, Tertuliano, Justino, Augustin, Fenelon, Bossuet» (EE 52). Ez du onartzen beste erlijioen zilegitasuna, dogmatikoa da.

Erlijio katolikoaren ikuspegi inperiala darakusan II. parte hori Napoleon I.aren fedea gorai patuz hesten du Hiribarrenek, hain zuzen ere. Jakina denez, Hiribarren haize alde ibili zen: II. Errepublikaren alde jarri zen 1848an baina laster bilakatu zen bonapartista edo Napoleon III.aren aldekoa. L. L. Bonaparte dialektologoarekin harremanak izan zituen, hari opatu zion *Napoleon Lehena* poema (1856) honela hasten da: «Mintzo naiz guizon batez higana gorarat, / Beharrez egorria Yaincoac lurrerat, /(...)». Napoleon I.a autoritate bat zen Hiribarrenentzat: haren aipua eta istorio laburrak ugarriak dira liburuan.

III. partean sinestegabeen erakuspenak zein diren azaltzen du: libertatea (EE 121-122), gozamena bilatzea (EE 122), kontzientzia askatasuna (EE

129). Antropologoak jakintza mespretxatzen du (EE 123), haien kontra mintzaraziz Euler, Leibniz, Kepler, Bossuet, Fenelon, Newton, Malebranche, Descartes, Bacon eta Augustin (EE 124), guztiak XIX. mendea baino lehenagokoak.

Bulunbak deitzen ditu jaun handi eta jakintsu sinestegabe horiek, artaldean bulunba edo joarea darabiltenekin konparatuz, ondotik osteak erakartzen dituztelako. Bai eta *huntzak*, «oro ifrentzikaturik edo gaizki zaizkotelako argitan» [Elizaren argitan] (EE 141), hitzaren irudizko adieraz baliaturik («sineskor»). Ironia eta trufa eta sarkasmoz beteriko kapituluak dira «Bulunbac» (XVIII.a) eta «Huntzac eta bulunbac» (XIX.a) .

Sinestegabe jakintsu ustekoak nolakoak diren deskribatzen du: aberatsak, mundua ikusi dutenak, ikasiak (abokatu, kazetari, mediku, agronomo..., gainera ikasketa berezidun gehienok sinestegabeak eta Elizaren kontrakoak omen dira), ongi apainduak, gizarte-harreman handikoak, errazki mintzo direnak eta besta, komedia eta atsegin guzien zaleak (EE 134-135). Sinestegabea izatea modan zegoela dio, «askok urgulu zoro batez egiten baitute sinestegabearena» (EE 52). Hona pasarte bat, garai hartan Eliza katolikoak gogoko ez zituen jakintsu batzuen deskripzioa egiten duena, haien ideiak eta erlijio katolikoarekiko jarrera maiseatuz baina nor diren aipatu gabe (lehen Renan dateke, bigarrena Lamennais):

«Dugun eguin Pariserainoco bat, eta entzun dezagun hango eskola emaile handi bat. Kopeta cimurtua du, bichta laburtua; horra non den aldagarri ferde batean hetsia bere bizkar chorrotcha. Hartzen ditu miserac, eta ezartzen dituelaric sudurraren bizcarrean, dio: Eliza akhabo da; Yesus guizon bat zen bertzeak bezala! Entzuten dute hori Paris eta Franciaco yaun gaztec, eta onhesten, erranez hec ere Eliza akhabo dela! Nihoiz ezda izan predikari, anaia, serora, othoitz, cobesio, comunione, caritate gehiago; bainan Eliza akhabo da; hala dio nausiac, hala diote aditzailec: Zenbat bulunba!

Bertze nausi bat altchatzen da, kapa urdin bat bizkarretik, zurchuria bezain luzea, bakailaua edo chotcha bezain idorra, mintzoz coloka, chingola leptic yarian, dioelaric: Ebandelioa behar da ukitu, aphaindu, eman ororentzat on den bezala! Gauza bera adirazten dute aditzailec, eskuac yoz eta marrumaz: Catolico nahi direlaric, yakinak

Christo Yainco dela, eta haren hitz bat baino lehen yoanen direla cerua eta lurra: Zenbat bulunba!

Mendia bezalako guizon bat, mustarda gorri, ihurtzuriac bezain larriko orro batekin, hasi da erakusten: ez ditu nihorc eguin gauzac, berac eguin dire! Gauza bera adirazi dute ehun mila hartz bulharrez hantuec. Beraz Murillo gabe eguin dire erretabla bortz ehun mila liberacoac, hezkurric gabe haitzac, aitaric gabe semeac, nolatsu gorringoac haitz azpitan: zenbat bulunba!

Nausi batec erran du, izkiribatu ere: guizonac mekanika dire, machina bat, haize erroten anaiak, turnabrochen ahaideak, atabal bi aldetarik cilhatuac barnean errotekin, bi zangotaco arrain iledun eguinac, sorthu direnetic hogoi menderen buruan! Gazte beroec agurtu dute erakuspen hori oihuz, zalapartaka, yauziz, ostikoka, Waterloo guziac ahantzazten zituztelaric gasailan: zenbat bulunba!

Yaun chahar bat, churiraino irindatua, yabota handi-larri bat paparoan, mantchetac esku-muthurretan, zapatac burlekin, mintzatu da hulatsu: bada izate handi bat, bainan yaun handiegia baita, lo eguiten du gauaz eta erreguerena egunaz. Arthiki du lurra eremuetan, chori edo untzi guider gabe bat bezala: Guero antola hor! Hori aitzean, Frances yaunen erdiac abiatu dire, chapelak eskuan, chiminoac iduri, itzulika eta yauziz, ezartzen zutelaric ikhaspena buruco alderdi hazkarrean, ahantz beldurrez, eta eguiten dute dioakotena, badakitelacotz geroztic Yainkoac ez duela nihortaz acholarik. Lo eguiten du, eta arte hartan, badioaz ohointzarat, ezpatarat, lohikeriarat, piztoleerat, ura behera, pozoatzerat: zenbat bulunba!» (EE 136-138).

Hiribarren apaizaren adimenak ere bazituzkeen bere zalantzak, baina horien aurrean Eliza katoliko ofizialaren aholkua segitu behar dela dio:

«Ene izpirituac hurbil ditu cedarriac, eta denetan ere baditu lanbroac; bainan sinhesteaz doanean, hedoi guziac behar dire suntsirazi. Eliza ez bada egia, ez da aphez beharrik; bainan eguia bada, nornahic behar du entzun haren errana. Elizac hertsatzen ditu jauirak, galdeetzen eginbide zenbaiti ez dioazkotenac; eta horra zertaco dioten ez ditekela guizonentzat. Ezda aski erran dezaten: nola hartu du bada lurrean, nola lehiarazi ditu haurrac bere ganat?» (EE 149).

2.4. Ageri denez, *Eskaraz eguia* bere garaiaren lekuko da. Gizarte aldakuntza, borroka politiko eta ideologikoak, zientzien asmakizunen oihartzunak nabari dira. Makinak eta balonak agertzen dira liburuan, orduko jakintsuen harrotasunaren erakusgarri (EE 138). Pentsamendu joera nagusiak espreski edo zeharbidez aipatuak dira (arrazionalismoa, positibismoa, ateismoa, materialismoa, mekanizismoa). Urte haietan argitaratu ziren zenbait intelektual ospetsuren obrak: Jules Simon-en *Le Devoir*, Renan-en *Vie de Jésus* (1862), Darwin-en *Espezieen eboluzioa* (1859) etab. Laikotasuna indar hartzen ari zen 1830tik aitzina, eta harekin, antiklerikalismoa; apaizei ausikika ari direla maiz ageri da, hala *Eskaldunacen* («Apezak», Altuna *et al.* 95) nola *Eskaraz eguiari* («Ez naiz mintzatu azken erregueren hertzeaz azken apezka urkhatu nahi zukenaz. Badut hura gabe aski (...)», EE 127). Liburua argitaratu eta laster, Elizaren erreakzioa nabaritutako zen, Lurdesko erromesaldiekin (1862tik aitzina), *Quanta cura* enziklika eta haren *Syllabus* eranskinarekin (1864), bai eta Vaticano Eliz Batzar Nagusiarekin (1869-1870). Baina gizarte aldakuntzek laikotze prozesua lagunduko dute: laborarien pisua –katolikoaren oinarri soziala– gutxituz joango da hirietako burgesiaren onetan, irakaskuntza publikoa zabalduko da, eta 1872az geroztik bortxazko soldadogoia ezarriko.

Eskaraz eguia Napoleon III.aren eta Frantziako Elizaren arteko eztialdian idatzia eta argitaratua da; garai hartan Eliza katolikoa zinez hazi zen. J. Intxaustik dioenez, «inperioaren edergailutzat behar zuen Eliza Napoleon III. ak» (Intxausti 1972:24). Hain zuzen, hurren urtean, Erromako auziarekin, enperadorearen eta Eliza katolikoaren harreman onak hautsi ziren. Fedea eta aurrerapena binomioaren aurrean, «katolikoek ez zuten behar zen zientzia prestaerarik» (ib. 29), «Jakitatez urri eta mirakuluz (sic) oparo bizi zen Elizak ez zuen erarik gizarte-giro berri haretan murgiltzeko.» (ib.).

2.5. Gaiak eta tonuak irakurleak ulertzeko moduan mintzatzea, bai eta garrazki ere, galde egiten zion Hiribarreni. Horregatik, beharbada, liburu honek ez ditu *Eskaldunaceko* hizkuntza-ezaugarri asko, bereziak edo agramatikalak direnak (Altuna *et al.* 1997:XXI eta ond.); batzuk liburu honetan noizean behin baizik ez dira ageri: esaterako, artikulua ezabatzea («Ez du eskas ahal eta argi», EE 41).

Hala ere, Hiribarrenen prosa zaildu egiten du zenbait joskerak, noizbehinka ageri direnak. Esaterako, aposizioak, erlatibo perpausetan gertatzen delarik: «*etche bi alde direnac erortzen dire.*» (EE 110). Edo *inversio* delakoak: «*Guizonec sobera eskas zuten maitarazteco bere buruen: (...)*» (EE 94). Edo hiperbatonak: «*hari erakusteco gure amodioa lehenbico eta hoberen aitari bezala.*» (EE 34). Eta batez ere haren hiztegi garbiak (hitz teknikoak ere euskal errokoak nahi ditu, batez ere atzizki jakin batzuekikoak), joriak (izen, adjektibo edota lokuzioetan) eta bereziak (hitz bakanak edo asmatuak ugari dira, DGV-OEHn Hiribarrenen adibideak baizik ez dituztenak, adib. *elengatu* «ulertu»). Euskara dudarik gabe oso iturri onekoa du, tradiziokoa, herriaren ahokoa, aberatsa (oroit hiztegi bat egin zuela), apaina eta irudiz betea.

Prosa erretorikoa da liburu honetakoa. Tonuak (batzuetan garratza, beste batzuetan irrigarria) eta elokuzio formak (predikuak edo azalpenak eta kontakizunak) aldizkatzen dakiena. Forma horietako bakoitzak bere gisako esaldi-taxuketa eta erritmoa du. Tresneria erretoriko aberatsa baliatzen du egileak: anplifikazioa, akumulazioa eta errepikapena (antitesia, sinonimia, paralelismoa, anafora, epifonema), irudiak (konparazioak, alegoriak –ik. EE 129-134, 145-146, 149-151–), dialogismoa edo alegiazko hizketak.

Bariazioa dago egituretan eta hiztegian (hizkuntza-maila gorako hitzak, hitz tekniko euskal errokoak, lagunarteko mailakoak edo hitz konnotatiiboak). Prediku edo azalpenetan lehenik sententzia bat edo bizpahiru esaldi agertzen dira eta ondoren 3-4 uhin paralelistiko, bertsoleroak bezalakoak, joskeraz eta silaba kopuruz berdintsuak. Erritmo bizia eta latza ageri da prediku edo azalpenotan: paragrafo luzea eta esaldi laburrak, perpaus juntatuak (batzuetan juntagailu gabe) eta mendeko perpaus gutxi, eta galderak zirt-zart etengabe. Laburtasuna eta sententzia estiloa dira ezaugarri nagusiak. Baina, bestalde, konparazioetan hedatua da eta hitz-jario harriarrikoa ere bai.

Estilo landua eta ahozkoa elkartzen ditu Hiribarrenek. Uste dugu liburu honetako tonuak eta estiloak izan duela eraginik: esaterako, J. Hiriart-Urrutiren artikuluetan (laburtasuna, sententzia estiloa, artikulua ezabatzea, *inversio* eta hiperbatonak...).

Laburbilduz: liburuaren izenburuak eta egilearen adierazpen espresek garbi adierazten dute liburuaren xedea: erlijio katolikoaren eta, batez ere, Eliza katolikoaren apologia egitea eta beste erlijioei eta atoei ihardokitzea; asmo horrek darama egilea etsaiei begira irriz, trufaz edo gordinki mintzatzera eta irakurle euskaldunei begira dotrina modu zorrotz baina atsegingarrian –istorioen bidez– azaltzera, liburuaren egitura eta forma literarioak orekatuz. Aipatu xede eta tonuari dagokie liburu honetako euskara «errazagoa» (*Eskaldunacekin* konparatuta) eta estilo erretorikoa, bai eta georogoko idazle zenbaitetan egileak utzitako arrastoa.

3. Erranak eta aforismoak

Hiribarrenek erran eta aforismo ugari idatzi zituen eta ondoan frantses itzulpena ezarri, baina ez zituen argitaratu. Lhandek eta Lafittek jaso zituzten, Hiribarrenen gainerako eskuizkribuekin batera, eta haien berri laburki eman, bai eta iritzi batzuk agertu haien balioaz (Lhande 1928:394-405; 1929:81-95; Lafitte 1979:184-185). Guk hemen berri zehatzagoak emango ditugu transmisioaz, eta azalduko dugu zein kaier heldu zaizkigun eta zein ez (3.1), zer erran eta aforismo mota diren eta zenbat (3.2.), bai eta eztabaidatuko Lhande eta Azkueren iritzi erabatekoa eta, ondorioz, biltzaileen jokaera Hiribarrenen erranei buruz.

3.1. Lhandek dio hiru kaier («carnet») zirela Hiribarrenen familiak gordezen zituenak: 1) «Laborarien erran zaharrak». 2) Higiene-aforismoak. 3) Erran zahar eta zuhurren, hau da, «aphorismes proverbiaux et aphorismes sapientiaux» direlakoen sorta bana (1928:394). Hark berak bi multzo argitaratu zituen, hautu bat eginez: «aphorismes sapientiaux» direlakoetatik 123 (ez dakigu zenbat ziren multzo honetakoak, kaierra desagertu bide delako), eta «Erran zahar» edo «Aphorismes proverbiaux» direlakoetatik 169 (330 dira guztira multzo honetakoak). Orotara 292 argitaratu zituen eta segitzea hitzeman, agian egunen batez osorik publikatu zituela esan (1928:396) eta «À suivre» jarri zuen bigarren multzoaren hondarrean (1929:95). Baina ez zuen gehiagorik argitaratu.

Hiribarrenen eskuizkribuak Lhanderen eskuetatik Lafitterenetara pasatu ziren. Lafittek dio bi kaier zirela (1979:184-185), beraz ez hiru, Lhandek

dioen bezala: 1) «Laborarien erran zaharrak», 127 or. 2) Higiene-aforismoak eta aforismo proberbialak. Ordea, «Aphorismes sapientiaux» izenekoak Lafittek ez ditu aipatzen, eta Lafitteren bildumaren kopia bat heldu baita Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekara Andiazabalen eskutik, guk ere ez ditugu ikusi. «Aphorismes sapientiaux» horien multzo hori (Lhandek aipatu hirugarren kaierra edo kaier horren parte bat) desagertu bide da; zorionez Lhandek, hautu bat eginez («un choix d'aphorismes sapientiaux»), 123ko multzo eder bat argitaratu zigun. Lhande eta Lafitzez gainerako euskalariek Hiribarrenen erran eta aforismoak ezagutzeko aukerarik ez bide zuten izan, ezta bere herrikide J. Elissalde ere (1936), dirudienez, ez baitukete haren atsotitz, zuhur-hitz eta erran zaharrek Hiribarrenen itxura handirik.

3.2. Hiribarrenenak zer erran edo aforismo mota diren azaldu baino lehen, Azkue Bibliotekaren kopian daudenak deskribatuko ditugu (ez dakigu zuzen, ordea, Andiazabalek Euskaltzaindiaren eskuetan utzitakoen kopia fidela eta ordena bera errespetatzen duena ote daukan Euskaltzaindiak). Hasteko, esan behar dugu datarik ez dela ageri kaierreran eta ez dugula aztertu noizkoak izan daitezkeen.

3.2.1. Lehen kaierrekoak: «Laborarien erran-zaharrak. Proverbes agricoles» (LEZ laburduraz aipatuko ditugu). Jakingarria da Hiribarrenek lehenik «Eskalherrico laborarien erran-zaharrac. Proverbes agricoles de l'Euskarie ou Pays Basque» ezarri ziola izenburu eta gero «Eskalherrico» eta «de l'Euskarie ou Pays Basque» ezabatu zituela (*Euskarie* forma erabilia ote zen frantsesez Hiribarrenen garaian ala hark berak asmatua ote?). Lehen kaier hau 71. orrialdera arte zenbatua da (ez dakit nork, Hiribarrenek ala besteren batek) eta handik aitzinako 58 orrialdeak zenbatu gabe daude (azken biak hutsik). Orotara, 123 or. eta 732 erran zahar, azken bostak «Mirikuntza, médecin» izenburukoak –2. kaierraren sarrerakoen antzekoak–, guztiak frantses itzulpenarekin, hori ere errefrau gisa moldatua, errimarekin. Erran guztiak edo ia guztiak errima bereko bi zati edo partez osatuak dira.

Hiribarrenek 8 atalen pean kokatzen ditu laborarien erranak (nahiz tarteka orotarikoak dauden). 1.a, aroa: urte, egun, goiz, eguzki, uda, negu, horma, harri, elur, ihurtzuri, euri, santu-santen egun, mahasti, ira-

tze, inaurkin, ildo etab. (LEZ 1-262). 2.a, tresnak (LEZ 263-272). 3.a, lanak: lur-mota, ongarri, hazi, ereintza, belar gaizto, ogi-jotze, hauts, erretze, kisu, igeltsu; jende- eta abere-ongarri (LEZ 273-391). 4.a, aziendak (LEZ 393-433). 5.a, soroak «zelaiak» (LEZ 434-475). 6.a, ur-xirripa eta ihinztatzeak (LEZ 476-497). 7.a, arbola, mahasti eta baratzeak (498-539): arbola landatze (517-534), adar-mozte (535-539), txertatze (540-552, mahasti (553-595), baratze (596-609). 8.a, etxeak: sala, heia, selauru, soto, barroki (LEZ 610-629), administrazio edo ekonomia aholku, tresna, etxe-gizon, bordari, morroi, loti edo alfer (LEZ 630-727), mirikuntza (LEZ 728-732).

«Laborarien erran-zaharrak» direlakoetan mota desberdinekoak bereiz daitezke xedearen arabera:

1. Irakaskizunak edo aholkuak, laborarien jakintzari dagozkionak. Halakoak dira aroei, pentzei edo arbola eta mahastiei buruzko asko (1., 5., 7. ataletakoak). Ugariak dira. Ik. Eranskinak 1 (laburduraz Er.1), LEZ 448, 503, 535, 570, 619.
2. «Zuhur hitz» gisakoak, «aphorismes sapientiaux» direlakoan antzekoak. Halakoak dira laborantzari buruzko asko eta asko, adib. 1., 2. eta 8. atalekoak (ekonomia aholkuak). Ik. Er.1, LEZ 77, 661.
3. Moralak, horietako batzuek morala eta ekonomia elkartzen baitute. Ik. Er.1 LEZ 228, 716. Erliziozkorik ez dago, ordea.
4. Ideologikoak, adib. laborariei buruzkoak. Ik. Er.1 LEZ 177, 694, 716.

Gai, eduki eta motak G. Garateren bildumakoeekin (Garate 1998, laburduraz G) gaingiroki konparatuta –harena baita errefracuategi orain arteko osoena–, Hiribarrenen erranen berezitasunak agertzen dira. Alde batetik, gai edo eduki berriak, edo behintzat Garateren bilduman nekez edo askoz hurriago azaltzen direnak: santu-santa jakin batzuen aipamenak, aroei lotuak (ik. Er.1 LEZ 138, 139, 142); liburuei buruzkoak (LEZ 195-198, Gk bakarra; ik. Er.1 LEZ 198.); emeki xuxentzeaz (LEZ 201-202), ikuste edo esperientziaren balioaz (LEZ 205, 207); tresnez (LEZ 263-272; Gk gutxiago), onkailu eta ongarriez (LEZ 293-296 etab., ugariak baitira; ordea, Gk bakarra zimaurrez, bat ere ez ongarriaz), aziendez (LEZ 393-43; askoz

gutxiago Gk), soroez (gutxi Gk), ihinztatzeaz (bat ere ez Gk); laborariak biltzearen beharraz (LEZ 483-486), ik. Er.1 LEZ 484, 485; arbolez eta arbola-landatzeaz, adar-mozteaz, txertatzeaz (LEZ 540-552; Gk bakarra), mahastiez, baratzeaz, etxeko sala, heia, selauru, soto, barroki eta abarrez, azpikoak eta mutilak eztiki ibiltzeaz eta soldata pagatzeaz (Ik. Er.1 LEZ 694, 720).

Beste alde batetik, Hiribarrenen erran «erdi-teknikoak» edo instrukziozkoak gehiago dira Garaterenean baino, eta ez dira falta gizarte-gaiak edo eduki sozial, moral edo ideologikoa dutenak (askotan gauza bertsua Hiribarrenen aburuz). Garaterenean, ordea, gutxi dira irakaspenera edo aholkuak, gutxi halaber ideologikoa edo moralak. Zuhur-hitzak ugariak dira, noski, batoren nahiz bestearen erretrauetan.

Zertako bildu edo hark berak sortu ote zituen Hiribarrenek, zertako osatu bilduma kopurutsu hori? Nekazaritza irakasteko eta aholkuak emateko? Bada erran bat hori pentsarazten duena: *Artzain ona ez unhatzen / laborarien argitzen* (LEZ 182). Duda gabe, Hiribarrenek irakurleak (laborariak) ditu buruan (LEZ 11 «Pour toi, lecteur et pour les tiens»). Garai berean Duvoisinnek elkarriketa bidez bezalatsu (*Laborantzako liburua*, Baiona, 1858) nahiko zuen Hiribarrenek erranen bidez irakatsi, haiek publikatuz. Hiribarrenen bide beretik ibiliko dira almanakak.

3.2.2. Bigarren kaierrak aforismoak biltzen ditu. Orotara 55 orrialde eta 600 aforismo eta erran dauzka (lokuzioak barne). Gaiaren arabera, bi parte bereiz garbi asko bigarren kaier honetan: 1. Medikuntzari buruzko aforismoak. 2. Erran zaharrak. Azken hauei egileak «Erran zaharrak» ezartzen die izenburua euskaraz, «Aphorismes proverbiaux» frantsesez (ik. bigarren mota hau 3.2.3. puntuan).

Lehen partean edo medikuntzari buruzko aforismoetan, bi azpi-atal bereiz daitezke: 1. Medikuei eta medikuntzari buruzko sarrera. 2. Higiene-aforismoak. Medikuei eta medikuntzari buruzko sarrera lehenik frantsesez dago, hitz lauz, «Médecin» izenburuarekin (M laburduraz), eta ondotik euskaraz, hitz neurtuz. Frantsesez 8 orrialde, tarteka pare bat aforismo, bata frantsesez eta bestea euskaraz. Ondoren euskaraz 3 orrialde, frantsesezko sarrerako eduki bera 30 aforismotan (azkena, frantses itzulpenarekin).

Hiribarrenek medikuen materialismoa gaitzesten du:

«Nos medecins, avec leur anathomie pathologique, sont devenus matérialistes; ils ne s'occupent que des phénomènes de décomposition, de putréfaction & de morte, c'est-à-dire que'ils ne voient que la science du cadávre.» (M 3).

Bere alde aipu ugari ekartzen ditu, horietako franko medikuntzako doktoreenak: 118. Salmoa, Hipokrates, Bacon, Montaigne, Molière, Léon Simon, Frappart, Broussain, Fontenelu, Droz, Boerha(a)ve (bi aldiz), Dumoulin, Bichat, Rostan, Munarit, Libert, Audin-Rouvière, etab. Hiribarrenek makilaz jotzen ditu bere garaiko mediku-praktika (Europako medikuntza eskoletan nagusi zena) eta farmakopia:

«Egic bide, ez diat hire beharric,
Hilarazi duc aski bizi beharretaric,
Eta bat ez bizarazi hiltzeoetaric.»

Lafittek dio medikuntzaren kontrako panfletoa dela. Ez dugu ukatuko: ikusi besterik ez dago 2.1. Eranskinean, M 1, 2, 5, 6, 7, 12, 21. Baina, funtsean, satira bat da. Izan ere, Hiribarrenen arabera, medikuntzaren praktikak aforismoak sortarazten ditu, esperientziak eta zuhurtziak aginduta. Bere maiseoak gorabehera, medikuekin ez dela etsai izan behar diosku, hobe dela haien aginduak betetzea, menturaz on egin baitezakete «iturriko ureko medikuon» erremedioek.²

Higiene-aforismoek («Aphorismes hygiéniques», AH laburduraz) 72 orrialde betetzen dute; guztiek dute frantses itzulpena. Bi sorta dira. Lehen

² «Les poètes, les philosophes et tous les écrivains satiriques ne se sont pas fait faute de plaisanteries contre la médecine et les médecins; leurs coups n'ont pas toujours porté à faux sur ceux qui font métier de guérir; et nous pensons que la pratique médicale et ses résultats donnent aussi, au fond, ample excitation à l'enfantement d'aphorismes; mais ceux-ci sont surtout dictés par la sagesse, l'expérience, la prudence. Concluons que, toutes choses bien examinées, qu'il y a plus de profit à vivre, en bonne intelligence avec les médecins que de les avoir pour ennemies; qu'il vaut mieux encore exécuter leurs ordonnances, dussent-elles ne rien offrir de salutaire, que de négliger le bien qui peut provenir d'un hasard heureux dans les prescriptions; qu'enfin il est plus sensé de sentir la guérison que de s'abandonner au mal sans le combattre. Après cela, bouche close, et ne considérons point comme un attaque bien grave cette qualification de médecins d'eau douce, que l'on donne aux docteurs dont les remèdes n'ont pas plus d'action pour le bien ou le mal, que l'eau pur d'une fontaine.»

sortak 133 aforismo dauzka (egileak berak zenbatuak). Hipokratesen aforismoak edo haren aforismoetatik moldatuak dira, dirudienez; hori ematen du aditzera «Médecin» sarrerako 29.ak (ik. Er.2.1, M 29), baita sortaren bukaerako iruzkinak (ik. beheraxeago).

On da ohar bat egin dezagun aforismoez. Aforismoa deritzo, arruntki, epai edo sententzia labur eta dotrinalari, zientzia edo arlo jakin bati aplikatzekoa denari. Jakintsuek, filosofoek eta idazleek aforismoak sortu zituzten. Erretorika liburuetan, aforismoen sortzaile eredugarrien artean, Hipokrates eta Salernoko Eskola aipatzen dira, eta hain zuzen haienak itzultzen edo moldatzen ditu euskaraz Hiribarrenek.

Gai eta edukiei dagokienez, lehen sortako aforismo hauek batez ere gaitzen sintomak deskribatzen dituzte («berri/seinale txar/on»): janari, betedura, husdura (AH 1-17), goitiko «vomitif» eta beheitiko «purgatif» (AH 20-26), odol-ixurtze (AH 27-28), erreberi «délire» (AH 34), ikara eta sukar (AH 41-42), gauza bero eta hotzen ondorio (AH 44-50), asma (AH 51), hetika «phtisie» (AH 52-55), punta «pléuresie» (AH 58), sabel husdura edo kakeria (AH 60-62), horitza «jaunisse», «ictère» (AH 64; *horitza* hitza ez da ageri OEHn), zotina (AH 65), ezdul, bare-min (AH 68), sukar ero «frénésie» (AH 69), emazte izorrari odol ateratze etab. (AH 70-71), gazte-zaharren gaitz (AH 78-79), gaitz eta aro (AH 80-100), sukar (AH 105-119), ikara eta min (AH 120-121), unadura (AH 124-125), handitsu eta erisipela (AH 129-130), hezurretako min (AH 131), eritasunak lehen eta orai (AH 133). Ik. hauetariko zenbait Er.2 atalean. Ohargarri da gaitzen euskarazko izenak generikoak direla eta frantses itzulpena, librea den arren, askotan zehatzagoa dela euskarazkoa baino.

Hiribarrenek Hipokratesen medikuntza bere garaiko medikuen praktika-ri kontrajartzen dio. Sortaren bukaeran hona zer dioen:

«Lehen etziren eritasunac
 Orai bezala eramanac.
 Etzen gorphutza bethetzen
 Sendakai dutenez erretzen.
 Hipocratec maite gorphutza,
 Harec laguntzen zuen mirikuntza.

Horren egitea hoberenic edozeinec
Nahiz Argien ondotic dabiltzanec.» (AH 133).³

Bigarren sortako aforismoak Salernoko Eskolakoena dira («prescriptions hygiéniques de l'Ecole de Salerno»); PHES laburduraz izendatuko ditugu. Frantses itzulpena neurtitzetan egina da, errima parekatu nahiz besarkatuekin.

Honela aurkezten ditu Hiribarrenek:

«Voici des prescriptions hygiéniques de l'Ecole de Salerne. Ce sont des preceptes qui ont passé en maximes, et en proverbes. Quelques uns des remèdes indiqués sont depuis longtemps éprouvés. Si les autres ne produisent pas toujours les résultats promis, ils ne sauraient du moins nuire, ni ruiner le malade, et c'est un point capital.» (45. or.).

Salernoko Eskola Erdi Aroan sorturiko Medikuntza eskola da, garai hartan ospetsua Europan, Napoleonek hetsia 1811n. Eskola horrek aforismo eta neurtitzen bidez zabaltzen zituen bere aholku arrazionalak, modu argi, labor eta praktikoa, autoritate, magia eta astrologiaren eraginik gabe. Eskola horren jarraibideak agertzen dira Hiribarrenen higiene-aforismootan.

Salernoko Eskolako aforismo hauek zenbatu gabe daude. Gaika zenbatu daitezke, edo errimaka (hau da, errima bereko bertso-lerroek unitate bat osatzen dutela), edo puntuazioaren arabera (puntutik puntura aforismo bat), baina aforismoak bereizteko irizpideok garbiak ez izanik, geure erara kopuratu ditugu, hiru irizpideak aintzat hartuz. Hortaz, 107 kontatu ditugu. Ohargarri denez, aforismo gehienak errima bereko 4 bertso-lerrokoak dira, baina batzuk laburragoak (2, 3) eta beste batzuk askoz luzeagoak (5, 6, 10, 15, eta luzeena, azkena, 38koa, gaitz arriskutsuen sintomen deskripzio xeheekin).

³ Honela itzultzen du frantsesez: «On a pu de convaincre, par ce qui précède et par les (quelques) prescriptions indiqués par Hyppocrate, que sa méthode est des plus simples et des plus compréhensibles; qu'un abîme la sépare de la pratique due aux progrès de la science, qui fait de notre corps un véritable laboratoire de chimie. L'oracle de Cos attendait beaucoup plus du effort de la nature que de ceux de l'art médical, et c'est ainsi que doit penser tout homme raisonnable, même ayant recours aux lumières des savants.»

Salernoko Eskolako aforismoon gai eta edukiak azal ditzagun. Alde bate-tik, dieta eta higiene aholku orokor batzuen ondotik (PHES 1-11), honako janari hauek zertako edo noiz diren on eta noiz ez: janari azkar, arrain, ilar, ahuntz esne, burra, gazur, arrautza fresko, salda gizen, ogi, ardo, gazta, udare, gerezi, mertxika, aran, piku, mizpira, ozpin, bihozki, mihi, bularki, anis, ha-ragi gazitu, aza-ur, malba, sabuka «intsusa», kipula, mustarda, asun, kreson «fr. cresson», sahatz-ur, azafrai, porru, piper (PHES 12-58). Bestetik, gaitzak eta gaitzen sintomak, preskripzioak eta erremedioak: belarrietako burrunba, bozen keldar, mafrundi, buruko min, udako bainu, odol-ateratze, erien arta-tze, beheitiko, bixikatore, aiuta «lavement», xintximari, bainu, lo, kontrapo-zoin, pertsona ito, bapoz hats galdu (asfixia), pertsona odoltsuen eroriko (apoplexia), flakeza «syncope», gorputzeko alderdien bihurtura, txakur erra-biatuen ausiki «hydrophobie», sudurreko odol jario gelditze, erredura, gaitz arriskutsu eta hilkor (PHES 59-107). Ik. horietako zenbait: Er.2.3.

3.2.3. Bigarren kaierraren bigarren partea «Erran zaharrak» edo «Apho-rismes proverbiaux» direlakoek osatua da (EZAP laburduraz izendatuko ditugu), guztiak frantses itzulpenarekin. 38 orrialde dira. *Erran zahar* edo esaera horiek ez daude zenbatuta; guk 330 zenbatu ditugu. Atsotitzak eta lokuzioak dira (lokuzioak hizkuntzaren sistemako unitateak dira, baina ez dira enuntziatu osoak, errefrau edo atsotitzak diren bezala), baita hizketa-formula batzuk ere. Hiribarrenek *erran zahar* deitu zituen batzuk eta bes-teak, ez baitzituen bereizten (eta, izan ere, ez dira beti elkarrengandik berei-zerrazak). Nolanahi ere, *erran* hitza zuzenagoa dateke *aforismo* baino (ik. aforismoaren definizioa 3.2.2. atalean); baina *erran zahar* (hau da, tradiziozko) deitzea egoki den edo ez, aztertzeko dago (ik. 3.3.).

Lhandek 169 argitara zituen (1929:81-93), gainerakoak argitaratugabe daude. *Gure Herriako* edizio partzial horrek Hiribarrenen frantses itzulpeneko hitz eta esaldi batzuk kentzen edo aldatzen ditu, eta eskuizkri-buko testua ere ez du beti zuzen jasotzen, adib. EZAP 149 *Haltsu eta Jatsu, biac higoaltsu* → (*Gure Herria*) *Haltsa eta jatsa, biac higoaltsu*.

Ikus 3. Eranskinean atsotitzen (Er.3.1.) eta lokuzioen (Er.3.2) multzo bana. Atsotitz horiek ez zituen Lhandek argitaratu eta azken bost lokuzioak ere ez; atsotitzak ez dirateke ageri Garateren bilduman, lokuzioak ere ez

OEHn (ez behintzat lokuzio gisa edo sarrera bereziarekin eta Hiribarrenen ematen dien adiera berarekin).

3.2.4. Bi kaierretako horiez gain, aintzat hartu behar ditugu Lhandek argitaratu 123 erran zuhur edo zuhur-hitzak: «Aphorismes sapientiaux» (AS laburduraz). Jokaera moralari buruzko gaiak dira (bertuteak eta hobekak): hordia (AS 1), haurrek ikastea (AS 2-5), haserre eta mendekua (AS 6-14, 47), alferra, alferkeria (AS 15-20), zintzurra «gourmandise» (AS 21-22), ardoa (AS 23-24), bekaiztiak eta bekaizgoa (AS 26-30), zikoitzak eta zikoizkeria (AS 31-36), zuhurtzia (AS 37-40, 42-45), ixilik egotea (AS 52, 54), dohatsua (58), amodioa (AS 59), etab. Ik. multzo bat: Eranskinak 4.

Hiribarrenen erranen eta aforismoen kopuruari dagokionez, bi kaierrek orotara 1334 biltzen dituzte. Lhandek argitaraturiko 123 «Aphorismes Sapientiaux» direlakoak gehituta (eta horiek ere beste batzuen artean hautatu zituen), 1455 dira orotara Hiribarrenen erranak, esan nahi baita gorde direnak eta ezagutu daitezkeenak, nahiz gehiago idatzi zituzkeen.

3.3. Kritikariak Hiribarrenen erranei estilo aldetik duten balioa aitortu diete baina erretrau edo atsotitz gisa dutena ukatu. Ondorioz, atsotitz bilzaileen bildumetatik kanpo gelditu dira.

Lhandek ez zien aitortu atsotitz edo erretrau (fr. *proverbe*) izaera, hau da, esaera egina, ahotik ahorakoa edo berrerabilgarria izatea. Hiribarrenen berak sortuak eta batzuetan aldatuak edo berreginak izanez, ez omen dute folklore balio handirik.⁴ Lhanderen arabera, Hiribarrenen erranen balioa estiloan dago, hainbat kualitate erakusten dituzte (apintasuna edo dotoretasuna eta laburtasuna), interesgarriak dira inbentario eta aliterazio ugariengatik eta gozagarriak lapurtera garbiaren zaleentzat. Frantses itzulpenari dagokionez, haren esanetan, bitxia eta barrokoa da, itzulpen batzuk iruzkinak baino ez dira, poesia balio urria du eta egileak askoz hobeki idazten zuen euskaraz frantsesez baino (ibid. 394-395).⁵ «Erran zaharrak» edo «Aphorismes»

⁴ «De toute évidence, ces proverbes, dictons et formules ont été composés par l'auteur lui-même et quelquefois remanés. Leur valeur folklorique est donc mince.» (Lhande 1928:394).

⁵ «Mais en revanche le style présente des qualités remarquables d'élégance et de concision. Il offre une foule d'inversions et d'allitérations qui marquent un réel intérêt. Les amateurs de beau basque

mes proverbiaux» (ik. 3.2.3.) esapide mamitsu eta aberasgarriak omen dira.⁶ Horiei buruz, Lafittek ohartarazi zuen beste hizkuntzetako enkidekoak edo haietatik moldatuak direla asko, baina ez dutela gatz faltarik.⁷ (Gehi genezake, atsotitz landuen itxura eta estilokoak direla Hiribarrenen erranak, gure ustean).

Lhanderi jarraituz eta haren aipua ekarriz, Azkuek ere atsotitz jatorren izaera ukatu zien Hiribarrenen eserei eta frantses atsotitzen itzultzaileen artean kokatu zuen Hiribarren, Iturriaga eta J. Elissalderekin batera ([1945] 1969 EY III:23, 24). Hala ere, aitortzen du Hiribarrenen bat behintzat onartu zuela bere bilduman (ibid., 28). Lhande eta Azkueren irizpideen indarrez, eta Hiribarrenen eskuizkribuen ezaguera ezaz, atsotitz biltzaileek Hiribarrenen erran eta aforismoak atsotitz bildumetatik errazegi baztertu dituzte, baita Lhandek argitaratuak ere. G. Garatek ez ditu aipatzen ere (1998, sarrera). Asmatuak baldin badira, Lhandek eta Azkuek diotenez, logikoa da sasi-atsotitz hartuak izatea. Hala gertatu ohi da beste hizkuntza eta herrialdeetan (nahiz, zenbait, erabiliaren erabiliz, atsotitz bihurtu diren). Baina kritikariak eta atsotitz biltzaileak ez ote dira zorrotzgiak izan Hiribarrenekin?

Alde batetik, ezin uka Hiribarrenekin berak onduak direla laborarien erran, «Aphorismes proverbiaux» eta erran zuhur asko, agian gehienak. Hori ezaugun da: a) inversio edo hiperbatonetan (LEZ 691 *Beldur bahaiz lanaren, / jakin zac hautatzen ordainaren*. Si le travail te fait peur, / Dégue un bon cultivateur; PHEs 54 *Sahats urac urruntzen / Har beharri duena zaurtzen* [beharria zaurtzen duena]. b) *-a* artikularen elipsi urgarietan, hori baita Hiribarrenen hizkuntza ezaugarri iraunkorrenetako bat, bertsoetan batez

labourdin prendront plaisir à cette lecture. En regard de chaque formule, le chanoine donne une traduction française, souvent rimée, qui témoigne chez lui d'une connaissance du français et d'une valeur poétique considérablement inférieures à sa science du basque. / Voici quelques exemples de cette traduction pittoresque et baroque: (...) Certaines de ces traductions deviennent parfois tout un commentaire; (...)» (Lhande 1928:394-395).

⁶ «Erran zaharrac. Aphorismes proverbiaux. Sous ce titre Hiribarren a ressemblé un grand nombre de sentences mêlés à de simples expressions qui constituent des euskarismes des plus savoureux et sont bien propres à enrichir notre parler courant.» (Lhande 1929:81).

⁷ «“Aphorismes proverbiaux”. Bien de ces maximes correspondent à des dictons connus en d'autres langues, mais elles ne manquent pas de sel.» (Lafitte 1979:185).

ere, prosan gutxiago: LEZ 228 *Ez leher etchetiar, / Guziac dute bizi behar*; LEZ 686 *Ongarri dena biltzen / Bihian aurkhitzen*. LEZ 102 *Harriac bakharric larrutzen / Toki duena ukitzen*. Aipatu bi ezaugarri horiek (-a artikulua elipsiak eta inversioek) Hiribarrenen erlatibo-egitura tipikoak osatzen dituzte: LEZ 315 *Lur garbi dena uzten / zikhinetan errech biluzten*. c) aipamen edo erran kulto batzuetan: LEZ 179 *Erromaco aitoren semeac, / Ez ahalketzen goldeac*. À Rome, consuls et preteurs, / s'honoraient d'être agriculteurs. d) egilearen buruko hitzetan ote gogoko atzizkietan (-*dun, -te*): LEZ 11 *Urthe elurdun, / Ez gosedun*. An de neige est un an de biens, / Pour toi, lecteur, et pour les tiens. Izan ere, normalagoak dira *elur-urte* edo *elurtsu* (ik. G 3785 *Elur urte, ogi urte*; 9465 *Martxo elurtsu, urte garitsu*). Halaber hitz bereziak: LEZ 242 *Laborantzac bide egite / Herrien ungite*. En culture tirer [?] les progrès / Pour le pays sont des bienfaits. e) lehen pertsonaren erabileran (behin edo behin baino ez darabil egileak): LEZ 497. *Denean ur, lur, iguzki, ongarri, / Etzait dela nihor dolugarri*. Lhande zuzen dago kasu batzuetan berreginak izan direla dioenean ere; egilearen eskuko zirriborro eta zuzenketa ugari dituzte Hiribarrenen eskuko erran eta aforismoek. Eta beste aldetik, higie-ne-aforismoak itzulpenak edo moldapenak dira.

Baina kontua zehatzago aztertuz gero, ohartuko ginatke Hiribarrenen erranen artean badirela atsotitz eta lokuzio jatorrak (Er.5.1.), eta Lhande ere ohartuko zen horretaz, nahiz deus ez dioen. Beste batzuetan egileak atsotitz jatorrak baliatzen eta manipulatzeko dituzte modu askotara: atsotitzaren parte bat hartuta (Er.5, LEZ 2), bi atsotitz desberdin elkartuta eta nahastuta (Er.5, LEZ 1), atsotitzari ondoren zirtoa ezarrita –agian Hiribarrenen buruko, agian tradiziozkoa edo antzekoa– (Er.5, AS 100, LEZ 71, 106), atsotiz jatorra bigarren partean jarri eta lehena harekin konbinatuta (Er.5, LEZ 79), atsotitzen aldaerak sortuta (Er.5, LEZ 4, 5), etab.

Izan ere, Hiribarrenen erran ugari Garateren bildumako askoren oso antzekoak dira; ik. multzo bat: Eraskinak 6. Eta, gero, Garateren bildumako guztiak ote dira atsotitz jatorrak? Haietako asko atsotitzen aldaera hutsak dirudite, adib. landu gabeak diren asko, edo, landuen artean, Axularren beraren *Akabatzeari dagoka koroa* (Garatek jasoa), haren parekoa baita EZAP 327 *Akabantzak lana koroatu*. Zergatik Axularrenak atsotitz estatusa eta Hiribarrenenak ez? Ez ote dira atsotiztegiatan erruz eta erraz sartu idaz-

leek idatzi eta asmatutakoak ere? Bestela, benetako atsotitzak zein diren jakiteko, berraztertu beharko lirateke irizpideak, atsotiztegiak eta iturriak, batez ere idatzizkoak.

Bestalde, Hiribarrenen erranak mailegatuak edo kalkatuak direla eta, zer? Atsotitz itzuli edo moldatu franko ez ote dira jendearen ahoan erabiliak eta are atsotiztegietan bilduak? Ez al dute baliorik? J. Hiriart-Urrutik frantsesetik hartuta euskaraz moldatzen zituen atsotitzak bere kazetalanetan erabiltzeko. Hiribarrenen erran ugari, lokuzioak barne, beste hizkuntzetan oso erabiliak direnen itzulpenak dira, batez ere frantsesetikakoak. Ik. multzo bat: Eraskinak 7. Garatek bere bilduman gaztelaniazko frankoren moldapenak sartzen baditu, eskubide berbera izan dezakete gure idazlearenek.

Beraz badirudi Hiribarrenek orotariko erranak bildu nahi zituela –tradiziozkoak, manipulatuak, frantsesetik itzuliak edo berak asmatuak–, irakasteko baliagarriak ziren ber; haren ardura irakastea zatekeen, ez herriaren ahoko eta ahotik atsotitzak biltzea.

Atsotitzek atsotiztegietan baino harrera hobea izan dute gurean Hiribarrenen lokuzioek. Lhandek argitaratutako ugari onartu ditu OEHK, eta sarrera bereziarekin (nahiz lokuzio gisa markatu gabe ageri askotan), adibide bakarrekoak izanik, edo bestela adibideen artean ezarri ditu; beste batzuk, ordea, ez, argitarabeak direlako (ik. Er. 3.2). Atsotitzakoen kasuan bezala, lokuzioak zein diren eta zein ez berraztertu beharko litzateke, gure ustez.

Ondorioak

Hiribarrenen bi alderdi aztertu ditugu, oso ezagunak ez direnak: prosa idazlearena eta neurtitzeko erran eta aforismoen itzultzaile edo moldatzailearena. Alderdi batean eta bestean Hiribarrenen luma trebeak erdie-tsitako emaitza oso baliotsua da, gure ustez, batez ere euskara bizi eta aberatsagatik, estilo labur eta argiagatik, eta garaiko pentsamolde eta jakintzaren lekuko direlako. *Eskaraz eguiako* istorio ugariak, erretorikak eta hitz eta joskera batzuen bitxitasunak ere balio erantsia dute.

Hiribarrenen erranak eta aforismoak ez dira erlijio gaiezkoak, ezta moral gaiezkoak (gehien-gehienak behintzat); bizibideari eta osasunari dagozkion jarraibide praktikoak edota zuhurtziazkoak dira. Hiribarrenek Hipokratesen eta Salernoko Eskolaren medikuntza aforismoak moldatu ditu euskaraz eta Medikuntzaren historiaren parte bat erakutsi digu. Aforismoak irakaskuntzan erabiliak izan dira, jakintza –trinko– adierazita errazago hedatzeko (horretan tradizioa egon da Frantzian) eta haien bidez Hiribarrenek euskaldunei eta laborariei irakastea bilatuko zuen. Genero hori egun ere baliotsua dateke pentsamendua adierazi eta lantzeko (horren adierazle, UPV-EHUK antolatu Oihenart Aforismoen lehiaketa, 2011).

Azterturiko bi alderdietan hainbat eta hainbat gai gelditzen dira azaltzeko; esaterako, zertako itzuli zituen frantsesez bere erran eta aforismoak. Dena dela, gure ustez, Hiribarrenen erran eta aforismoen argitalpenak lagunduko luke egilea ahazturaren eta jakinezaren zigorretik askatzen eta, agian, orain arte baino hobeki balioztatzen. Euskal hiztegiak ere ez luke kalterik. Eranskinetan bildu dugun sortak erakusten du ezagutzea merezi dutela.

Laburdurak

- E: *Eskaldunac* (Baiona: Foret eta Lasserre, 1853). Ik. Bibliografian Altuna *et al.*
- EE: *Eskaraz eguia* (Baiona: Lasserre, 1858).
- Er.: Eranskinak.
- G: Garate, G. Ik. Bibliografia.
- LEZ: (Hiribarren) «Laborarien erran zaharrak». Zenbakia nik ezarri diet.
- AH: (Hiribarren) «Aphorismes Hygiéniques».
- AS: (Hiribarren) «Aphorismes sapientiaux». Lhandek argitaratuak. Ik. Bibl. Lhande)
- M: (Hiribarren) «Médecin». (31 atsotitz). Zenbakia nik ezarri diet.
- PHES: (Hiribarren) «prescriptions hygiéniques de l'Ecole de Salerno». Nik ezarri diet zenbakia.
- EZAP: (Hiribarren) «Erran Zaharrak. Aphorismes Proverbiaux».

Eranskinak

1. «Laborarien erran zaharrak» (LEZ laburduraz)

- LEZ 77. *Bethi bil, arauetz egor, / Ez diteke etchea eror.*
 LEZ 138. *Jondoni Laurenditan, / iditaia ogitan.*
 LEZ 139. *San Martinec arno ona edaten, / Eta ura errotentzat uzten.*
 LEZ 142. *Ganic ere negua itsasoz bertzalderat, / Ethorriren San Nikolasi mintzatzerat.*
 LEZ 177. *Yincoac egin gizona goldeco / Nola arraina ureco.*
 LEZ 198. *Lagun ona liburua, / zuhur bada burua.*
 LEZ 228. *Ez leher etchetiar, / Guziec dute biziz behar.*
 LEZ 241. *Ez denac laborari, / Agur hala denari.*
 LEZ 408. *Estalarazteco behorra, / Hauta garaino ederra.*
 LEZ 448. *Hazia baino lehen sorroari [«soroari», «zelaiari»] / Eman lodi ongarrri.*
 LEZ 484. *Gauzen ungi egiteco, / laborariac bilduco. Agriculteur, ne oubliez pas / De vous unir en syndicat (LEZ 484),*
 LEZ 485. *Yabea bakhar egotean, / Maiz haren lur agortean.*
 LEZ 503. *Chirripen inguru, zure parrapioetan, [«lur eremuetan»] / Arbolac landa bi lerrotan.*
 LEZ 535. *Otsaila hasi orduco, / fruitutzeac moztuco.*
 LEZ 570. *Urharrilaren hoita hamekatic, / Landa mahasti lehenetatic.*
 LEZ 619. *Arnotegian beroa / hamar gradu, ez gehiagocoa.*
 LEZ 661. *Laborari cafetiarra, / ospitalerat beharra. Laboureur qui du café s'approche / court à l'hôpital en coche.*
 LEZ 694. *Ybil azpicoac eztiki, / Egin gabe asiki.*
 LEZ 716. *Etchetiarra lehertuz, / Seilharu joaiten hustuz.*
 LEZ 720. *Ez luza ematen / Muthilei soldaten.*

2. Higiene aforismoak

2.1. «Médecin» sarrerakoak (M laburduraz)

- M 1. *Mediku gutiago, / Gaitza bakhanago.*

- M 2. Burua fresco, sabela arin, zangoac bero, / Midikuez trufa gero.
 M 3. Ura, pasaio eta barur / Mirikuntzaren lehen haur.
 M 5. Ez da sendakairik, Mirikuek erraten, / Eria badohala dutenean ikusten!
 M 6. Biziaren amodioac deitarazten mirikuac; / sendarazi batec ahan-tzarazten ehun hondatuac.
 M 7. Sendakai miriku batek emana / Nihoiz bertzeaz ungi atzemana.
 M 12. Hainitz mirikuk ez sinhesten badela arimaric, / Ezdute beraz arthatzen aberez bertzeric.
 M 21. Akademian badire miriku churi, gorriac; / Mirikuntzac beraz ci-mendu lazgarriac.
 M 22. Bethi berri laborantza, / Berriago mirikuntza.
 M 29. Mirikuen aita, Hypocrates jauna, / Yzanen lehenic mintzaturen dena.
 M 30. Labor bizia, / Ikhaspema luze, / Mena lasterra / Egintza enganiocor, / Erratea gaitz. La vie est courte, / L'art est difficile, / L'occasion prompte, / L'expérience trompeuse, / Le jugement difficile.

2.2. «Aphorismes hygiéniques» (AH laburduraz)

- AH 1. Ez da on sobera jatea, / Ez gose jasatea, / Ez ahalez gorago egitea. Il n'est pas bon de manger trop, ni de souffrir la faim, ni de faire rien au delà de la nature.
 AH 8. Janari umiãc behar, / Gorphutzari darraiconean sukhar; / Haurrac lerro hortan sar. Le régime d'une nourriture humide est nécessaire aux tempérament fébriles, et surtout aux enfants.
 AH 13. Eritasunean jateco hoberena, / Ahoac galdetzen duena, / Nahiz ez luken bethi iduri hautena.
 AH 26. Sabel chumeaz goitico gaitz husdura dutenac galdetzen, / Goiticoac sendatzen. / Sabel chumeaz behitic direnac, / Behiticoaren lanac. Les douleurs situés au dessus du diaphragme et qui demandent l'évacuation, seront guéris par le vomissement, eta celles qui sont au dessous, par le purgatif.

- AH 52. Bulhar usteltzetic helduden hetikadura, / zortzi urthetari hoi-ta hamabortzetarat izaten ardura. La phtisie, qui provient de l'ulcère du poumon, se manifeste communément depuis l'âge de huit ans jusqu'à trente-cinq.
- AH 70. Emazte izorrei atheratzea odola, / Haur eginaraztea denbora ez dela; / Yzor handian bereziki hori egin ez dadiela.
- AH 71. Emazteari, muthil duenean garraiatzen, / Coloreac bizi zaizco agertzen; / Alaba badu, zuri ezagutzen.
- AH 85. Beraz aro, hotz eta beroen ganbiantzetan, / Gaitzac menta handienetan; / Gauza bera da bizia duten orotan.
- AH 110. Hotz edo bero den izerdiac / Bethi baditu gaindiac, / Erakusten gaitzaren min edo hagoniac; / Hotzac badire, / Gaitz sendatzetic urrun dire; / Gaitza hil hurren, beroac badire.
- AH 122. Larrua idor eta gogor dutenac, / Yzerdiric gabe hiltzen direnac; / uritan hiltzen larru lazo eta cilhotsudunac.

2.3. *Salernoko Eskolako Higiene-preskripzioak (PHES laburduraz)*

- PHES 1. Burutic grina athera, / Jabal hasarradura.
- PHES 2. Siesta higuin eguerditan, / gernu eta haize utz airetan.
- PHES 3. Hobe dieta / Ezen ez lanzeta.
- PHES 4. Esku eta begi garbi goizetic, / Ez bara higitzetic.
- PHES 5. Orrazta, hortzac garbi, oin, esku, hezurrac luza, / Hobeki hala gorputza.
- PHES 11. Guti jan arratsetan / Loaren onetan.
- PHES 32. Gaznac hozten, hesten eta gogortzen, / Ogi eta gasnac gor-phutz garbi galdetzen / Gasnac hutsic gaizkitzen / Ogiarekin, kalte ekhartzen.
- PHES 36. Udare erria hoberena, / Gordinik tzarrena, / Errerik barneco eztieta / gordinik garratzena.
- PHES 37. Janari ona gerezia, / Behiti doha guzia, / Hexurrak khentzen harria, / Urak gorphutzean hedatzen bizia.
- PHES 68. Odol atheratzeac nahi behitico; / Berez barnea hutsa itchikico / ez hala unhatuco, / Entzute, boz, indarrac ethorrico.

3. «Erran zaharrak-Aphorismes proverbiaux» (EZAP laburduraz)

3.1. *Atsotitzak*

- EZAP 17. *Ez utz estriberac.* N'abandonnez pas les étriers; c'est à dire, usez de vos avantages.
- EZAP 151. *Mihia zilhatu zaio.* La langue lui a fourché: il a lâché une parole contre son intention.
- EZAP 190. *Hitz bati darraizco oro.* Il n'y a qu'un mot qui serve: parler nettement.
- EZAP 209. *Mendi guziac errekekin.* Il n'y a pas de montagnes sans vallées.
- EZAP 216. *Hitz ona errech eta aberats.* Bonne parole coûte peut, et vaut beaucoup.
- EZAP 217. *Zucenegi, laster makhurregi.* Trop de justice degénere en injustice.
- EZAP 233. *Agur agurrari.* Quiconque salut, est salué.
- EZAP 236. *Ez da ahalcatzeco, ez dakizuna galdetzeco.* N'ayez par honte de demander ce que vous ne savez pas.
- EZAP 238. *Aberatsena, zorric ez duena.* Est assez riche qui ne doit rien.
- EZAP 259. *Nihorc bethi irabaxten.* N'est pas marchand qui toujours gagne.
- EZAP 264. *Lanetan ageri gizonac.* Les affaires font les hommes.
- EZAP 265. *Hibaia barnenean, ichilenean.* Où la fleuve est plus profonde, il fait le moins de bruit.
- EZAP 277. *Ez da bolbora etche chorientzat.* Il ne faut pas tuer de poudre aux oiseaux.
- EZAP 280. *Maite duena Bertrantto, / Maite haren chakhurttto.* Qui aime petit Bertrand / Aussi son petit chien.
- EZAP 288. *Gal lehenago hitz ona / Ezen zure laguna.* Il vaut mieux perdre un bon mot qu'un ami.
- EZAP 302. *Oro deus ez.* Tout est vanité.
- EZAP 329. *Hobe bekhaitzaraziric, / Ezen urrikalaraziric.* Mieux vaut faire envie / que pitié.

3.2. Lokuzioak

- EZAP 22. *Haize guziac segi.* Aller à tout vent; être sans résolution.
- EZAP 24. *Guziei halabiz.* Il dit amen à tous; il acquiesce à tout ce qu'on veut [?].
- EZAP 42. *Moco eta behatz onac [izan].* Avoir bec et ongles: répondre vivement à un attaque.
- EZAP 83. *Atzapar onac izan.* Avoir les mains crochues: promptes à dérober. [OEH *aztapar onak ditu*, il est vigoureux, il est bon ouvrier (Duvoisin)]
- EZAP 176. *Bazcari guzietaco izieta [?][izuta?].* Etre à pot & a rô: parasite.
- EZAP 184. *Errainac hazkar.* Avoir les reins forts: pouvoir et tenter certaines chances.
- EZAP 188. *Zakhuaren ondoa ikhus.* Il faut voir le fond du sac: s'instruire bien d'une affaire [?].
- EZAP 191. *Irin eta zahi.* Moitié farine, moitié son: marchandise mêlée.

4. «Aphorismes sapientiaux» (Lhandek hala izendatu eta argitaratuak) (AS laburduraz)

- AS 4. *Hobe haurrak egun egitea nigar / Ezen ez zuk bihar.*
- AS 14. *Ura suari, / eztitasun kolerari.*
- AS 32. *Zaldi iduriko da zikhoitza; eramaile arno eta edale huts hutsa.*
- AS 37. *Mintza gehiago zurekin / ezen ez bertzeekin.*
- AS 43. *Zuhur litezke asko / ez balire bere buruaz hartusko.*
- AS 58. *Gizon dohatsuena, / Hala dela uste duena.*
- AS 59. *Amodioak baiak ezeztatzen, / Herrak agertzen.* L'amour couvre les défauts; la haine les met en relief.
- AS 64. *Egun tzarragoak, / Lege gehiagoak.* C'est dans les temps de corruption que les lois se multiplient.
- AS 70. *Atzeman beza lagunac zu baithan / Zuk nahi duzuna hura baithan.*
- AS 73. *Izaten hoberena / Barkhatzen dakiena.*
- AS 90. *Libertatearen mugarria / Libertinkeria.*
- AS 106. *Maiz gauza bat bilhatzen, / Bertze bat aurkhitzen.*

- AS 109. *Ez da sokez mintzatzeko / Urkhatua denean hurbilsko.*
 AS 111. *Hobe choria eskuan / Ezen ez lersuna zeruan.*
 AS 113. *Eztia nihorc zainduko / Astoaren zintzurreko.*
 AS 123. *Ungi predikatzen / Denak ungi bizitzen.*

5.1. Atsotitz eta lokuzio jatorrak

- LEZ 119. *Andredena Marchoco, / Behia larrean aseco.*
 LEZ 671. *Nausia nolaco, / Muthila halaco. À tel maître, tel valet; / Rien n'est plus vrai; chacun le sait. Ik. G 9911 Nolako nau-si, halako mutila.*
 EZAP 107. *Egina egin. Ce qui est écrit est écrit: rien à changer.*
 EZAP 129. *Su eta khar. Jeter feu et flamme: se répandre en invectives, agir avec ardeur.*
 EZAP 149. *Haltsu eta jatsu, biac higoaltsu. C'est jus vert ou vert jus: même chose.*

5.2. Atsotitz jatorren baliatze eta manipulazioa

- LEZ 2. *Lehen hala, / Orai hola. Ik. G 8954 Lehen hala, orain hola, gero ez dakigu nola.*
 LEZ 1. *Hotz ez dena bero, / Gauzec bere aro (LEZ 1). Antzekoak, alde batetik, G 5602, 5606, 5607, 4124, eta bestetik, 4923.*
 AS 100. *Hitz guti eta hek onak / Higuindua nahi ez denac (AS 100, Lhandek argit.; lehen zatia atsotitz oso ezagun erabili batek osatzen du).*
 LEZ 71. *Ez eragin beherapenean, / Hain guti ilhargi bethean. Lune en décours, ne seme point. Antzekoa G 4055 Ilbeeran erein zegik arean.*
 LEZ 106. *Uriaren ondotic atheri, / Nihor bethiko eri. Toujours ne peut durer orage / Ni de Bellonne le ravage [?]. Ik. G 4808 Euriaren ondoren aterri.*
 LEZ 79. *Iñada laster ibiltzen, / Uda hastea ez harc ekhartzen. On admire le vol del'hirondelle, / Le printemps n'attend pas l'essor de son*

añle. Antzekoak beste hizkuntzetan: gazt. *Una golondrina no hace el verano/primavera*; lat. G 3279 *Unus hirundo non efficit ver etab.*

- LEZ 4. *Urthec eramaten, / Nihor ez egoten.* Antzekoa G 13234 *Gure urtheak ethortzen dira joaiteko eta ez gurekin egoiteko* (Axular); G 13253 *Urteak ekarri, urteak eramán.*
- LEZ 5. *Urtheac yoaiten, / Ez atzematen* (LEZ 5). Antzekoa G. 13258 *Urteak galupeka joaten dira.*
- LEZ 170. *Egun egin lan ahal duzuna, / Ez baita zurea biharco eguna.*
- LEZ 171. *On dena egun egiteco / ez utz biharco.* Ik. G. 3508 *Egun egiten ahal dukana, ez utz biharko.*

6. Garateren bildumakoen antzekoak

- LEZ 113. *Haize tzarrac / Ondotic uharrac.* Ik. G 6217 *Haize na(ha)sik dabilzi, laster uria*; 6220; 6224; 6227.
- LEZ 48. *Goizean lo dagon acheriac / Ez jaten oilokiak.* Ik. G 5950 *Goi-zaldean lo dagoen azeriak ez du humarik ahoan.*
- LEZ 65. *Onac eta gaiztoac, / Yguzkipecoac.* Sur les bons le soleil luit, / Aux mauvais nullement ne nuit. Ik. G 3603 *Eguzkia denentzako urteten dau. Eguzkia bera, on ala gaiztoentzat.*
- LEZ 92. *Negu ederrac, / Uda uherrac.* Hiver, sitôt qu'il est trop beau, / Nous promet un été plein d'eau. Ik. G. 10036 *Negue euzkitsu, ondoko udie euritsu.*
- LEZ 123. *Apirila gizonentzat, / Maiatza bestientzat.* Ik. G 9208 *Maiatza, / ab(e)ren hilabetea.*
- LEZ 128. *Maiatzeco beroa, / Urtheco aroa.* Au mois de Mai la chaleur, / Toute l'année ait de valeur. Ik. Garate 9255 *Maiatzeco beroa, / urteko balioa.*
- LEZ 131. *Maiatzean uri, / Abuztuan gari.* Ik. G 9244 *Maiatzean uri, / uzta jori*; G 9248 *Maiatzean milla euri, milla ogi*; G 9256, 9257, 9261.
- LEZ 132. *San Medarrez uri, / Berrogoi egunex guri.* Ik. G 11795 *San Medarrek euri, / berrogoi egunex busti.*

- LEZ 140. *Eguna luzatzen Santa Luziaz, / Cucuso baten jauziaz.* Ik. G 11868 *Santa Luzia orduko, eguna ahuntzaren jauzia luzatzen;* 11869, 11871.
- LEZ 430. *Jan gutiz nausi begiac / Egiten abrei haragiac.* Ik. G 9928 *Nagusiaren begiak gizentzen ditu idiak.* «Nagusiak bere ondasunak ondo zaintzen». *El ojo del amo engorda al ganado.*
- EZAP 294. *Chakhurrekin loharkatuz / Jekitzzen kukusoztatuz.* Ik. G 13724 *Zakurrekin datzana, jaikiten da kukusoeki* (Oihenart).
- EZAP 304. *Nahiac ahal ematen.* Ik. G 9938 *Nahi duenak ahal du, nahi ez duenak guzia galdu;* 9947; 9949. *Le vouloir fait le pouvoir.*

7. Erran eta aforismo itzuliak edo moldatuak

- LEZ 31. *Paris etzen egun batez egin / Egunac ziren [?] berregin.* On ne fit point Paris / En un jour de fête ou de ris. Ik. G 11159 *Paris ez da egun batez egina.*
- EZAP 30. *Sugeak irets.* Avaler des couleuvres: souffrir et n'oser se plaindre.
- EZAP 59. *Kartazko jauregi.* Château de cartes: maison fragile.
- EZAP 72. *Ungi eraman barkua.* Bien conduire sa barque: savoir faire ses affaires.
- EZAP 103. *Baso bat uretan itho.* Se noyer dans un verre d'eau: être continûment [?] malheureux.
- EZAP 186. *Horma utz.* Rompre la glace: parler.
- EZAP 239. *Bide guziek Erromarat eramaten.* Tout chemin conduit à Rome.
- EZAP 253. *Zaldi urririkako, krapestu nola nahiko.* À cheval donné ne regarde pas la bride.
- EZAP 306. *Jaincoac laguntzen dena haritzen.* Aide-toi, Dieu t'aidera.
- EZAP 327. *Akhabantzak lana koroatu.* La fin couronne l'oeuvre. Ik. G 431 *Akabatzeari dagoka koroa* (Axular).

Bibliografia

- ALTUNA, P. et al. 1997. *J. M. Hiribarren. Eskaldunak (2. zatia)*. Donostia: EEE.
- ARBELBIDE, X. 1991. «Drame: 891an euskaldun gerla», *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*. Universidad del País Vasco. 485-503.
- AZKUE, R. M. [1945]. 1969. *Euskalerrriaren Yakintza-Literatura popular del País Vasco*. III. Madrid: Espasa-Calpe.
- ELISSALDE, J. 1936. *Atsotitz, zuhur-hitz eta erran-zahar*. Baiona: La Presse.
- GARATE. 1998. 27173. *Atsotitzak. Refranes. Proverbes. Proverbia*. BBK Fundazioa. 1998.
- HIRIBARREN, J. M. 1858. *Eskaraz eguia*. Baiona: E. Lasserre. Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan ale bat dago ikusgai: Lacombe Biblioteka. Olaso Dorrea Sorre-rakundea.
- *Laborarien erran-zaharrak* (eskuizk.). P. Lafitteren funtsa. LAF 302-027. Azkue Bibliotekan ikusgai.
- *Médecin. Aphorismes hygiéniques. Erran zaharrak-Aphorismes proverbiaux* (eskuizk.). P. Lafitteren funtsa. LAF 302-026. Azkue Bibliotekan ikusgai.
- INTXAUSTI, J. 1972. *Iraultzaren hildotik*. Jakin.
- LAFITTE, P. 1941. *Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*. Baiona: Le Livre.
- 1979. «Jean-Martin de Hiribarren» (1810-1866)». *Euskera*. 181-191.
- LHANDE, P. 1928. «Les proverbes d'Hiribarren». *Gure Herria*, VIII. 394-405.
- 1929. «Les proverbes d'Hiribarren». *Gure Herria*. 81-93.
- MITXELENA, L. 1988. *Historia de la literatura vasca*. (2. argitaraldia).
- *Diccionario General Vasco-Orotariko Euskal Hiztegia*. 1987-2005. 2. argitaraldia, 2011.
- MUJICA, L. M. 1979. *Historia de la literatura euskérica*. Donostia: L. Haranburu.
- OEI. Ik. Mitxelena, L.
- ONAINDIA, S. 1973. *Euskal literatura*. II. Bilbao: Etor.

PAGOLA *et al.* 1994. «Napoleon Lehena». *Bonaparte Ondareko eskuikribuak. Lapurtera-1*. Deustuko Unibertsitatea. 41-183.

SARASOLA, I. 1970. *Euskal literaturaren Historia*. Zarautz: Lur.

URKIZU, P. (dir.) *et al.* 2000. *Historia de la literatura vasca*. Madrid: UNED Ediciones.

VILLASANTE, L. 1979. *Historia de la literatura vasca*. Editorial Aranzazu. (2. argitaraldia).